


ATTACHMENT VIDEO-FEEDBACK INTERVENTION (AVI): ADIN TXIKIKOEN BABESGABETASUNAREKIKO ARRISKU-EGOEREI AURREA HARTZEKO ESKU-HARTZEA

Attachment Video-feedback
Intervention (AVI): A program
for the prevention of the risk
of child abuse and neglect



amon la zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Ane Eguren Ikazuriaga

**ATTACHMENT VIDEO-FEEDBACK INTERVENTION
(AVI): ADIN TXIKIKOEN BABESGABETASUNAREKIKO
ARRISKU-EGOEREI AURREA HARTZEKO ESKU-
HARTZEA**

*Attachment Video-feedback Intervention (AVI): A program for
the prevention of the risk of child abuse and neglect*

Nazioarteko doktoretza-tesia / *International Ph.D.*

Egilea / *Author:*

Ane Eguren Ikazuriaga

Zuzendariak / *Supervisors:*

Ph. D. Alexander Muela & Ph. D. Goretti Soroa

Data / *Date:*

2022

Copyright 2022. Ane Eguren Ikazuriaga. Eskubide guztiak erreserbatuta/*All rights reserved.*

Ilustrazioak/*Illustrations*: Maitane Varela Alonso

*“Zenbat kostatzen zaigun bizitzan maitekor agertzea.
Zenbat kostatzen zaigun samurtasuna manifestatzea.
Zenbat kostatzen zaigun hitz hain simple horiek esatea
noizbait, noizbehinka...maite zaitut.
Ez dakit zergatik den horrela, baina hala dira gauzak
[...]ni zuek bezala naiz eta kosta egiten zait esaten eta
manifestatzen” - Xabier Lete (1999)*

*“In infancy, it is a joy to be hidden, and a disaster not to
be found” - Donald Winnicott (1991)*

AURKIBIDEA/ *Table of contents*

ATTACHMENT VIDEO-FEEDBACK INTERVENTION (AVI): ADIN TXIKIKOEN BABESGABETASUNAREKIKO ARRISKU-EGOEREI AURREA HARTZEKO ESKU-HARTZEA/	1
<i>Attachment Video-feedback Intervention (AVI): a program for the prevention of the risk of child abuse and neglect</i>	3
ESKER ONAK/ Acnowledgements	11
LANKIDETZA/ Cooperation	13
SARRERA/ Introduction	15
DOKTORETZA-TESIAREN EGITURA/ Structure of the Doctoral Thesis	17
LEHENENGO ZATIA (ZATI TEORIKOA)/	21
<i>First section (Theoretical section)</i>	21
1. KAPITULUA. ADIN TXIKIKOEI ARRETA ETA BABESA/	23
<i>Chapter 1. Child care and protection</i>	25
➤ 1.1 HAURRAK BABESTEKO BEHARRA/	25
<i>Protecting the safety and well-being of children</i>	25
➤ 1.2 HAURREN BABESGABETASUNAREN ONDORIOAK ATXIKIMENDUAN ETA GARAPEN SOZIO-EMOZIONALEAN ZAILTASUNAK IZATEKO ARRISKUAN/	39
<i>Consequences of child abuse and neglect on attachment and difficulties in the socio-emotional development</i>	39
*SUMMARY OF THE 1ST CHAPTER:	42
<i>“Child care and protection”</i>	42
2.KAPITULUA. ATXIKIMENDUAN OINARRITUTAKO ESKU-HARTZE GOIZTIARRAK: ATXIKIMENDUAN OINARRITUTAKO ESKU-HARTZEA BIDEO-FEEDBACKAREN BIDEZ (AVI)/	45
<i>Chapter 2. Early evidence-based interventions around the attachment theory: Attachment Video-feedback Intervention (AVI)</i>	47
➤ 2.1 ATXIKIMENDUA SISTEMA GISA/	47
<i>The attachment system</i>	47
➤ 2.2 ATXIKIMENDUAREN TEORIAK ABIAUTUTAKO EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO ESKU-HARTZEAK/	55

<i>Attachment oriented evidence-based interventions</i>	55
➤ 2.3 ATXIKIMENDUAN OINARRITUTAKO ESKU-HARTZEA BIDEO- FEEDBACKAREN BIDEZ (AVI)/	60
<i>Attachment-based Video-feedback Intervention (AVI)</i>	60
*SUMMARY OF THE 2 ND CHAPTER:	68
<i>“Early evidence-based interventions around the attachment theory: Attachment Video-feedback Intervention (AVI)”</i>	68
3. KAPITULUA. DOKTORETZA-TESIAREN JUSTIFIKAZIOA/	73
<i>Chapter 3. Justification of the Doctoral Thesis</i>	75
➤ 3.1 DOKTORETZA-TESIAREN EKARPENAK/.....	77
<i>Contributions of this Doctoral Thesis</i>	77
*SUMMARY OF THE 3RD CHAPTER:	79
<i>“Justification of the Doctoral Thesis”</i>	79
BIGARREN ZATIA (ZATI ENPIRIKOA)/	83
<i>Second section (Applied section)</i>	83
4. KAPITULUA. IKERKETA-HELBURUAK/	85
<i>Chapter 4. Research objectives</i>	87
*SUMMARY OF THE 4TH CHAPTER:	88
<i>“Research objectives”</i>	88
5. KAPITULUA. AVI PROGRAMAREN BERTSIO ESPAINIARRA: INPLEMENTAZIO- TESTUINGURUA/	89
<i>Chapter 5. The Spanish version of the AVI program: implementation context</i>	91
➤ 5.1 AVI PROGRAMAREN INPLEMENTAZIO-TESTUINGURUA/	91
<i>The implementation context of the AVI program</i>	91
➤ 5.2 AVI ESKU-HARTZE PROGRAMAREN BERTSIO ESPAINIARRAREN EBALUAZIO-SISTEMA/	105
<i>The evaluation system of the Spanish AVI program</i>	105
➤ 5.3 OINARRI ETIKOAK/ <i>Ethical considerations</i>	108
*SUMMARY OF THE 5TH CHAPTER:	110
<i>“The Spanish version of the AVI program: implementation context”</i>	110

*CHAPTER 6. “FEASIBILITY, ACCEPTABILITY, AND INITIAL OUTCOME OF THE ATTACHMENT VIDEO-FEEDBACK INTERVENTION FOR FAMILIES AT RISK OF MALTREATMENT IN SPAIN”	113
➤ ABSTRACT	115
➤ 6.1 INTRODUCTION	116
➤ 6.2 METHOD	121
➤ 6.3 RESULTS	128
➤ 6.4 DISCUSSION	134
7. KAPITULUA. AVI BERTSIO ESPAINIARRAREN ESKU-HARTZE PROZEDURA/.....	143
<i>Chapter 7. The intervention procedure of the Spanish version of AVI</i>	145
➤ 7.1 AVI ESKU-HARTZE PROZEDURA/.....	145
<i>The intervention procedure of AVI</i>	145
*SUMMARY OF THE 7TH CHAPTER:	146
<i>“The intervention procedure of the Spanish version of AVI”</i>	146
*CHAPTER 8. EFFECTS OF THE ATTACHMENT VIDEO-FEEDBACK INTERVENTION (AVI) ON PARENTS AND CHILDREN AT RISK OF MALTREATMENT DURING THE COVID-19 PANDEMIC	149
➤ ABSTRACT	149
➤ 8.1 INTRODUCTION	150
➤ 8.2 METHOD	155
➤ 8.3 RESULTS	161
➤ 8.4 DISCUSSION	163
HIRUGARREN ZATIA: EZTABAIDA ETA ONDORIOAK/.....	171
<i>Third section (Discussion and Conclusions)</i>	171
EZTABAIDA/ DISCUSSION	173
➤ AVI BERTSIO ESPAINIARRAREN BIDERAGARRITASUNA ETA ONARGARRITASUNA/	173
<i>The Spanish version of AVI: feasibility and acceptability</i>	173
➤ AVI PROGRAMAREN ERAGINKORTASUNA COVID-19 KRISI GARAIAN/	181
<i>The effectiveness of the Spanish version of AVI in COVID-19 pandemics</i>	181
➤ IKERKETA-MUGAK/	184
<i>Research limitations</i>	184
➤ ETORKIZUNEKO IKERKETA-LERROAK/	186
<i>Prospects for future research</i>	186

*SUMMARY OF THE DISCUSSION:	191
<i>"Discussion, research limitations and prospects for future research"</i>	191
➤ *CONCLUSIONS	197
ERREFERENTZIAK/ REFERENCES	201
ERANSKINAK/ APPENDICES	233
➤ ERANSKINA 1. AVIN PARTE-HARTZEKO BAIMEN INFORMATUA/	233
<i>Appendix 1. Informed consent to participate in AVI</i>	233
➤ ERANSKINA 2. GIZAKIEN ETA HAUEN LAGIN ETA DATUEKIN EGINDAKO IKERKETEI BURUZKO ETIKA BATZORDEAREN TXOSTENA/.....	236
<i>Appendix 2. Positive report of the Ethics Committee on research conducted with</i> <i>humans and their data</i>	236
➤ ERANSKINA 3. 8. KAPITULUKO FITXATEGI OSAGARRIA (ANALISIAK ETA EMAITZAK) *Appendix 3. Supplementary file of Chapter 8 (analyses and results).....	237

**Note: Asterisks correspond to those chapters or appendix written in English. Appendices are written in their original language.*

ESKER ONAK/ *Acknowledgements*

Lerro hauekin eskerrak eman nahi dizkiet proiektu honi “atxikitu” zaizkien pertsona guztiei, eta prozesu honetan nire bidelagun izan zaretenoi. Lehenik eta behin, eskerrak Alexander Muela eta Goretti Soroa irakasle eta ikerlariei, mundu akademikora hurbiltzeko aukeragatik eta zuen hurbiltasun eta gizatasunagatik. Zuengandik eta zuen aholku eta orientabideetatik ikastea pribilegio handia izan da niretzat. Bereziki, eskerrik asko Gizarte Zerbitzu Publikoarekin elkarlanean nazioarteko proiektu batean partehartzeko aukera zabaldu izanagatik, esperientzia zabala duten profesional eta ikertzaile askorengandik ikasteko aukera paregabea eman baitit.

Zuen enborretik irtendako adaxka izana ez dut inoiz ahaztuko.

Esker mila aita eta ama, Jose Ignacio eta Pilar, beti nigan sinesteagatik, nire bertsio onena izan nadin animatzeagatik, baldintzarik gabeko harremanagatik eta uneoro laguntzeko prest egoteagatik.

Maite zaituztet.

Eskerrik asko bereziki, Ander, Irati eta Ane, eta baita gainontzeko kuadrilla eta laguntalde minoi ere, bidelagun izateagatik, sostenguagatik, zuen goxotasun, alaitasun eta maitasunagatik, errazteko jarrera izateagatik, eta beti ere ona desiratzeagatik.

Bizitzaren bidean aurkitutako altxorak zarete.

Azkenik, eskerrik asko Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatibako zuzendaritza taldeari, luzatutako aukeragatik eta malgutasunagatik, eta batez ere Noelia Moyanori, profesionaltasun eredu izateagatik eta uneoro nire ikasketa eta hazkuntza pertsonal eta profesionala eskuzabaltasunez errazteagatik eta sustatzeagatik. Betiko eskertuta egongo natzaie garapen teknikoko eta beste zenbait zerbitzutako lankideei, beren jakintza nirekin partekatzeagatik, Gizarte-Zerbitzuetako lana neke gabe eta arduraz doitzeko duten gogoagatik eta prozesu honetan eskainitako babesagatik.

Profesional bezala, zuei esker gorpuztu naiz.

LANKIDETZA/ *Cooperation*

Tarte bat eskaini nahi diet doktoretza-tesi honen aldeko apustua egin duten pertsona, erakunde parte-hartzaile eta finantzatzaileei: Donostiako Udalari eta bertako teknikariei eta zuzendaritza-taldeari, Gizarte Zerbitzuetan, adin txikikoen arretan, arreta goiztiarreko prebentzio programen alde egiteagatik; arduraz, proiektuaren jarraipen estua egiteagatik, eta, hurbiltasunez, proiektu kalitatekoa izateko erraztasunak emateagatik. Eskerrak batez ere zuri, Edurne.

HZ erakundeko profesionalari, inplikazio profesionalagatik eta pertsonalagatik, esku-hartzearen eraginean sinesteagatik, zuen onena emateagatik, esker oneko agertzeagatik eta gainbegiraketetako elkarrekintzak horrenbeste aberasteagatik.

Bestalde, UQAM Unibertsitateko Chantal Cyr doktoreari eta haren lankideei, Karine Dubois-Comtois doktoreari eta gainerako guztiei eta laborategian lagun izan ditudan ikasleei, nigan izan duten konfiantzagatik, proiektuaren jarraipen estua eta kalitatekoa sustatzeagatik, ekarpen aberatsak egiteagatik eta Kanadan besoak zabalik hartzeagatik. Haien lankidetzaz gabe, proiektu hau ez zen gauzatuko.

SARRERA/ Introduction

Lan hau hiru ikerketa ardatzetan dago oinarrituta: 1) Adin txikikoen babesgabetasunarekiko arrisku-egoerak arreta goiztiarretik eta prebentziotik lantzea, 2) Atxikimendu sistema ziurra ebidentzian oinarritutako programen bidez jorratzearen garrantzia, eta 3) Adin txikikoen babesgabetasunarekiko arrisku-egoerei aurrea hartzea Attachment Video-Feedback Intervention (hemendik aurrera AVI) (Moss et al., 2018) programaren bitartez.

Batetik, *adin txikikoen babesgabetasunarekiko arrisku-egoerak* arreta goiztiarretik eta prebentziotik jorratzearen garrantzia lantzen da, haren ondorioek haur eta nerabeen garapen sozio-emozionalean eta neuro-biologikoan duten eragin negatiboa azpimarratuz. Gainera, zenbat eta beranduago esku-hartu, geroz eta zailagoa izan daiteke babesgabetasunetik eratorritako egoerak lantzea, edo, akaso, familiekin lan egiteko baliabide gehiago behar izatea. Honenbestez, babesgabetasunarekiko arrisku-egoeren detekzio goiztiarrak eta esku-hartze eraginkorrak sustatzeak epe labur, ertain zein luzera duten eraginaren gainean ikertzea ezinbestekoa izango da, Haur eta Nerabeen Babes-Sistema publikotik familiei eskaintzen zaizkien 0-5 urte bitartera zuzendutako esku-hartze goiztiarren eraginkortasuna areagotzeko eta babes-faktoreak sustatzeko eraginkortasuna erakutsi duten esku-hartzeak izateko, krisi egoeretan erabiltzeko ere balio dutenak.

Ildo honetan, esan beharra dago, doktoretza-tesi honen baitan, “babesgabetasunarekiko arrisku-egoerak” eta “risk of maltreatment” edo “risk of child abuse and neglect” terminoak erabili direla hurrenez hurren, bai nazioartean eta baita Euskal Herrian ere, atal enpirikoan azaltzen diren familia parte-hartzaile profila zehazteko. Ondorioz, babesgabetasunarekiko arrisku-egoera terminoak, Euskal Herrian, babesgabetasunarekiko-zaurgarritasun eta arrisku arin eta ertainei egingo lioke erreferentzia, eta ingelerazko itzulpenak ere, babesgabetasunarekiko arrisku egoeran dauden familiei egiten die erreferentzia, eta ez “haurrei emandako tratu txar” egiaztatuari, zein, “child maltreatment” edo “child abuse and neglect” bezala itzuliko litzatekeen.

Bestetik, ikerketa honen bigarren ardatza *atxikimendua* da. Nahiz eta atxikimenduaren gaineko ikerketa ugari burutu den eta bogan dagoen gaia den, Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman ez dago ebidentzian oinarritutako 0-5 urte dituzten haurrei eta beren zaintzaileei

zuzendutako esku-hartzerik ama/aita-haurra diadetan, modu goiztiarrean, haurren garapen sozio-emozionala hobetu eta babes-faktoreak sustatzeko. Haratago joanda, sentikortasunean eta atxikimenduan oinarritutako esku-hartzeen eraginkortasuna jakina den arren, Haur eta Nerabeen Babes-Sistemaren testuinguruan, ez dakigu arreta goiztiarra jasotzen duten gurasoen sentikortasuna eta atxikimendua lantzeko aukera izan duten familien ondorena zein den, arreta konbentzionala jasotzen duten familiekin alderatuz. Horretaz gain, atxikimendu ziurra garatzeak haurren garapen sozio-emozionalaren funtsezko aurrekari bat dela kontuan hartuta, Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman, adin goiztiarrean (0-5), haur-zaintzaile diaden arteko harremana atxikimenduan oinarritutako programen bitartez lantzea egiteko garrantzitsu bat da, babes-faktoreak sustatu eta haur eta nerabeen babesgabetasunarekiko arrisku-egoerei aurrea hartzeko.

Azkenik, doktoretza-tesi honen ardatz nagusia *AVI (Moss et al., 2018) esku-hartze programa da*, zeina atxikimenduan oinarrituta dagoen eta Haur eta Nerabeen Babes-Sistemaren testuinguruan, modu goiztiarrean eragina duen. Zehazki, AVI (Moss et al., 2018) programaren bertsio espainiarraren bideragarritasuna eta onargarritasuna aztertu nahi izan da, prebentzio ikuspegitik landutako esku-hartzea Euskal Herriko adin txikikoen babes-sistema publikoan inplementatuz eta ebaluatuz.

Honen harira, haur eta nerabeen babesa arreta-goiztiarrean kokatzeak ekar ditzakeen onurei erreparatuta, ikerketa lan honen ekarpen nagusienak honako hauek dira:

- Batetik, atxikimenduaren teoria gaurkotuetan errotutako eta ebidentzian oinarrituta dagoen AVI (Moss et al., 2018) esku-hartze programaren bertsio espainiarraren bideragarritasuna eta onargarritasuna aztertzea, Babes-Sisteman dauden 0-5 urte bitarteko haurren eta euren guraso/tutore/zaintzaileen harremanetan; eta, AVI (Moss et al., 2018) programaren bertsio espainiarrak gurasotasun behar bezain onari egozten zaion eskuragarritasun emozionalaren aldagaien duen inpaktua neurtzea.
- Bestetik, COVID-19 krisiak guraso/tutore/zaintzaileen gurasotasun behar bezain onaren zenbait aldagaitan (gurasoen estres mailan, familia-kaosean, eskuragarritasun emozionalean eta haurrekiko gaitasun erreflexiboan) izan duen eragina kontuan harturik, AVI (Moss et al., 2018) programaren bertsio espainiarraren eraginkortasuna testuinguru honen baitan aztertzea.

DOKTORETZA-TESIAREN EGITURA/ *Structure of the*

Doctoral Thesis

Ikerketa-lan hau bi zati nagusitan banatu da: Zati teorikoa eta Zati enpirikoa.

Lehenengo zatia (Zati teorikoa) hiru kapituluk osatzen dute eta doktoretza-tesian zehar aztertzen diren hiru ardatzen inguruko errebisio teorikoa aurkezten da: (1) Adin txikikoen babesgabetasun-egoera, (2) Atxikimendua lehen haurtzaroan, eta (3) AVI esku-hartze programa (Moss et al., 2018). Lehenengo kapituluan, adin txikikoei eskaintzen zaien arretaren eta babesaren gaineko definizio eta legedian kokatuta, haurrei emandako tratu txarrek haien atxikimenduan eta ondorengo garapen sozio-emozionalean izan dezakeen eragina aurkezten da. Bigarren kapituluan, ebidentzian oinarritutako esku-hartzeen berrikusketa egiten da. Bertan, Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman atxikimenduan errotutako eta ebidentzian oinarritutako AVI programaren erabileraren nondik norakoak azaltzen dira. Bukatzeko, hirugarren kapituluan, egindako lanaren justifikazioa eta ekarpenen garrantzia azpimarratzen dira.

Bigarren zatia (Zati enpirikoa) bost kapituluz osatua dago. Laugarren eta bosgarren kapituluetan, hurrenez hurren, ikerketa-helburuak eta esku-hartzearen inplementazio-testuingurua azaltzen dira. Jarraian, seigarren kapituluan, ebidentzian oinarritutako AVI programaren bideragarritasuna eta onargarritasuna aztertzen duen ikerketa lan bat aurkezten da. Zazpigarren kapituluan, AVIren bertsio espainiarraren esku-hartze prozedura azaltzen da. Zati enpirikoari amaiera emango dion zortzigarren kapituluan, AVI programak COVID-19 krisialdian gurasotasunean izan duen eragina kontuan hartuta, babesgabetasunarekiko arrisku-egoeren inguruko babes-faktoreetan zer inpaktu duen erakusten duen ikerketa bat izango da aztergai.

Hirugarren zatian, doktoretza-tesiaren eztabaida eta ondorioak sakontzen dira. Horien artean, doktoretza-tesian aurkeztutako eduki eta emaitzen indar guneak, ahulguneak eta gaiaren etorkizunaren lan-ildoak elkarren artean bereiztuz. Bukatzeko, erreferentzia bibliografikoak eta eranskinak daude ikusgai, zeintzuk lana bere osotasunean aurkezteko aukera eskaintzen duten.

Ikus jarraian doktoretza-tesiaren atal ezberdinak egituratu diren modua aurkezten duen taula (ikus 1. Taula):

Taula 1.

Doktoretza-tesiaren egituraren laburpena (elebiduna)

SARRERA/ Introduction		DOKTORETZA-TESIAREN EGITURA/ <i>Structure of the Doctoral Thesis</i>
LEHENENGO ZATIA (ZATI TEORIKOA)/ First Section (Theoretical section)	• 1. KAPITULUA/ Chapter 1	ADIN TXIKIKOEI ARRETA ETA BABESA/ <i>Child care and protection</i>
	• 2. KAPITULUA/ Chapter 2	ATXIKIMENDUAN OINARRITUTAKO ESKU-HARTZEAK: ATXIKIMENDUAN OINARRITUTAKO ESKU-HARTZEA BIDEO-FEEDBACKAREN BIDEZ (AVI)/ <i>Attachment based interventions: Attachment Video-Feedback Intervention (AVI)</i>
	• 3. KAPITULUA/ Chapter 3	DOKTORETZA-TESIAREN JUSTIFIKAZIOA/ <i>Justification of the Doctoral Thesis</i>
	• 4. KAPITULUA/ Chapter 4	IKERKETA-HELBURUAK/ <i>Research objectives</i>
	• 5. KAPITULUA/ Chapter 5	AVI PROGRAMAREN BERTSIO ESPAINIARRA: INPLEMENTAZIO-

BIGARREN ZATIA (ZATI ENPIRIKOA)/ Second section (Applied section)		TESTUINGURUA/ The Spanish version of the AVI program: implementation context
	<ul style="list-style-type: none"> • *6. KAPITULUA/ Chapter 6 	EMPIRICAL STUDY 1- “FEASIBILITY, ACCEPTABILITY, AND INITIAL OUTCOME OF THE ATTACHMENT VIDEO- FEEDBACK INTERVENTION FOR FAMILIES AT RISK OF MALTREATMENT IN SPAIN”
	<ul style="list-style-type: none"> • 7. KAPITULUA/ Chapter 7 	AVI BERTSIO ESPAINIARRAREN ESKU- HARTZE PROZEDURA/ The intervention procedure of the Spanish version of AVI
	<ul style="list-style-type: none"> • *8. KAPITULUA/ Chapter 8 	EMPIRICAL STUDY 2- “EFFECTS OF THE ATTACHMENT VIDEO- FEEDBACK INTERVENTION (AVI) ON PARENTS AND CHILDREN AT RISK OF MALTREATMENT DURING THE COVID-19 PANDEMIC”
HIRUGARREN ZATIA: EZTABAIDA ETA ONDORIOAK/ Third section: Discussion and *Conclusions		
ERREFERENTZIAK/ References		
ERANSKINAK/ Appendices		

**Note: Asterisks correspond to those chapters or appendix written in English. Appendices are written in their original language.*


LEHENENGO ZATIA (ZATI TEORIKOA)/

First section (Theoretical section)

1

ADIN TXIKIKOEI ARRETA ETA BABESA

CHILD CARE AND
PROTECTION



1. KAPITULUA. ADIN TXIKIKOEI ARRETA ETA BABESA/

CHILD CARE AND PROTECTION

1.1 HAURRAK BABESTEKO BEHARRA/

Protecting the safety and well-being of children

Jakina da egun hurrei emandako tratu txarren fenomenologia mundu mailako osasun eta gizarte-arazoa dela, hurrek lehen haurtzarotik jasaten dutena. Besteak beste, 2-4 urte bitarteko 300.000 haur beren guraso edo zaintzaile nagusiek eragindako tratu txar fisiko eta/edo emozionalen biktima dira eta 0-17 urte bitartean, bost neskatik batek eta hamahiru mutilatik batek sexu-jazarpena bizi izan du (Osasunaren Mundu Erakundea, 2020). Espainia mailan, 2018. urtean, tratu txarren susmoa zuten 18.801 jakinarazpen formal bildu ziren guztira. Jazarpen tipologiari dagokionez, %67.4a arduragabekeriaren edo zabarkeriaren tipologiari egotzi zitzaion, %25.3a tratu txar emozionalari, %20.7a tratu txar fisikoari, eta %6.4a abusu-jazarpenari. Gainera, susmo bezala jakinarazitako kasu guzti horien gehiengoa (%65.9a) arrisku arin eta ertain bezala sailkatu ziren, eta gainontzeko %34.1a arrisku larriago gisa (Observatorio de la Infancia, 2019).

Honenbestez, estatistika ofizialek agerian uzten dute haurren babesgabetasuna garrantzi handiko arazo soziala dela Espainian. Aipatzekoa da haurren %25a baino gehiago gurasoen edo zaintzaile nagusien eskutik jasotako tratu txarren biktima dela eta kasu horien %10a baino gutxiago salatzen dela (Save de Children, 2018). Kalkuluen arabera, 38.000 adingabek baino gehiagok pairatzen dituzte indarkeria-egoerak, eta sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituen %47.6 adingabeei eragindakoak dira. Gainera, azken estatistika-aldizkari ofizialaren arabera (Espainiako Gobernuak, 2020), 50.000 haur eta nerabe baino gehiago dago haurren babes-neurri baten pean (egoitza-harrera, harrera-familia). Datu horri haurren babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran dauden haurren ehuneko altua gehitu behar zaio, zeina estatistika ofizialetatik kanpo dagoen. Ondorioz, adin txikikongan babesgabetasunarekiko arrisku-egoerak ekiditeko beharrezko baliabide eta esku-hartzeak eskaintzea ezinbesteko ataza da gizarte-mailan.

Hau guzti hau kontuan hartuta, hurrei emandako tratu txarrak prebenitzeko edo babesgabetasunarekiko arrisku-egoerei aurrea hartzeko, babes-faktoreak sustatzen

dituzten esku-hartze programa goiztiarren erabilpena sustatzeko gizarte-politikak abian jarri dira, konkretuki Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman (Millet, 2019).

Prebentzioa edo egoera bati aurrea hartzea, aldez aurretik ezartzen eta gauzatzen diren ekintzen bidez defini daiteke, egoera bat gerta ez dadin, edo, gertatu bada, horrek eragiten dituen ondorioek bere horretan jarrai ez dezaten edo landu daitezten. Esaterako, Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman artatzen diren babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran dauden familiekin, azken urteetan, prebentziotik abiatzearen garrantzia zabaldu da, babes faktoreak sustatzeak, Haur eta Nerabeen Babes-Sistemari ekar diezaiokeen onura kontuan hartuta (Mark, 2020) eta, familiaren ongizatean, harremanen kalitatean eta haurren garapenean duen garrantzia aztertuta (Sanders et al., 2018). Horretarako, ebidentzia erakutsi duten eta atxikimenduan oinarritutako programen erabilpena gomendatzen da (Sidebotham, 2019), bereziki gurasotasun sentikorrean eragiten dutenak (Meléndez-Torres et al., 2019).

Kasu honetan, bigarren mailako prebentzioa arrisku-egoeran dauden biztanleei zuzentzen zaiena da, diagnostiko goiztiarra eta berehalako tratamendua egiteko, dauden arrisku-faktoreak landuz, eta babes-faktoreak indartuz. Helburu orokorra haurrei emandako tratu txarren egoerak antzematea da, eta familia horiei babes-faktoreak sustatzeko esku-hartze programa goiztiarrak eskaintzea (Green et al., 2020).

90eko hamarkadan, familien beharretatik eratorritako legeak eta baliabideak ugaritu egin ziren Haur eta Nerabeen Babes-Sistemaren arloan. Ildo horretan, esku-hartzera zuzendutako zerbitzuak garatu dira ordutik, zeintzuk, babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran dauden familiei zuzendutako programak eskaintzen dituzten, edo beste era batera esanda, bigarren mailako prebentzioa egiten duten haurrei emandako tratu txarrak ahal den neurrian ekiditeko, babes-faktoreak sustatuz (Berman, 2020).

Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman familien eta beren haurren babes-faktore horiek sustatzeko, eta haurrei emandako tratu txarrei aurrea hartzeko, ebidentzian oinarritutako programak behar dira (Negriff, 2019; Steele eta Roberts, 2020; Westman, 2019), ikuspegi bio-psiko-soziala dutenak (Sciarrino et al., 2018) eta haurren ongizatea bermatzen laguntzen duten babes-faktoreak aztertzen dituenak (Evans et al., 2014; Moxley et al., 2012).

Horretaz gain, bukatzeko, esan beharra dago, haurrei emandako tratu txarrek eragin ditzaketen ondorio sozio-emozionalak kontuan hartuta (Zeanah eta Humphreys, 2018), eta atxikimendua haurren garapen osasuntsuaren aurrekari garrantzitsu bat den heinean, haurrei emandako tratu txarren kontestuan aplikatzen diren programa goiztiarrek gurasotasun sentikorrean ez eze, atxikimenduan oinarritutakoak izateak programen efikazia handitzea dakarrela (Cassidy eta Shaver, 2016; Corcoran eta McNulty, 2018; Toth eta Manly, 2019).

1.1.1. HAURREI EMANDAKO TRATU TXARRAK/

Child maltreatment

Hartara, azpimarratzekoa da haurrak eta nerabeak eskubideen subjektu titularrak direla eta, garapen prozesuan dauden talde zaugarria osatzen duten heinean, babestu egin behar direla, 1989ko azaroaren 20an Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioari jarraiki.

Dena den, haurrei emandako tratu txarrak erregulatu dituen legedia eta hauek babestuak izateko eskubidearen gaineko legislazioa historian zehar 80. hamarkadatik gaur egunera arte eraikitzen joan da, haurrei emandako tratu txarrak aitortzetik abiatu zena (Fantova, 2014; Muela, 2007).

Historian zehar, erronka amaigabea izan da haurrei emandako tratu txarren gaineko definizio zehatz, homogeen, nazioarteko, zientifiko eta integral adostu bat izatea (De Paúl, 2009; Herrenkohl, 2005; Muela, 2007). Haurrei emandako tratu txarren konstruktua Tardieu medikuak ezagutarazi zuen lehenengo aldiz 1868. urtean; zehazki, 32 umeri autopsiak egin ondoren izendatutako “kolpatutako haurraren sindromea” adierazpenaren bidez (Tovar Domínguez, 2016). Baina, Tardieu medikuaren heriotzaren ondoren heldu zen haurrei emandako tratu txarren gaineko pentsamolde aldaketa nabarmenena, Henry Kempe eta bere lankideek, haurren babesaren ondorena betiko aldatu zuen ekarria egin zutenean, abusuak jasandako haurrei buruzko sinposio bat antolatuz, pediatria akademia amerikarrak nazio mailan antolatutako bilera batean.

Haurrei emandako tratu txarraren larritasuna agerian uzteko asmoz, Kempe eta Silverman pediatrik (zeintzuk 1953. urtean haurren hezur hausturen etiologia ezezaguna ikusita, gurasoek haurrei nahita kaltea eragin diezaieketela aitortu zuten (Silverman, 1953)) artikulu bat idatzi zuten eta, horri esker, Estatu Batuetan haurren eskubideak babesteko aldaketak egiten hasi ziren legedian (Kempe et al., 1962). Artikulu horretan, haurrei emandako tratu txarrak “sindrome” bezala azaldu, tratu txarren epidemiologiaren gaineko azterlana egin eta medikuek haurrei emandako tratu txarrak ez onartzearen gaineko azalpena eman zuten. Hartara, 80ko hamarkadan, gizarteak ikuspegi aldaketa bat egiten du eta umeez beren beharrak asetuak izateko eskubidea dutela ulertzen da (Cicchetti, 1989).

Gerora ere, 90. hamarkadan zehar, oraindik komunitate zientifikoan ez zegoen haurrei emandako tratu txarren definizio amankomunik (National Research Council, 1993). Nahiz eta saiakera bat baino gehiago egin den (Perea-Martínez et al., 2001), zaila da mundu mailan haurrei emandako tratu txarren gaineko definizio argi, fidagarri, egoki eta erabilgarri bat aurkitzea (Cicchetti eta Toth, 2005). Esan daiteke, 90. Hamarkadan, oraindik haurren eskubideei buruzko lehenengo gomendio batzuetara mugatzen zela 1924an Genevako Deklarazioan 5 herrialdek haurrak babesteko oinarritzko 5 printzipio onartzen zituen adierazpena.

Homogeneotasun falta horren zergatia, hainbat arrazoiri egotz dakioke. Hala nola, aldagai kultural eta sozialak kontuan hartuta gurasotasunaren gaineko jarreraren eta ekintzen egokitasuna baloratzeko subjektibotasunari; definizio horretan gurasoen jokabideez gain elementu gehiagok barne-hartu beharko luketen usteari; “kaltearen” kontzeptua erabili beharko litzatekeen argi ez eduki izanari; edota, dena delako definizioa, arlo anitzetan berdin erabili ote daitekeen adostasun faltari (ikerketan, esku-hartzean, klinikan, zuzenbidean, etab.) (Cicchetti eta Lynch, 1995).

Haurrei emandako tratu txarren fenomenoaren heterogeneotasuna ere hainbat faktoreri dagokie (Aber eta Zigler, 1981; Cicchetti eta Barnett, 1991; Zuravin, 1991). Esaterako, haurrei emandako tratu txarren nozioari berari, tratu txar moten sailkapenari, haurrei emandako tratu txarrak azaltzeko ikuspegi edo hurbilpen teoriko-praktikoei, haurrei emandako tratu txarren oinarrian dauden egoera, eragile eta zergatien usteetan dauden

desberdintasunei eta, neurri batean, haurrei emandako tratu txarrak jasateak dituen ondorioen ikuspegi sakon eta globalaren gaineko informazio-faltari (Muela, 2007).

Ondorioz, esan bezala, nahiz eta haurrei emandako tratu txarren gaineko definizio ugari dauden, heterogeneotasun hori kontuan hartuta, esan daiteke haurrei emandako tratu txarren definizioa, honakoa dela:

“Gurasoen edo zaintzaileen ardurapean edo zaintzapean dauden bitartean, haurrengan egiten den edozein kalte fisiko edota psikologiko; horretarako edozein akzio fisiko, sexual edo emozional erabiliz, ez-egitez edo egitez, haurraren garapen egokia oztopatzen edo mehatxatzen duena eta haurrak ondo tratatzeari buruzko komunitatearen eskakizunak urratzen dituena” (Muela, 2007). *“Haurrei emandako tratu txarrek, haurrei babes eta heziketa ematen dieten harremanak nahasten dituzte. Familiak dira haur txikiek besteengandik espero duten portaera soziala eta hirugarrenei seinale emozionalak interpretatzeko eta bidaltzeko modua ikasten duten lehen edo funtsezko testuinguruak. Haurrei emandako tratu txarrak gertatzen diren familietan, haurrak komunikaziorako eta portaera emozionalerako egokitu gabeko moduen eraginpean daude, eta auto-erregulazio egokitzailerako eredu eskasak dituzte”* (Cicchetti eta Manly, 2001).

Bestalde, legezko definizio adostuak kontuan hartuta, EAEn, dekretu bidez legeztatuta dagoen BALORA tresnan (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, 2017), zein adin txikikoei emandako tratu txarrak ebaluatzeko erabiltzen den, zehazten da haurrei egindako kaltea zehazterako orduan, ezinbestean, honako ardatzak aintzat hartu behar direla:

1. Haur edo nerabearen zaintzaileen babesgabetasunarekiko zaugarritasun maila.
2. Haur edo nerabearengan zaugarritasun edo arduragabekeria horrek eragiten duen “kalte esanguratsua”. Alegia, BALORAN definitzen den gisan, gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen portaerak haurraren edo nerabearen zenbait arlotan (osasuna, ongizatea edo garapena) eragin dezakeen kaltea.

Bestalde, haurrei emandako tratu txarraren definizioan, honako aspektuak gehitzen dira:

- Kalte esanguratsua *kontinuum* bat dela eta haren muturrean kalte larria (fisikoa edo psikikoa) dagoela.

Ondorioz, hurrei emandako tratu txarrak definitzerako orduan, gradiente zabala dagoela aitortzen da.

- Kaltearen intentsitate errealak edo potentzialak kontuan hartu behar dira, eta kalte hori esanguratsua denean edo izan daitekeenean soilik ondorioztatu ahal izango da tratu txarrak daudela.

Hau da, haurra babestu behar den eta, ondorioz, erdigunean jartzen den subjektua dela kontuan hartuta, babesteko beharra dutenek ematen dioten tratu txarra edo arduragabekeria edo zabarkeria maila kontuan hartzeaz gain, ezinbestekoa da eta berebiziko garrantzia dauka haurrari emandako tratu txar horrek haren garapenean eta osasunean duen inpaktua kontuan hartzea.

- Haurraren edo nerabearen ezaugarri pertsonalek ere eragina dute euren zaurgarritasun mailan. Haurrak eta nerabeak zaurgarri izanez gero, zaintzeko eta babesteko zerbitzuen arreta berezia izan beharko dute.

Azken aitortpen honek, zera gehitzen dio hurrei emandako tratu txarren definizioari: Adin-txikikoaren bere biziko erronkek ere eragina izan dezaketela haur edo nerabe horri emandako tratu txarrarekiko zaurgarritasunean.

Laburbilduz, nahiz eta aitortu daitekeen zaila dela diziplinen arteko definizio global bat aurkitzea, eta nahiz eta ikusmira profesional bakoitzak ertz batetik edo bestetik definituko lituzkeen hurrei emandako tratu txarrak, fenomenoaren ulermen osoa izateko, aspalditik jakina da hurrei emandako tratu txarren fenomenologia konplexua kontuan hartu beharra dagoela, eta ondorioz, mediku-arazotzat jo daitekeela jakin behar dela, eta horrelaxe diagnostikatua eta tratatua izan behar duela; jokaera kriminaltzat jo daitekeela eta, ondorioz, termino legalak erabiliz definitu eta esetsi behar dela; arazo sozialtzat jo daitekeela, eta hartara, fenomeno sozial bezala aztertu behar dela; adingabeen babes-arazotzat jo daitekeela, eta horregatik, adingabeak babesteko zerbitzuen esku-hartzearen bidez bideratu eta landu daitekeela, eta familia-arazotzat jo daitekeen heinean, ezinbestean, familia barruko dinamikaren inguruan ulertu behar dela (Inglés, 1995; Mayhall eta Norgard, 1983).

Gainera, horretaz haratago, hurrekiko tratu txarraren definizioaren eraikitze lan horretan, legeak haurretatik abiatuta eta haurrentzat egitea proposatzen da azken azterlanetan (Kosher eta Ben-Arieh, 2020). Hau da, haurrak subjektu aktibo bezala azaltzea, eta neurri batean, horretan saiatu da “Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka oso-osoa babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa” (Espainiako Gobernua, 2021).

Espanian, Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman onartu den azken lege honek, hurrei emandako tratu txarrak, “indarkeria” termino globalago batek barne hartzen duela definitzen du, giza eskubideen urraketaren markoan. 8/2021 legeak, (Espainiako Gobernua, 2021), honela definitzen du giza eskubideen urraketa: *“Adingabeei beren eskubideak eta ongizatea galarazten dizkien ekintza, ez-egite edo tratu arduragabe oro, baldin eta haien garapen fisiko, psikiko edo soziala mehatxatzen edo oztopatzen badu, haien komisio-modua eta -bitartekoa edozein izanik ere, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egindakoa barne”*.

Konkretuki, honako hauek jotzen ditu indarkeriatzat: *“Tratu txar fisiko, psikologiko edo emozionalak, zigor fisikoak, umiliagarriak edo iraingarriak, arduragabekeriak jokatzea edo tratatzea, mehatxuak, irainak eta kalumniak, esplotazioa, sexu-indarkeria, ustelkeria, haur-pornografia, prostituzioa, eskola-jazarpena, sexu-jazarpena, ziber-jazarpena, genero-indarkeria, genitalen mutilazioa, edozein helburutarako gizakien salerosketa, ezkontza behartua, haurren arteko ezkontza, pornografiarako sarbide ez baimendua, sexu-estortsioa, datu pribatuen zabalkunde publikoa, eta haurren familia-eremuan indarkeriazko edozein portaera izatea”*.

Gauzak honela, esandako guztia kontuan hartuta, kultura, giza-kontestu, herrialde edo bizileku bakoitzean, momentu historiko eta sozialei jarraiki, hurrei emandako tratu txarren inguruko ulermen jakin bat eta definizio bakarra zehaztea garrantzizko ataza da. Horrela, hurrei emandako tratu txarrak prebentziotik landu, identifikatu, baloratu eta esku-hartze eta estrategia sozio-politiko jakin batzuk martxan jarri ahalko lirateke (García Lara et al., 2020).

1.1.2. HAUR ETA NERABEEN BABESAREN GAINEN LEGEDIA/

Legislation affecting child abuse and neglect

Estatu mailako legedia/ The Spanish law

Haur eta nerabeen babesaren inguruko legedia adin txikikoen eskubideetan oinarritu da. Hasiera batean, abandonuan kokatuz, ondoren babesgabetasunean eta azkenik, “arrisku” kontzeptuan (Desai eta Goel, 2018).

Lehen aldiz, “abandonatutako haurtzaroa”ren gainean eta adopzioaren inguruan 7/1970 legean mintzatu zen, “Revista de Desarrollo Social” deritzon (Fundación Foessa, 1971). Dena den, 1978ko konstituzioko III Kapituluaren lehenengo Tituluan aipatu zen botere publikoek familien babes soziala, ekonomikoa eta juridikoa bermatu behar zutela, haurrei aipamen nabarmena eginez (Boletín Oficial del Estado, 1978).

Ondoren, 21/1987 legean, babesgabetasunaren gainean sakondu zen lehen aldiz aurreko legediak adopzio kasuen kudeaketa hobetu beharrekoa zela azalduz. Hartara, momentu hartan instituzioak bete beharrekotik gizarte-funtzioa eskasa zela adieraziz. Lege honek adin txikikoen babesaren eremuan aldaketa ugari egin zituen eta ordutik, “haur abandonatu” terminoa “haurren babesgabetasuna” kontzeptuagatik ordezkatu izan zen instituzio mailan (BOE, 1987).

Aurrerago, 1989. urtean haurren eskubideen gaineko konbentzioan, haurren oinarrituko eskubideak zeintzuk ziren zehaztu ziren (Asamblea General del Gobierno, 1989). Handik gutxira, 1990eko abenduan, Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa berretsi zuen Espainiak, 1989ko azaroaren 20an NBERen Batzarrak aho batez onartutakoa eta haurren eta nerabeen eskubideen defentsaren esparru unibertsala osatzen duena.

Azkenik, Estatu mailan “Arrisku” terminoa lehen aldiz legezatu zen urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan (BOE, 1996). Bertan, aurretik legeztatutako adin txikikoen eskubideak zabaldu ziren eta arrisku egoerak definitu ziren. Lege honetan, lehen aldiz, adin txikikoen babesgabetasuna mailakatu egin zen “arrisku” eta “desanparo” egoerak desberdinduz, eta egoera bakoitzerako instituzio publikoei esku-hartze desberdinak egotziz.

Ordutik, uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak eta uztailaren 28ko 26/2015 Legeak (Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzekoak), estatu-izaerako esparru juridikoa ezartzen dute, adingabeak eskubideen subjektu izatearekin eta eskubide horiek gauzatzeko gaitasun progresiboa aitortzearekin bat datorrena. Bertan, adingabearen gizarte-babesgabetasuneko kasuetan botere publikoek egin beharreko jarduerak ezartzen dira.

Azkenik, egun, estatu mailan, lehen aipatu den gisan, “Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka oso-osoan babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa” (Espainiako Gobernua, 2021) dago indarrean. Lege honek, atariko tituluan, Legean behin eta berriro erabiltzen diren bi kontzeptu definitze ditu: indarkeriaren kontzeptua eta tratatu onaren kontzeptua. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da indarkeriaren kontzeptuaren barruan sartzen dituela “familia-eremuan indarkeriazko edozein jokabide egotea, adingabeari zuzenduta ez badaude ere”; eta tratatu onaren kontzeptuaren barruan sartzen direla “elkarrekiko errespetuaren, gizakiaren duintasunaren, bizikidetzaren demokratikoaren, gatazkak modu baketsuan konpontzearen, legea berdinean babesteko eskubidearen, aukera-berdintasunaren eta haurrak eta nerabeak diskriminatzeko debekuaren printzipioen sustapen aktiboa”.

8/2021 legeak, prebentzioaren eta babes komunaren paradigma berri bati bide ematen dio estatuko lurralde osoan, adingabeen eskubideen urraketan aurrean, eta administrazio publiko guztiek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, sare-lana eta haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren aurkako lanean) duten inplikazioa indartzea bultzatzen du. Lege honek, haurrei emandako tratatu txarrei, kasu honetan, “indarkeriari” aurrea hartzeko, babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran dauden familiekin modu eraginkorrean esku-hartzeko, ebidentzian oinarritutako praktikak aplikatzeko beharra zehazten du.

Horrekin batera, adierazi behar da, Espainiako Estatuaren lurralde- eta administrazio-egiturarekin bat etorriz, autonomia-erkidegoek, legegintza-ahala izanik, zabal garatu dutela legedia autonomikoa adin txikikoen eskubideen proiektioari eta sustapenari dagokienez.

Gizarte-laguntzaren arloko eskumenak autonomia-erkidegoei transferitzeko prozesutik aurrera (Espainiar Konstituzioaren 148.1 20. artikulua), autonomia-erkidegoek haurrak eta nerabeak babesteko legeak garatu dituzte, besteak beste.

EAEko legedia/ The law in the Basque Autonomous Community

Euskal Herriari begira jarrita, 2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legea, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa da, zeinak Euskal Herrian dauden edo bizi diren haur eta nerabeen eskubideak aitortu eta haien betebeharrak zerrendatzen dituen, baita esku hartzen duten erakundeetako bakoitzaren eskumenak zehaztu ere. Hau da, lege horretan, arrisku edo babes gabezia egoeretan administrazioaren jardun babesleak nolakoa izan behar duen jasotzen da. Lehendik zegoen hutsune juridikoari erantzuna ematea izan zen lege horren helburua. Alde batetik, haurren eta nerabeen eskubideen babesaren eta sustapenaren alde egitea; eta bestetik, adin txikikoak arau hausle diren kasuetan, gizarte eta heziketa arloko arreta jasotzeko aipua egitea.

Lege horretan, 51. artikuluan, jakinarazi beharko liratekeen arrisku-egoerak zeintzuk diren zehazten dira: *"Arrisku-egoerak dira haurraren edo nerabearen garapen pertsonal edo sozialari kalte egin diezaioketen egoerak, babesgabeziatzat jo ezin daitezkeenak eta, hortaz, legeak agindutako tutoretza ezartzea eskatzen ez dutenak. [...] Arrisku-egoera agertuko da, gizartearen, familiaren edo adingabearen beraren gorabeheren ondorioz, adingabearen garapena eta ongizatea mugatuta edo kaltetuta gertatzen badira, eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez badituzte beren gain hartzen haurraren edo nerabearen garapen egokia bermatu ahal izateko erantzukizunak [...]"*.

Ondoren, 52. artikuluan, arrisku-egoeretako jarduketaren deskribapena egiten da. Lehenengo puntuak hala dio: *"Arrisku-egoeretan, haurrak eta nerabeak babesteko arloan eskumena duten herri-administrazioek haien eskubideak bermatu egin behar dituzte, bai eta haien beharrezanetan laguntza emango dela ziurtatu ere. Arlo honetan egiten diren jarduketara publikoek haurren, nerabeen eta horien familien moldatze pertsonala eta sozialean eragin negatiboa duten arrisku- faktoreak desagerraraztea izango dute helburu. Horretarako, honako hauek sustatuko dira: gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen laguntza, adingabeei eta haien familiei laguntzeko bitartekoen erabilera, komunitatearen esparruko esku-hartzea, bai eta orientabidea emateko eta jarraipena egiteko zerbitzuak ere[...]"*.

Artikulu berdinean, hirugarren puntuan, jarraian aipatzen dena zehazten da: *“Adingabeak babesteko arloan eskumena duten herri-administrazioek aurkitutako edo salatutako egoera egiaztatzeko betebeharra izango dute; orobat, kasuak agertzen dituen ezaugarriak eta beharrikanak ebaluatzeko betebeharra izango dute, eta kasua ebaluazio horren emaitzaren arabera ebatzearren, beharrezkoak diren neurriak hartzeko betebeharra ere bai”*.

Bereziki, Lehen mailako edo Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuei dagokionari begira, 53. artikuluan lehenengo puntuan zera esaten da: *“Arrisku-egoeretan, oinarrizko gizarte-zerbitzuek kasua hartu eta ikertu egin beharko dute, baloratu eta bideratu eta, beharrezkoa baderitzote, komunitatearen esparrutik esku hartu behar dute. [...]. Haurraren babesgabetasun-egoera oso larria dela iruditzen bazaie, esku-hartze espezializatuaren beharra dagoelako edo, are gehiago, adingabea bere familia-ingurunetik bereizi behar delako, kasua haurrak eta nerabeak babesteko zerbitzu espezializatura igorri beharko dute...”*.

Eta jarraian, bigarren puntuan, familia bakoitzari beren beharrei erantzuten dion esku-hartze bat eskaintzeko beharra zehazten da: *“Baldin eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek uste badute komunitatearen esparrutik esku hartu behar dutela, kasu bakoitzerako arretaplan bat egin beharko dute, eta, bertan, aurkitutako beharrikanari erantzuteko taxutu dituzten esku-hartzeak zehaztuko dituzte”*.

Horretaz gain, abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 22. artikuluan jasotzen dira oinarrizko gizarte zerbitzuen eta gizarte zerbitzu espezializatuaren prestazioak. Eta 27. artikuluan EAEko Gizarte-zerbitzuen antolamendua zehazten eta garatzen da, eta Lehen Mailako Arretako Zerbitzuek autonomiaren, gizarteratzearen eta larrialdien edo babesgabetasunaren inguruko egoerei erantzuna ematen lagunduko diete erabiltzaileei eta bereziki, arrisku-egoeren prebentzioari erreparatuko diote.

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen III. Tituluan, administrazio publikoetako eskumenak banatzen dira. Hala nola, Eusko Jaurlaritzarenak, Foru Aldundienak eta Udalenak. Horrenbestez, legearen betekizuna eta arauen bermea Eusko Jaurlaritzaren gain geldituko dela adierazten da. Zehazki, Udaletako gizarte zerbitzuei egozten zaizkien funtzioei erreparatuta, 28. artikuluan aipatzen eta jorratzen dira kasuen gainbegiratzea eta profesionali prestakuntza eta orientabidea ematea.

Esandakoaz gain, 42. artikuluan ezartzen dira haurren babeserako gaian Udal mailako Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuetako edo Lehen Mailako Arretako Zerbitzuak deritzen instituzioen eskumenak zeintzuk diren. Hala dio legeak: *“Arriskuan dauden adingabeak babesteko dauzkaten eskumenak, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko arloan indarrean dagoen araudiak esleitzen dizkienak”*. Bestalde, egun, 26/2015 Legea da Estatu Mailako legegintzan Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman aldaketak ezartzen dituen azken berrikusketa (BOE, 2015).

Azkenik, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka babesteko 09/06/20 Lege-Proiektu Organikoaren berrikuspenak, haurren eta nerabeen babesgabetasuna haur eta nerabeekiko zaintzaileen jardute “kaltegarri” zuzenaz haratago doala induskatzen du (Secretaría de Estado de Comunicación, 2020). Hau da, EAE mailan, haur eta nerabeen babesgabetasuna gertatu dela zehazteko, BALORAN aipatzen diren egoerez gain, beste zenbait faktore edo bizipenak ere hauen babes faltaren adierazgarri izan daitezkeelakoan, kontuan hartu behar direla aipatzen du. Hala nola indarkeria instituzionala. Bestalde, delitu larrien preskripzioa handitu eta prebentzioa, detekzio goiztiarra eta biktima diren adin txikikoen babesaren gaineko babes-neurriak txertatzen ditu (Secretaría de Estado de Comunicación, 2020). Gehienbat, aurretik araututa zeuden haurtzaroaren babeserako legeak eguneratzen ditu, haur eta nerabeekin ohiko harremana duten profesionalen prestakuntza eta formakuntza espezializatua arautzen du, eta administrazio publikoen arteko beharrezko lankidetzak jasotzen ditu.

Gainera, legeak bereziki, hiru puntu azpimarratzen ditu: haurrek entzunak izateko duten eskubidea, haurrek inolako indarkeriarik ez jasateko duten eskubidea eta haurren interesen lehentasuna.

Azkenik, Euskal Herria mailan, Jaurlaritzak estrategia aitzindaria den “Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategia (2022-2025)” jarri du martxan aurretik aipatutako legedian oinarrituta, zeinak haurrek eta nerabeek jasaten dituzten indarkeria mota guztiei aurrea hartzea, gerta daitezkeenak azkarrago detektatzea, garaiz esku hartzea, haur eta nerabeei behar duten arreta eta babesa ematea eta, ahal den neurrian, eragindako kalteak konpontzea dituen helburu; tratu onaren kultura, erantzunkidetasuna eta ingurune seguruak sustatzeko asmoz. Estrategia horren azken helburuetako bat, EAEn, “Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka oso-osoan babesteko

ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa” (Espainiako Gobernua, 2021) deritzon legetik eratorritako Euskal legedia berriztatu bat proposatu eta onartzea da.

1.1.3 BABESGABETASUN-ARRISKU EGOERETAN DAUDEN FAMILIEI ARRETA HAUR ETA NERABEEN BABES-SISTEMAN/

Care and protection from the child protection system for families at risk of risk child abuse and neglect

Espainia mailan, onartu berri da Haurrak eta Nerabeak Babesteko Lege Integrala (Espainiako Gobernua, 2021). Lege honek aurrerapen handia suposatu du eta adin txikikoen babesari bermatzeko legediari dagokionez abangoardian kokatzen da. Araudi horrek, arretaz gain, prebentzioa, detekzio goiztiarra, laguntza eta aholkularitza ere nabarmentzen ditu. Era berean, erreparaziorako, berreskuratzeko eta sentsibilizaziorako ekintzak biltzen ditu.

Hala ere, legedia hori gorabehera, estatistika ofizialek agerian uzten dute haurren babesgabetasuna arazo soziala dela Espainian (Save de Children, 2018) eta 38.000 adingabek baino gehiagok pairatzen dituzte indarkeria-egoerak (Espainiako Gobernua, 2020).

Aipatutako hurrei emandako tratu txarrak eta arrisku egoera horiek desagerraraztea eta haurren babesari prebentziotik lantzea eta bermatzea, gizarte-zerbitzuetatik eskaintzen diren esku-hartzeen helburu nagusi dira. Zehazki, zaurgarritasun eta arrisku-egoeretan, Udal Mailako Haur eta Nerabeen Babes-Sistemaren eskumena litzateke haurren eta nerabeen eta haien familien egokitzapen pertsonalean eta sozialean eragin negatiboa duten arrisku-faktoreak ezabatzea, eta haiek babesteko eta familia-ingurunea babesteko neurriak sustatzea. Gainera, arrisku-egoeren esku hartzea administrazio publikoari dagokion heinean, eta hurrekin eta beren familiekin lanean dabiltzan instituzioak direnez gero, ikastetxeek, osasun-zerbitzuek eta administrazio publikoak kudeatzen dituen zerbitzuek (esaterako, arreta goiztiarreko zerbitzuak) betebeharrak orokor bera dute adin txikoen babesari dagokionez (Boletín Oficial del Estado, 2015).

Aipatu beharrekoa da Haur eta Nerabeen Babes-Sistemak zaintza eta babeserako betebeharrak orokor horretan, eskumen eta ardura zehatzetako bat adingabeen eta beren familien “harreman ondasuna” deritzona edo harreman osasuntsu eta ziurrak sortu eta garatzea dela (Fantova, 2014).

Gizarte-Zerbitzuen beste esku-hartze arlo bat familia-esku-hartzea da. Esku-hartze honek, informazioa, orientazioa, laguntza, prestakuntza edo bitartekaritza zerbitzuak barne hartzen ditu eta gurasotasuna sustatze aldera eskaintzen da; betiere, promozioaren eta prebentzioaren ikuspegitik, komunitate osasuntsuak eraikitzeko (Daly, 2012).

Zeregin horretan, babesgabetasunarekiko arrisku-egoerak murrizteko, Haur eta Nerabeen Babes-Sistemak haurrak erdigunean jarrita, hauen beharrak eta garapen sozio-emozionala ahal bezain beste sustatzen dituen programak jartzen ditu familientzako eskuragarri, eta horretan, iragarpen-gaitasun handia lortu dute atxikimenduan oinarritutako esku-hartzeek (Cassidy eta Shaver, 2016; Sroufe, 2021).

COVID-19 krisialdiak gurasotasunean izan duen inpaktua/

The impact of the COVID-19 crisis on parenting

SARS-CoV-2 birusak sortutako COVID-19 krisialdiak gurasotasunean eragin negatiboa izan du, gurasotasunaren erronkak handituz, babesgabetasunarekiko arrisku-egoerekiko zaugarritasuna haziz (Cluver et al., 2020) eta adin txikikoen buru-osasuna kaltetu egin da (Racine et al., 2020).

Bereziki, mundu-mailako krisialdi honek, familiako kideen estres maila handitu, eta haurren beharrei erantzuteko gurasoen gaitasuna gutxitu du, haurrei emandako tratatu txarrak areagotuz eta babesgabetasunarekiko arrisku-egoerak handituz (Lucassen et al., 2021).

Haurren garapenari eta ongizateari dagokionez, errutina aldaketak, ziurgabetasunak eta aurreikusgarritasun ezak, haurren garapenean inpaktu negatiboa izan du (Karki et al., 2020), eta familia-kontestuan zaintzaileen estres mailaren gorakadak eta zaintza sentikorraren murrizteak, hauen garapen sozio-emozionala baldintzatu ahal izan du (Brown et al., 2020).

Zenbait ikerketak, COVID-19 krisialdian Haur eta Nerabeen Babes-Zerbitzuetatik esku-hartze eraginkorrak eskaintzeko beharra azaleratu dute gurasotasunean eragiteko, familien harreman dinamika osasuntsuak sustatzeko eta haurren ongizatea bermatzeko (Purnama eta Jansen, 2022; Weeland et al., 2021) batez ere, egoera sozioekonomiko baxuak eta zaintzaile nagusiak emakumeak diren familietan (Kerr et al., 2021).

Hartara, esandako guzti hau kontuan hartuta, eta gogoan izanda haurren beharrekiko arduragaberiak jokatzen duten edo zabarkorrak diren gurasoek esku-hartzerik jasotzen ez baldin badute ez dutela hauen garapen osasuntsua bermatzen duen zaintza sentikorra aurrera eramateko baliabiderik (Hildyard eta Wolfe, 2002; Toth eta Manly, 2019). Hartara, ezinbesteko ataza da Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman eskaintzen den esku-hartze goiztiarreko arreta eraginkorra izatea halako krisi egoeretan (Balençon et al., 2021). Are gehiago, krisi egoeretan, non esaterako meta-analisi batean aztertu den COVID-19 sasoiak amen buru-osasunean eragin negatiboa izan duela, batez ere, 0-5 urte bitarteko haurren gurasoen kasuan (Racine et al., 2022).

Dena den, egun, estatu mailan, ez da ezagutzen Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman familiei adin goiztiarrean babesgabetasunarekiko arrisku-egoerei aurrea hartzeko programa eraginkorrik COVID-19 pandemiaren tankerako krisi egoeretan inplementatu denik eta eraginkortasuna erakutsi duenik.

1.2 HAURREN BABESGABETASUNAREN ONDORIOAK ATXIKIMENDUAN ETA GARAPEN SOZIO-EMOZIONALEAN ZAILTASUNAK IZATEKO ARRISKUAN/

Consequences of child abuse and neglect on attachment and difficulties in the socio-emotional development

Garapenaren antolamendu-ikuspegiak (Cicchetti eta Toth, 2015; Sroufe et al., 2005) eragin handia izan du garapenaren psikopatologiaren eremuan, eta erreferentzia-esparru bat eskaintzen du haurren babesgabetasunak garapenean duen eragina azaltzeko eta baita gaitasun sozio-emozionaletan eta gizabanakoaren bizi-zikloan zehar harremanetarako eta beste batzuekin sozializatzeko gaitasunean eta funtzionamenduan sortzen dituen inpaktu negatiboa ulertzeko. Ikuspegi horretatik, ez da espero harreman lineala eta norabide

bakarrekoa izatea esperientzia goiztiarren (adibidez, atxikimendua, haurrei emandako tratu txarrak) eta egokitzapen sozio-emozionalerako zailtasunen artean. Izan ere, horiek modu transakzionalean, konplexuan eta sistemikoan eragiten dute garapenaren beste faktore batzuekin batera (Sroufe et al., 2005). Kausazko prozesuek psikopatologiaren agerpenean duten zereginari heltzeko, arrisku-faktoreak, babesleak eta sustatzaileak hartzen dira kontuan; eremu desberdinetakoak (biologikoa, kognitiboa, emozionala eta soziala) eta garapenaren testuinguruarekin zerikusia dutenak (familia nuklearra, familia zabala, berdinen taldea, kultura, etab.). Faktore horiek modu konplexuan elkar eragiten dute psikopatologiaren presentzian edo absentzian.

Planteamendu horretatik, haurren eta haren zaintzailearen arteko atxikimendu-harreman ziurra ezartzea heziketaren zeregin nagusienetako bat da haurtzaroan, eta horrek eragina du ondorengo garapen-gertaeren funtzionamendu egokitzailearen edo desegokitzailearen berrantolaketan (Doyle eta Cicchetti, 2017). Hala, atxikimendu-harremanek eginkizun moderatzailea izan lezake hainbat faktorek gizabanakoan ongizate psikologikoan duten eraginean. Horrela, psikopatologiarako arrisku-faktore gisa funtzionatzeaz gain (segurtasunik ezaren eta/edo antolaketarik ezaren kasuan), faktore babesle ere izan litezke (segurtasunaren kasuan) eta, neurri batean behintzat, bizi-zikloaren etapa desberdinetan pertsonen buru-osasunean esperientzia kaltegarriek dituzten ondorioak konpentsatuko lituzkete.

Beraz, azaldutakoaren arabera, atxikimenduaren kalitatean dauden desberdintasun indibidualak ez dira patologikoak edo ez patologikoak berez. Hala ere, atxikimendu-harremanetako alterazio goiztiarrak, berez patologikoak ez badira ere, askotan garapen sozio-emozionalean zailtasunak izateko arrisku-faktore dira, batez ere bizi-zirkunstantzia zailak denboran zehar mantentzen direnean, hala nola haurren babesgabetasun-egoerak, non zaintzaileekiko esperientziak alarma iturri diren (Doyle eta Cicchetti, 2017; Graqvist et al., 2017). Horrela, ikerketa lan ugari egiaztatu dute atxikimendu ez-ziurrak nagusitzen direla haurrei emandako tratu txarrak jasaten dituzten edo jaso dituzten haur eta eskolaurrekoengan (Cicchetti eta Toth, 2015; Cyr et al., 2010). Era berean, arlo horretan egindako ikerketa askok haurrei emandako tratu txarren, atxikimendu ez-ziurren eta zailtasun sozio-emozionalen arteko lotura aurkitu dute (Cicchetti eta Toth, 2015; Doyle eta Cicchetti, 2017).

Azterlan horien emaitzek iradokitzen dutenez, haurren babesgabetasun-egoerak pairatzen dituzten umeen kasuan, haurtzaroko harreman ziurrak, halakorik izanez gero, iragankorrak izan daitezke beren izaeran (Cicchetti eta Toth, 2015). Atxikimenduaren kalitatean aldaketa horiek gerta daitezke haurraren, zaintzailearen eta ingurunearen arteko hartu emanak disruptiboak direnean eta haurraren bilakaera-premiei erantzuten ez dietenean, haurren babesgabetasun-egoera kasuetan gertatzen den bezala. Azken batean, hurrei emandako tratu txarrak atxikimendu ez-ziurraren egonkortasunarekin eta, bereziki, atxikimendu desantolatuekin (Booth-LaForce eta Roisman, 2021; Cyr et al., 2010) erlazionatzen dira.

Zenbait adituk (Fearon et al., 2010; Groh et al., 2012) aztertu dute guraso-haurren arteko atxikimenduaren eta haurren garapen sozio emozionalaren arteko harremana, ondorioztatuz ama-haur arteko atxikimendu ez-ziurrak haurren jokabide kanporakoien gorakadan eragina duela ($d = 0.31$, $k = 69$, $N = 5.947$); baita haurren adina gora doan heinean handitzen dela ere (Fearon et al., 2010). Jokabide barnerakoiei dagokienez, Grohn eta bere kideek (2012) burututako meta-analisi lanean aurkitu zuten ama-haur atxikimenduaren eta jokabide barnerakoien artean erlazioaren esangura ertaina zela ($d = 0.15$, $k = 42$, $N = 4.614$). Aurrerago ondorioztatu zen ama-haur arteko atxikimenduaren eragina esanguratsuagoa zela haurren jokabide kanporakoien kasuan, barnerakoekin alderatuz (Grohn et al., 2017).

Beraz, haurren babesgabetasun-egoeretan esku-hartze goiztiarrak bereziki garrantzitsuak dira haurren atxikimendu-estilo ez-ziurren proportzioa murrizteko, haurren babesgabetasun-egoeren belaunaldien arteko zikloak hausteko eta garapen sozio-emozionalean zailtasunak izateko arriskuaren prebentziorako (Manly et al., 2021). Gainera, haurren babesgabetasun-egoera maila eta ingurunearen kaos maila txikiagoa edo handiagoa izanda ere, frogatu da haurren eta zaintzaileen arteko harreman patrioiak esku-hartze baten bidez aldatzeko aukera dagoela (Facompré et al., 2018).

***Summary of the 1st Chapter:**

“CHILD CARE AND PROTECTION”

This first chapter presents, from a preventive perspective, the definition, legislation and assessment system related to the care and protection of children. The role of Child Protection Services when attending families at risk of child maltreatment is explained. The impact that abuse and neglect can have on children's attachment and subsequent socio-emotional development is also explained.

1) Protecting the safety and well-being of children

Child maltreatment is a global problem with serious life-long consequences. Studying child abuse and neglect is complex. Current estimates depend on: a) The definitions of child maltreatment used; b) The type of child maltreatment studied; c) The coverage and quality of official statistics; and d) The coverage and quality of surveys that request self-reports from victims, parents or caregivers. Nonetheless, international studies reveal that nearly 3 in 4 children aged 2-4 years regularly suffer physical punishment and/or psychological violence at the hands of caregivers, and 1 in 5 women and 1 in 13 men report having been sexually abused as a child.

Definition of child maltreatment

Child maltreatment is any physical or psychological harm to children while they are in the care of their parents or caregivers, through any physical, sexual or emotional action, omission, or act that disrupts or threatens the proper development of the child and violates community requirements relating to the proper treatment of children (Muela, 2007). Mistreatment of children disrupts the relations which protect and educate children. Families are the first and fundamental contexts in which young children learn what social behaviors to expect from others and how to interpret and send emotional signals to third parties. In families where child abuse occurs, children are exposed to forms of communication and emotional behavior that are not adapted; they have poor models of adaptive self-regulation (Cicchetti & Manly, 2001).

Legislation affecting child abuse and neglect

In the Spanish child protection system (Ministry of Social Rights and 2030-Agenda), the impact of the legislation is reflected in a total of 50,272 active cases of children in foster care: 44% for neglect, 30% for emotional abuse, 19% for physical abuse, and 7% for sexual abuse.

However, there is a lack of harmonization between the legislation of autonomous communities, leading to practical difficulties for the professionals who have to implement the legislation on a daily basis.

In northern Spain, the Basque Government has launched a pioneering strategy named “The Basque Strategy for Combating Violence against Children and Adolescents (2022-2025)”, which have these four aims in order to promote a culture of good treatment, responsibility and safe environments: a) To prevent all types of violence against children and adolescents (prevention), b) To promptly detect those that may occur (early detection), c) To apply effective interventions and offer attention, care and protection in each case (protection), and d) To repair the damage caused (reparation).

Identification and assessment of child abuse and neglect

The most critical step in any child protection response is how to recognize the different types of child maltreatment. Signs of child abuse are not always clear, as types of abuse vary (physical abuse, sexual abuse, emotional abuse, and neglect). Socio-health professionals and members of a micro-system (family, friends, and neighbors) are often in a position to observe suspected incidents of child abuse or neglect when it occurs. A greater understanding of the risk factors and assessment strategies can help in identifying different types of maltreatment.

Child Protective Social Services

It is worth mentioning the importance of coordination between competent institutions, where certain functions are attributed to each administration, depending on level of severity. Specifically, Child Protective Social Services is responsible for protecting children by developing healthy and secure relationships (Fantova, 2014). Another area of Social Services is family intervention, which includes information, guidance, support, training, or mediation services and is offered to enhance parenthood. This is always

provided from a standpoint of prevention and promotion, with the aim of building healthy communities (Daly, 2012).

Early intervention care offered by Child Protective Social Services is essential, especially in crisis situations such as the COVID-19 pandemic; this global crisis has increased the stress levels of family members and reduced the capacity of parents to respond to the needs of their children, leading to an increase in child abuse and situations that may leave families feeling helpless (Lucassen et al., 2021).

Some studies have revealed the need to provide effective intervention by child and adolescent protection services during the COVID-19 crisis that would assist parents, promote healthy family relationships and ensure the well-being of children (Purnama & Jansen, 2022; Weeland et al., 2021), especially in families in low socio-economic conditions and in which the primary caregivers are women (Kerr et al., 2021). However, in Spain, there have been no early-intervention programs implemented that have been proven to prevent abuse in at-risk families in crisis situations such as the COVID-19 pandemic.

2) Consequences of child abuse and neglect on attachment and socio-emotional development

Experiencing abuse and neglect in childhood puts individuals at risk for attachment insecurity (disorganized attachment), since it significantly disturbs socio-emotional development. In other words, child abuse and neglect appear to influence the course of development by altering many elements of biological, cognitive, social, emotional, and behavioral development.


More specifically, children who have been abused and neglected are at increased risk for a number of problematic developmental and health (physical and mental) outcomes, including learning problems, difficulty relating to peers, internalizing symptoms (e.g., depression or anxiety), externalizing symptoms (e.g., oppositional defiant disorder, conduct disorder or aggressiveness), and post-traumatic stress disorder.

Intervention programs influencing attachment security and promoting socio-emotional competences are important in the effort to protect children from the adverse outcomes of abuse and neglect presented in this first chapter.

2

ATXIKIMENDUAN OINARRITUTAKO ESKU-HARTZE GOIZTIARRAK: ATXIKIMENDUAN OINARRITUTAKO ESKU-HARTZEA BIDEO-FEEDBACKAREN BIDEZ (AVI)

EARLY EVIDENCE-BASED
INTERVENTIONS AROUND THE
ATTACHMENT THEORY: ATTACHMENT
VIDEO-FEEDBACK INTERVENTION (AVI)



2. KAPITULUA. ATXIKIMENDUAN OINARRITUTAKO ESKU-HARTZE GOIZTIARRAK: ATXIKIMENDUAN OINARRITUTAKO ESKU-HARTZEA BIDEO- FEEDBACKAREN BIDEZ (AVI)/

EARLY EVIDENCE-BASED INTERVENTIONS AROUND THE ATTACHMENT THEORY: ATTACHMENT VIDEO-FEEDBACK INTERVENTION (AVI)

2.1 ATXIKIMENDUA SISTEMA GISA/

The Attachment System

2.1.1 ATXIKIMENDUAREN KONTZEPTUALIZAZIOA/

Conceptualization of Attachment

Familia-esperientzia goiztiarrek haurren, nerabeen eta helduen garapen sozial eta emozionalean dituzten ondorioak azaltzeko orduan, eragin gehien duen ikuspegieta bat da atxikimenduaren teoria orain dela lau hamarkada.

Atxikimendua gizarte-izaerako lotura afektiboa da, pertsona batek beste batekin ezartzen duena. Lotura horren ezaugarriak dira hurbiltasuna bilatzeko jokabideak, barne-interakzioa eta erreferentzia-oinarria eta mundu fisiko eta sozialarekiko harremanetan laguntzea (López, 2006).

Bowlbyren arabera (1969/1998, 1973/1998, 1980/1997), atxikimenduak oinarri biologikoa du eta haurrak estres-uneetan bere amarekiko (edo zaintzaile nagusiarekiko) gertutasuna sentitzea sustatzen duen sistema egokitzalea da. Ikuspuntu emozionaletik, subjektua atxikimendu-irudiaren baldintzarik ezaz eta laguntzeko gaitasunaz ziur baldin badago, lotura horrek segurtasun-, egonkortasun- eta autoestimu-sentimenduak ekarriko ditu; bi pertsonen arteko enpatia, samurtasuna, kontsolamendua, komunikazio emozionala eta maitasuna erraztuz. Ikuspuntu kognitibotik abiatuta, atxikimendua norberari, harremanari, atxikimendu-irudiari eta pertsona atxikiari buruzko irudikapen multzo bat eraikitzea da. Atxikimendu-lotura modu egokian ezartzen bada, irudikapen horien oinarrizko edukia baldintzarik eza izango da. Horrela, pertsona atxikiak sinesten du besteak ez diola huts egingo, eta bera babesteko, zaintzeko eta laguntzeko gaitasuna duela (Cassidy eta Shaver, 2016).

2.1.2 ATXIKIMENDUA SISTEMA GISA/

Attachment as a system

Atxikimendua jokabide-sistema gisa/ Attachment Behavioral System

Atxikimendu-sistema, beste portaera-sistema batzuk bezala (adib. jokabide-sistema erreproduktiboa, gurasoen jokabide-sistema, elikatzeko-sistema eta esplorazio-jokabideen sistema), espezie askoren ekipamenduaren funtsezko alderdia da eta gizabanakoaren eta haren geneen biziraupena eta ugalketa-arrakasta bermatzea du helburu (Ainsworth, 1989).

Bowlby-k (1969/1998) etiologiatik kontzeptu hau maileguz hartu zuen eta adierazi zuen hainbat atxikimendu-portaera euren artean funtzionalki erlazionatuta zeudela (negar egitea, haurra zaintzen duten pertsonari jarraitzea, etab.). Izan ere, horiek guztiek emaitza auresangarri bera izan dezakete: haurtxoa zaintzen duen pertsonarekiko hurbiltasuna.

Atxikimendu-sistema bakarra eta hainbat elkarreragin/ Attachment as an unique system with several reciprocities

Atxikimenduaren aditu diren gehienek kontsideratzen dute atxikimendua beste pertsonari atxikitzen zaien eta harreman bakoitzari egokitzen zaion pertsonaren berezko sistema egonkor eta bakarra dela (López, 2006). Lotura ezberdinak barne hartzen ditu, baina haurrak, gazteak edo helduak atxikimendu-sistema bat izango du irudi bakoitzarekin harremanak dituen unetik. Aldiz, egokitzapen-gaitasuna oso altua da eta pertsona bakoitzarekin mantentzen diren elkarrekintzak oso desberdinak izan daitezke.

Uste da harreman guztiek atxikimendu-sistemaren eraikuntzan paper garrantzitsua betetzen dutela, betiere, esanguratsuenak haurtzaroan eta nerabezaroan zehar irudi nagusiekin izaten diren esperientziak izanik. López-en (2016) arabera, Bowlby-k amari emandako pisu ia eskusiboaz gain, aita, beste senide batzuk eta haur-zaintzaileak ere garrantzitsuak direla. Honen harira, egun, badira zenbait ikerketa haurtzaroan, aita eta haurren arteko atxikimendu ziurraren eta haurren garapen sozialaren arteko lotura ikertu dutenak, eta aiten eta haurren arteko harreman ez ziurrek, amen eta haurren arteko harreman ez ziurrek baino erlazio esanguratsua daukatela aurkitu dute lehen haurtzaroan (Bureau et al., 2017). Are gehiago, kulturak berak ere eragina du atxikimendu-sisteman.

Hala ere, zenbait autorek (adib. Thompson, 2021) planteatu dute atxikimendua hainbat harremanen elkarrekintzek osatutako sistema dela. Beste aditu batzuk hain urrun doaz, ezen atxikimendu-sistemaren batasuna zalantzan jartzen duten. Izan ere, bikote-harremanetan beste atxikimendu mota berri bat sor daiteke (López, 2006).

Lópezen (2006) arabera, haurrak atxikimendu-estilo bakarra izaten du, eta hortik abiatuta, harreman bakoitzera egokitzen da. Autore horrek argudiatzen du adingabeak egoera desberdinetan eta pertsona desberdinekin duen jokabidearen jarraitutasuna. Uste da aldaketak hobeto azaltzen direla atxikimenduaren moldagarritasunetik, lotura desberdinen ondorengo atxikimendu-sistema anitzetatik baino.

Egoera ezberdinek osatutako sistema bakarra eta sistemen arteko sistema/ A single system made up of different situations and a system among systems

Eremu eta egoera askotarikoei aplikatutako atxikimenduari buruzko ikerketek baieztatzen dute atxikimendu-estilo ezberdinek subjektuen jokabidea iragartzeko gaitasuna dutela, bai haurtzaroran, bai helduaroan. Hortaz, subjektua eboluzio-une zehatz batean kontuan hartuta, ez dago zalantzarik atxikimendu-sistema existitzen dela eta pertsonaren bizitzan zeharkako eragin/presentzia duela, eremu anitzetan, bereziki jokabide sozialetan orokorrean eta, partikulariki, intimitatea eskatzen duten jokabide sozialetan (López et al., 2005; Thompson, 2016; Thompson, 2021).

Atxikimendu-sistema oinarri biologikoa duten beste jokabide-sistema batzuen elkarrekintza konplexua da. Jaiotzean zenbait sistema daude aktibo: esploratzailea (errealitatearekiko interesatzeko joera), filiaziokoa (espezie bereko pertsonekin interesatzeko eta afiliatzeko joera) eta sexuala (plazeraren fisiologiarekin, jaiotzetik aktiba daitekeena eta eremu anatomikoan, hormonalean, emozionalean eta abarretan ondoz ondoko garapenak dituen). Ondoren, bizitzako lehenengo urtearen erdialdean, beste bi sistema eratzen dira: atxikimendua eta ezezagunekiko beldurra (ezezagunekin zuhurtziaz edo errefusaz erlazionatzeko joera). Atxikimendua, beste sistema batzuekin batera, elkarrekintza konplexuko sistema da eta sistema horiek guztiek portaera erregulatzeko ahalmen handia dute, baita egoera desberdinetara egokitzeko gaitasuna ere (Cassidy, 2016).

Bizi-ziklo osoan lotura berrietara irekita dagoen sistema/ System open to new connections throughout the life cycle

Pertsonak atxikimendu-lotura berriak ezar ditzakete bizitza osoan zehar. Bi edo hiru atxikimendu-lotura, normalean, bizitzako lehen urtean zehar garatzen dira, familiako kideekin edo haurra zaintzen duten hurbileko beste pertsona batzuekin. Haurtzaroaren erdialdean, haurrak familiakoak ez diren pertsonekin denbora gehiago igarotzen duenean, beste atxikimendu-lotura batzuk garatzeko aukera berriak sortzen dira. Nerabezaroan eta heldutasun goiztiarrean, gizabanakoak normalean sexu-bikotekidearekin atxikimendu-loturak garatzen hasten dira. Nahiz eta gurasoekiko atxikimenduak bizitza osoan zehar mantentzen diren, ondorengo atxikimendu-loturak zentralagoak izaten dira helduaroan (Ainsworth, 1989; López, 2006; Thompson et al., 2022).

2.1.3 BARNE-EREDU OPERATIBOAK/

Internal Working Models (IWM)

Bowlbyren (1969/1998) arabera, atxikimendu-sistemak helburu edo jomuga baten arabera jarduten du. Hau da, ezarritako hurbiltasun-helburua lortzeko bidean egiten ditugun aurrerapenak urratsez urrats ebaluatuz eta zuzenduz goaz, ekintza eraginkorrenen sekuentzia sortuz. Atxikimendu-jokabide hau izaera malgukoa da, zeinak gutxienez hiru eragiketa kognitibo behar dituen: 1) Gertaera mehatxagarrien aurrean pertsonak erakusten duen barne-egoeraren (adib. estresa, segurtasuna) ebaluazioa eta kudeaketa, 2) Atxikimendu-irudiek pertsonaren hurbiltasuna bilatzeko saiakeren aurrean duten erantzunen ebaluazioa eta kudeaketa, eta 3) Aukeratutako jokaeren erabilgarritasuna ebaluatu eta kudeatzea.

Bowlby-ren (1969/1998) arabera, atxikitako pertsonaren hurbiltasun- eta babes-saiakerei zaintzaileak emandako erantzunak aldakorrak badira, pixkanaka, atxikimendu-sistemaren funtzionamenduan aldaketa iraunkorrak eta eraginkorrak sortuko dira. Bowlby-k (1973/1998) dio aldakortasun horrek “barne-eredu operatiboen” edo “irudikapen-ereduen” itxura moldatzen duela. Eredu operatiboak gizabanako batek berari buruz eta bere ingurumenari buruz dituen mapa kognitiboak, irudikapenak, itxaropenak, eskemak edo gidoiak dira. Eredu operatibo horiek honako elementuak barne hartzen ditu: atxikimendu-irudiekiko elkarrekintza zehatz eta berariazkoak, norberaren buruarekiko eta besteekiko harremanekiko sineste edo jarrerak, atxikimendu-harremani eta

elkarrekintzei buruzko azalpen-ezagutzak, eta harreman intimoetan emozioak eta jokabide afektiboa nola erregulatu jakiteko ezagutzak (Bretherton eta Munholland, 2016).

Main adituaren eta bere kideen (1985) arabera, eredu operatibo goiztiarrek haurren oroitzapenak antolatuko dituzte, beren buruarekin eta besteekin elkarrekintzan segurtasuna lortzeko ahaleginetan. Modu horretan, haur batek eredu operatibo arrakastatsuak garatu ditzake hurbiltasuna bilatzeko ahaleginean.

Barne-eredu operatiboak bizitzako lehen hilabeteetan sortzen hasten dira. Hala ere, biziziklo osoan zehar interpretatzen eta birmoldatzen jarraitzen dute. Lehenengo eredu garrantzia da, ziur asko, haurrak gero mundua esperimentatzeko modua zehaztuko duena. Beraz, lehenengo eredu hauek ondorengo beste ereduaren eraikuntzan eragin dezakete (Marrone, 2001; Thompson, 2016; Thompson, 2021). Esaterako, tratu txarrak jasan dituzten haurrek inguruko ez sortu ohi duten eredu operatiboa honakoa izango da: zaintzarako prestasun falta dutenak, beldurra eragiten dutenak eta mesfidantzakoak direnak.

2.1.4 ATXIKIMENDU-SISTEMAREN FUNTZIONAMENDUAN

BANAKAKO EZBERDINTASUNAK/

Individual variations in the attachment system

Atxikimenduaren teoriaren arabera, gizakiak atxikimendu-sistema bat du eta horren funtzio nagusia da gizakia zaintzen duen pertsonarekiko gertutasuna bermatzea eta, behar izanez gero, laguntza eta babesa ematea. Nahiz eta uste den, adina edozein dela ere, pertsona bakoitzak atxikimendu-sistema jakin bat duela, «atxikimenduaren kalitatea» aldatu egiten da segurtasun-mailaren arabera. Hainbat ikerlanek adierazten dute desberdintasun horiek, hein handi batean, haurtzaroan jasotako zaintza motaren arabera zehazten direla (Weinfield et al., 2008).

Haurtzaroan jasotako zaintza motari dagokionez, haurren atxikimenduaren kalitatean hein handi batean eragiten duten honako faktore hauek nabarmentzen dira: 1) Haurtzaroan zehar gurasoekin izandako atxikimendu-esperientzien inguruko irudikapen mentalaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioa (Main et al., 1985), 2) Atxikimenduaren faktore ekologikoak (Belsky, 2005), hau da, gurasotasunaren beste ezaugarriak (adib. nortasun-ezaugarriak edo osasun mentala), 3) Guraso-haur diadaren familia-testuingurua eta testuinguru soziala (adib. bikote-harremana, ordezeko zaintzaileak, gurasoak ez direnak edo gizarte-laguntza), eta 4) Haurren jatorrizko izaeraren ezaugarriak (adib.

suminkortasuna, estresarekiko joera edo estresari aurre egitea) (Belsky, 1997; Van IJzendoorn eta Bakermans-Kranenburg, 1997).

Hala ere, atxikimendua ez da haurtzarora mugatzen, bizi-ziklo osoa hartzen baitu (Ainsworth, 1989; Bowlby, 1988/1995). Jarraian aurkezten den taulan azaltzen dira atxikimendu motak, elkarrekintza-jokabideak, aurrekariak, barne-eredu operatiboak eta prebalentzia. Aipatu behar da bizitzako edozein arotan gerta daitezkeela atxikimendu-irudi nagusiekiko elkarreraginen kalitatean aldaketak. Izan ere, zaintzaile goiztiarren sentikortasunean gertatutako aldaketek etenaldia eragin dezakete atxikimendu-estiloan, baita atxikimendu-irudi berria agertzen denean ere (adib. bikote berria edo lagun mina). Gainera, atxikimendu-irudien eskuragarritasuna, sentikortasuna eta erantzukizuna eteten duen aldaketa bakoitzak barne-eredu operatiboan eguneratzea eragin dezake (adib. guraso-irudiren baten heriotza, gurasoen estresa, gurasoen banaketa, etab.).

Bestalde, barne-eredu operatiboan berrikuspen positiboa eragin dezaketen faktoreak ere existitzen dira. Gertaera positiboak, hala nola pertsona maite bat denbora luzez banandu ondoren itzultzea, laguntza eskainiko duen bikote bat aurkitzea edo prozesu psikoterapeutiko egoki bat egitea, faktore horien adibide dira (Bowlby, 1988/1995).

Jarraian, Ainsworth et al. (1978) eta Main eta Solomon (1990) autoreek proposatutako atxikimendu motak azaltzen dituen taula gehitzen da (Muela, 2007):

Taula 2.

Atxikimendu mota, elkarrekintza-jokabideak, aurrekariak, barne-eredu operatiboak eta prebalentzia

Atxikimendu mota, elkarrekintza-jokabideak, aurrekariak, barne-eredu operatiboak eta prebalentzia.				
Atxikimendu mota	Elkarrekintza-jokabideen deskribapena	Aurrekariak	Barne-eredu operatiboak	Prebalentzia
Atxikimendu ziurra (A mota)	<p>Esplorazio aktiboa atxikimendu-irudiaren aurrean.</p> <p>Antsietatea (ez nahitaez bizia) banantze-gertaeretan.</p> <p>Amarekin berriro topo egitean harremana eta hurbiltasuna bilatzea eta hura suspertzeko erraztasuna.</p>	<p>Haur seguruen gurasoak sentiberak, onargarriak, kooperatiboak, eskuragarriak, irisgarriak eta horietatik defenda daitezkeenak dira.</p> <p>Haurren seinaleak ondo irakurtzen dituzte. Sinkronia bat dago amaren/aitaren eta semearen/alabaren arteko elkarreraginean. Elkarreragin tenporizatuak, elkarrekikoak eta bien arteko konpentsatzaileak dituena.</p>	<p>Haurrak bere burua eraikitzen du, zeina maitatua, eraginkorra, autonomoa eta gaitua sentitzen den.</p> <p>Besteekiko barne-irudikapena eskuragarritasuneko eta lankidetzakoa da, zeinetan fidatu eta haien mende egon daitekeen.</p>	%55-60
Atxikimendu antsioso-saiheslea (B mota)	<p>Banaketaren aurrean antsietate gutxi edo batere ez.</p> <p>Amaren aldeko lehentasun argirik ez izatea ezezagunen aurrean.</p> <p>Ama saihestea berriro elkartzean (harengandik urrunduz, behin ikusi ostean).</p>	<p>Gero atxikimendu saiheslea duten haurren gurasoek baztertu egiten dituzte.</p> <p>Zehazki, haren portaera interaktiboaren ezaugarriak hauek dira: haserrea, erresumina, haurraren desioekiko etengabeko aurkakotasuna, etengabeko errietak edo gogo-aldarte sumingarria, jardueretan interferentzia fisikoa eta/edo indar fisikoak obeditzeko duen baliabidea.</p> <p>Haurraren egoera afektiboak kontrolatu nahi izaten dituzte, nola sentitu behar duen zehaztuz.</p>	<p>Haurrak berak eraikitzen du ez dela maitatua sentitzen, baina bai autonomo eta fidagarri.</p> <p>Gainerakoak errefusatzailerik eta intrusibo izatearen barne-irudikapena.</p>	%15-23
Atxikimendu antsioso-anbibalentea	<p>Esplorazio minimoa edo nulua amaren aurrean.</p>	<p>Atxikimendu-irudiak ez dira eskuragarri mantentzen. Askotan, sentiberatasunik gabe agertzen dira, nahiz eta batzuetan</p>	<p>Haurrak bere burua honela ikusten du: ez oso baliotsua, ez-</p>	%8-12

(C mota)	<p>Banaketak eragindako antsietate-erreakzio bizia.</p> <p>Berriro elkartzean, portaera anibalenteak (hurbiltasunaren bilaketa, oposizioarekin eta suminarekin konbinatuta) eta atxikimendu-irudiak kontsolatua izateko zailtasun handia.</p>	<p>sentiberatasunez jokatzen duten gogoaren edo desioen arabera.</p> <p>Ez dira seme-alabekiko elkarreraginean sartzen, seinaleei gutxieneko erantzuna ematen diete, ez dira hain irisgarriak eta ez dira hain laguntzaileak. Seme-alaben esplorazio-portaeran zuzeneko eragina dute.</p> <p>Psikologikoki inplikaturik daude seme-alabekin, baina haurraren ondoezaren seinale asko galtzen dituzte.</p>	<p>eraginkorra eta menpeko.</p> <p>Besteekiko barne-irudikapena honakoa da: axolagabeak, bihozgabeak, aurranezinak eta ez oso fidagarriak.</p>	
Atxikimendu desantolatua (D mota)	<p>Orientaziorik gabe agertzen dira.</p> <p>Atxikimendu-irudiarengana hurbiltzen dira begirada saihestuz.</p> <p>Berriro elkartzean, hurbiltasuna bilatzen dutela erakuts dezakete, bat-batean ihes egiteko eta elkarreragina saihesteko, mugimendu osatugabeak edo helbururik gabekoak erakutsiz, eta jokabide estereotipatuak.</p>	<p>Zaintzaileak beldurtuta, larrituta, ez-eskuragarri edo bihozgabe agertzen dira (alkoholismoagatik, toxikomaniagatik, depresioagatik edo psikosiagatik).</p> <p>Hurbileko inguruan gertatzen diren gertakariekin harreman ulergarririk ez duten jarrerak aurkezten dizkiete seme-alabei, eta haurraren beldur eta ondoezaren iturri dira.</p> <p>Guraso hauek mehatxagarri bezala esperimendatzen dituzte beren seme-alabek.</p>	<p>Norberaren eta besteen irudiak bateraezinak dirudite.</p> <p>Haurrarentzat heldua mehatxu ikusezina eta ulertezina bilakatu da. Disoziazio-nahasteen ezaugarri direnak.</p>	% 12-15

2.2 ATXIKIMENDUAREN TEORIATIK ABIATUTAKO EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO ESKU-HARTZEAK/

Attachment oriented evidence-based interventions

Ebidentzian oinarritutako esku-hartze psikologikoez ebaluazio-sistema eta prozedura metodologiko zientifikoak jarraitzen dute eta testuinguru zehatz batean aplikatutako esku-hartzearen eraginkortasun maila frogatua geratzen da, hain zuzen, aldagai gako eta aktiboetan efikazia erakutsiz (Gálvez-Lara et al., 2019). Ebaluazio zientifikoak zehaztutako irizpideak betetzen dituzten esku-hartzeak zeintzuk diren identifikatu daiteke, horrela, instituzio publikoek hautatu ahalko dituzte osasun psikologia aplikatuan eraginkortasun handiena duten esku-hartzeak (Echeburúa et al., 2010).

Ebidentzian oinarritutako esku-hartzeak haurtzaroan aplikatzeak zenbait kritika jaso ditu (zientifikoak, ideologikoak, kulturalak, erakunde-mailakoak eta profesionalen pertzepziotik abiatutakoak), batez ere, esku-hartzearen gehiegizko sinplifikazioagatik (Axford eta Morpeth, 2013) edo psikologia aplikatuan erabiltzeko aurkitu diren zailtasunengatik (Kazdin, 2018).

2.2.1 ATXIKIMENDUAREN TEORIAN OINARRITUTAKO ETA PROBETAN OINARRITUTAKO ESKU-HARTZEAK/

Attachment-based interventions that have proved efficacy

Atxikimenduaren teorian oinarritutako eta efikazia probatu duten esku-hartze ezagunen artean, honakoak aurki daitezke beren ingelesezko izen originalekin (Steele eta Steele, 2018):

Taula 3.

Atxikimenduaren teorian oinarritutako eta probetan oinarritutako programak

Esku-hartzeak	Autoreak eta urtea	Nori dago zuzenduta?
1. Video-Feedback Intervention to Promote Positive Parenting and Sensitive Discipline (VIPP-SD)	Juffer et al., (2008)	0-3 urteko haurrak eta beren gurasoak
2. Attachment and Biobehavioral Catch-Up	Dozier et al., (2014)	0-3 urteko haurrak eta beren gurasoak
3. The Circle of Security Intervention	Woodhouse et al., (2018)	0-3 urteko haurrak eta beren familiak
4. The Nurse-Family Partnership	Donelan-McCall eta Olds (2013)	0-3 urteko haurrak eta beren familiak
5. Steps Toward Effective, Enjoyable Parenting	Suess et al., (2015)	0-3 urteko haurrak eta beren gurasoak
6. The UCLA Family Development Project: Promoting Healthy Relationships from Within	Heinicke et al., (1993)	0-3 urteko haurrak eta beren familiak
7. Minding the baby: Complex Trauma and Attachment-Based Home Intervention	Slade et al., (2005)	Amaren haurdunaldiko 27.astea-2 urteko haurrak eta zaintzaileak
8. New Beginnings: A time-Limited Group Intervention for High-Risk Infants and Mothers	Baradon et al., (2009)	0-3 urteko haurrak eta beren amak
9. Group Attachment-Based Intervention: A multifamily Trauma Informed Intervention	Steele et al., (2015)	0-3 urteko haurrak eta beren familiak
10. CAPEDP Attachment: An Early Home Based Intervention Targeting Multirisk Families	Terenio et al., (2013)	Amaren haurdunaldiko 27.astea-2 urteko haurrak eta zaintzaileak
11. Mom2Mom: An Attachment-Based Home-Visiting Program for Mothers of Young Infants	Kaitz et al., (2012)	0-3 urteko haurrak eta beren amak
12. Video-Feedback Intervention for Parents of Infants at High Risk of Developing Autism	Green (2017)	0-3 urteko haurrak eta beren gurasoak
13. Child-Parent Psychotherapy	Toth et al., (2017)	0-6 haurrak eta beren gurasoak
14. The Attachment Video-Feedback Intervention Program (AVI)	Moss et al., (2018)	0-6 haurrak eta beren guraso diadak
15. B.A.S.E Baby watching	Heinz eta Hollerbach (2011)	0-6 haurrak
16. Creating a Peaceful School Learning Environment	Twemlow et al., (2017)	6-11 urteko haurrak
17. Connect	Moretti et al., (2013)	Nerabeen gurasoak
18. Attachment-Based Family Therapy for Adolescent Depression and Suicide Risk	Krauthamer et al., (2017)	Nerabeei eta beren familiak
19. Mentalization-Based Therapy for Adolescents	Rossouw (2012)	Nerabeak
20. Promoting Responsiveness, Emotion Regulation and Attachment in Young Mothers and Infants	Riva et al., (2013)	Ama nerabeak
21. Supporting Father Involvement	Cowan et al., (2000)	Aita helduak

Esku-hartze hauek guztiek atxikimenduaren teorian dute oinarria, esku-hartzean erabiltzen diren tresna eta teknikak aurrez balioztatutakoak izan dira eta metodologia prozedura sendo eta fidagarriak erabiltzen dituzte. Gainera, eskuliburu bat dute oinarri eta inplementazioan dabilzan bideratzaile guztiak aurrez aurreko formakuntzan eta ondorengo gainbegiraketa prozesuan parte-hartzera behartuta daude.

Esku-hartzeetako parte-hartzaileei dagokienez, taulan islatzen den gisan, ebidentzian oinarritutako esku-hartzeak zuzenduta dauden adin-tarteen arabera daude zerrendatuta. Zehazki, horietako lehenengo hamabiak, 0-3 urte bitarteko haurrei eta beren familiei daude zuzenduta; hurrengo hiru programak, 0-6 urte bitarteko haurrei eta beren gurasoei; jarraian doana, eskolara zuzenduta dago, beste laurak, nerabeei, eta horietako bat, guraso gazte edo nerabeei. Azkena, ordea, bikote helduei dago zuzenduta, non aita diren gurasoetan jartzen den arreta bereziki.

Bestalde, aipatzekoa da gehiengoek bideo-feedbackaren metodologia erabiltzen dutela guraso-haur diadek “orainean” duten harremanaren gaineko lana aurkezten dutela. Bideo-atzeraelikadura, azken urteotan, arlo klinikoan emaitza hobekak lortzeko asko erabiltzen ari den metodologia da guraso-haur harreman dinamikak aldatzea helburu duten atxikimenduan oinarritutako esku-hartzeetan (Steele et al., 2014). Bideo-feedbackaren metodologia aberatsa da, harremanen mikro-momentuak, analisi unitate globalak aztertzea ahalbidetzen duelako; eta neurozientziek atxikimenduaren gainean aurkitutako emaitzen eragile sendoenetako bat delako gurasoak bere burua haurrarekin harremanean islatuta ikustea (Steele eta Steele, 2018).

Izan ere, zein gurasotasun mota jarraitu nahiko lukeen eta zer aldatu nahiko/beharko lukeen pentsarazten dion esperientzia sakona da.

Gainera, gurasoaren arreta bere buruarekiko errepresentazio mentaletan, haurraren errepresentazioetan eta bien arteko interakzioak sortzen dituen errepresentazio mentaletan fokatzea azeleratzen du (Stern, 2004). Horren eraginez, esku-hartzeetan gurasotasunean jokabide eta pentsamoldean aldaketak eragiteko katalizadore gisa erabiltzen da (Claiborn eta Goodyear, 2005) eta gurasoaren iraganeko edo beste harreman batzuetan sortutako kalteak erreparatzeko eta konfiantzan oinarritutako harremanak sortzeko aukera zabaltzen dio gurasoari bideratzailearen feedback positiboaren laguntzaz

(McDonough, 2005); batez ere, iraupen laburreko familiei zuzendutako esku-hartzeetan (Fukkink, 2008).

Azkenik, badira zenbait desberdintasun esku-hartzea aurrera eramateko testuinguruari erreparatuz gero. Batzuk, kontestu klinikoan burutzen dira, bakarka edota taldean, eredu multi-familiarrean oinarrituta. Dena den, esku-hartzeen gehiengoa etxean burutzen da, guraso-haur diadarekin bakarka. Izan ere, ikertu izan da familien ingurugiro naturaletan eta modu indibidualizatuan egiten diren ebidentzian oinarritutako esku-hartzeek (Moore et al., 2013) eta eredu bio-psiko-soziala kontuan hartzen dutenek (Espe-Scherwindt, 2008), diada bakoitzaren espezifikotasunak kontuan hartzen dituztela eta guraso-haurren beharrian errealak lantzeko eraginkorrak direla (Dunst et al., 2006; McWilliam, 2010) eta, era berean, gaitasun berrien ikasketak egunerokotasunera aplikagarriak direla (Jung, 2003).

2.2.2 SENTIKORTASUNA: GURASOTASUNAREN OINARRIZKO GAKOA/

Sensitivity: The key to parenting

Zenbait ikerketatan egiaztatu da zaintzaile nagusiak haurren seinaleekiko duen sentikortasuna atxikimendu ziurraren iragarpen nagusietako bat dela (De Wolff eta van IJzendoorn, 1997).

Gurasoen sentikortasunaz hitz egiten dugunean, zehaztu behar da atxikimendu-irudiko haurren segurtasuna ez dela soilik bertan egotearen egonkortasunaren araberakoa, baizik eta haren zaintzaile nagusiak emandako pertzepzio- eta erantzun-faktoreen araberakoa ere bada. Hortaz, atxikimendu ziurra edo ez-ziurra izatea zehazten duten aldagaien artean hiru elementu nabarmentzen dira: 1) Bertan modu egonkorrean egotea, 2) Haurren jokabidearen eta seinaleen pertzepzioan eta interpretazioan asmatzea eta erregularra izatea, eta 3) Haurren seinaleei erantzun egokiak eta kontingenteak emateko prest egotea. Horregatik, gurasoen sentikortasun kontzeptua honela definitzen da: “Haurren seinaleak behar bezala hautemateko eta seinaleei kontingentziaz eta modu egokian erantzuteko trebetasuna” (Ainsworth et al., 1978).

Jokabide hauek zaintzailearen eta haurren arteko sintonia determinatzen dute hitzezko eta jokabideko elkarrizketetan. Zaintzaile sentikorrek haurrekin harreman sinkronikoa dute, sinkronia amaren edo, oro har, zaintzailearen sentikortasunaren ezaugarri bat izanik. Zaintza mota honek diadako kideen arteko elkarrekintza positiboak sustatzen ditu, non,

biak emozionalki eskuragarri eta konektatuta aurkitzen diren eta elkarren arteko harreman egoki eta osasungarriaz gozaten duten (Biringen eta Easterbrooks, 2012). Aldiz, lotura ez-ziurak pertzepzio ez-kongruenteen, interpretazio okerren eta haurren seinaleak modu zabarkorrean erantzutearen arabera garatzen dira.

Kontuan hartuta atxikimendu ziurra haurren garapen sozio-emozional egokiaren oso iragarle garrantzitsua dela, zaintzaileen erantzun sentikorra elementu nuklear bat dela, atxikimendua bizitzako lehen urtean eraikitzen dela, bigarrenean finkatu egiten dela eta lehenengo haurtzaroan garatzen dela, oso garrantzitsua da zaintzaileen sentikortasuna sustatzeko esku-hartzeak diseinatzea, bereziki, haurren bizitzako lehenengo urtean eta arrisku handiko egoerak dituzten familietan. Zenbait meta-analisitan aurkitu diren emaitzei jarraiki, gurasoen sentikortasuna eta haurren garapenaren artean erlazio sendoak daude, hala nola, hizkuntzaren garapenean, garapen kognitiboan, garapen sozio-emozionalan eta haurren funtzio exekutiboen garapenean (Madigan et al., 2019; Rodrigues et al., 2021; Valcan et al., 2018). Aldiz, sentikortasun ezaren eta haurren jokabide arazoaren artean erlazio esanguratsuak daudela aurkitu da, batez ere, jokabide arazo kanporakoietan (Cooke et al., 2022).

Atxikimendu-irudietan ardaztutako esku-hartze programa askotarikoak diseinatu izan dira (hazkuntza-praktikak, sentikortasuna, osasun mentala, etab.). Zehazki, gurasoen sentikortasuna edo haurren atxikimendu ziurra sustatzeko programa hauen eraginkortasun-maila ikertua izan da eta emaitza ezberdinak argitaratu dira. Horrela, zenbait meta-analisitan (Bakermans et al., 2003, 2008) atxikimendu ziurra areagotzeko jardueren ezaugarriak identifikatzea lortu dute, honako emaitzak zerrendatuz:

- Esku-hartze eraginkorrenak atxikimendu-irudien sentikortasunean oinarritzen direnak dira.
- Zaintzaile nagusien sentikortasuna handitzeko esku-hartze eraginkorrak haurren atxikimenduaren segurtasuna hobetzeko ere badira.
- Esku-hartze eraginkorrenak 16 saio baino gutxiago dituztenak dira.
- Haurren sei hilabetetik aurrera hasten diren esku-hartzeak eraginkorragoak dira jairo aurretik egiten direnak edo sei hilabetetik beherako hurrekin egiten direnak baino.
- Hartzaileen ezaugarriak ez dira garrantzitsuak esku-hartzeen eraginkortasuna baloratzeko orduan. Esku-hartzeak eraginkorrak dira, halaber, arrisku handiko,

ertaineko edo txikiko haurren familiekin, bai eta familia kliniko eta ez-klinikoekin ere.

- Alderdi jakin batean oinarritzen diren esku-hartze nahiko itxiak, hala nola, gurasoen sentikortasunean eta guraso/semi-alaben arteko elkarreraginean oinarritzen direnak, esku-hartze zabalak baino eraginkorragoak dira.
- Euskarri gisa bideo-feedbacka erabiltzen duten esku-hartzeak erabiltzen ez dutenak baino eraginkorragoak dira.

Dena den, atxikimenduaren teorian oinarrituta, gurasoen sentikortasunaren lanketa horretan, haur eta nerabeen babesaren testuinguruan, babesgabetasunarekiko arrisku-egoera murrizteko, guraso-haur arteko harremanaren kalitatea hobetzeko eta haurren garapen sozio-emozionala sustatzeko helburuarekin, atxikimenduan oinarritutako eta efikazia erakutsi duten honako esku-hartze programak nabarmendu dira: *Attachment and Biobehavioral Catch-up* (ABC) (Dozier et al., 2014), *Video-feedback Intervention for Promoting Positive Parenting* (VIPP-SD) (Juffer et al., 2008) eta *Attachment Video-feedback Intervention* (AVI) (Moss et al., 2018).

Aipaturiko hiru programen artean, azkena (AVI; Moss eta Lagtz, 2018; Tarabulsy et al., 2018) bereziki eraginkorra da zaintzaile nagusien sentikortasuna sustatzeko (Steele eta Steele, 2018) eta horrek, era berean, haurren atxikimendu ziurra areagotzen du, bereziki adin txikikoen babesgabetasunarekiko arrisku-egoeretan dauden haurren kasuan.

2.3. ATXIKIMENDUAN OINARRITUTAKO ESKU-HARTZEA BIDEO-FEEDBACKAREN BIDEZ (AVI)/

Attachment-based Video-Feedback Intervention (AVI)

Montrealgo (Kanada) Quebeceko Unibertsitateko aditu-talde batek *Atxikimenduan oinarritutako esku-hartzea bideo-feedbackaren bidez* (AVI) (Moss et al., 2018) programaren prozedura egituratua diseinatu zuen orain dela hamarkada bat, adin goiztiarreko haurren atxikimendua hobetzeko asmoz.

AVI (Moss et al., 2018) ebidentzian oinarritutako programa bat da, zeinak seme-alaben atxikimendu ziurra sustatzeko guraso-gaitasunak lantzea duen helburu. Beste modu batean esanda, guraso-haur harremanaren tratu ona sustatzea edo beren arteko

harremanaren kalitatea hobetzea bilatzen du. Era berean, programa hau adin-tarte goiztiarrean inplementatzeak eskola-adinean egongo diren haurren kanpo-portaera gatazkatsuak ekiditea dakar. AVI (Moss et al., 2018) 0-5 urte bitarteko adingabeen familietan aplikatzen da.

AVI (Moss et al., 2018) programaren helburua, gurasoen gurasotasuna sendotzea eta hauen 0-5 urte bitarteko seme-alabekiko atxikimenduan segurtasuna hobetzea da. Zehazki, hiru dira AVIren helburu nagusiak:

- Gurasoen gurasotasun gaitasunak hobetzea, gurasoak zaintza sentikorrean trebatuz.
- Familia-elkarreragin positiboak areagotzea, atxikimenduaren segurtasuna sustatzeko, esan bezala, lotura hori baita haurren garapen sozio-emozionalaren iragarle nagusia.
- Haurren sintoma kanporakoiak (oldarkortasuna, portaera-arazoak, hiperaktibitatea) eta/edo sintoma barnerakoiak (antsietatea eta/edo depresio-sintomak) dituzten haurren jokabidea maneiatzean, gurasoen erantzun egokiak sustatzea.

AVI (Moss et al., 2018) programak zaintzailearen eta haurren arteko elkarrekintzen bideo-grabaketak eta bideo-feedbackaren teknika erabiltzen ditu, hau da, grabatutako irudiak behatzen dira, aztertzen dira eta gurasoekin eztabaidatzen dira. Teknika hau McDonough-ek (2004) garatutako elkarrekintza-metodoarekin eta Erickson-ek (Egeland eta Erickson, 2004) garatutako bideo-feedbackaren bitartez gidatutako autobehaketarekin alderagarria da. Hala ere, bideo-feedbackak ez du erabiltzen gurasoei guraso-gaitasun berriak irakasteko aurrez grabatutako ereduak portaerarik.

Modelatu mota hau erabiltzearen zailtasun nagusia da guraso batzuk ezin direla identifikatu guraso gisa jokatzeko duten aktoreekin edo bideoan parte hartzen duen haurrekin. Gurasoak, itxuraz, seme-alabekiko elkarrekintzari dagokionez “ispilura begiratu” behar dira beren jokabidea aldatzeko (Juffer, 2008).

AVIren (Moss et al., 2018) ikuspegia beste bideo esku-hartze programa batzuen antzekoa da, hala nola, VIPP-SD (*Video-feedback Intervention to promote Positive Parenting*), (Juffer et al., 2008). Dena den, ez da gaur egungo atxikimenduan (Chaffin et al., 2006) oinarritutako atzera begirako terapien berdina. Izan ere, AVIk (Moss et al., 2018)

aita/ama/semi-alaba diadaren eguneko egoeran jartzen du arreta, eta haurraren seinaleekiko sentikortasuna areagotzea du helburu nagusi. Haurraren eta gurasoen eguneko jokabidea eta elkarrekintza bidez grabatzen da eta horixe izango da AVIren hasiera-puntua, eta ez atzera begirako oroitzapenak, zeintzuk gurasoen haurtzaroko esperientzia propioek edo haurrarekiko sentimendu negatiboek baldintzatuta egon daitezkeen.

Bideo-feedbackaren bidezko esku-hartzeak behaketa-gaitasunak lantzeko aukera ematen du, haurraren eta gurasoen arteko elkarrekintza ikusiz, gurasoen jokabide sentikorrek sendotzea ahalbidetzen du. Nahiz eta AVI (Moss et al., 2018) funtsean haurraren eta gurasoen eguneko jokabidean kokatzen den, esku-hartzeak gurasoei informazio osagarria eman diezaieke haurraren garapen positiboaren inguruan, baita egunerokotasunean guraso-jokabide sentikorrek bultzatzearen inguruan ere (gaikako eztabaiden bidez, liburuxkak, dibulgazio-liburuak, etab.). Esku-hartzearen prozesua ebaluatzeko asmoz, bideratzaileak koaderno bat du, non saio bakoitzeko behaketak eta oharrak idazten dituen.

AVI (Moss et al., 2018) familien etxebizitzetan gauzatzen da eta iraupen laburrekoa da (zortzi saio). Etxean elkarrekintzen egoeren grabaketak egiten dira (adibidez, jolas-egoerak, haurraren bainua, janariak, etab.) 10 eta 30 minutu bitarteko denbora-tarte laburretan. Grabaketa egin bitartean, profesionalak ez du aktiboki parte hartzen amaren, aitaren eta haurraren arteko elkarrekintzetan; haren rola zaintzailea arretaz behatzean datza eta, egoera jakin batean, seme-alabekin elkarrekintzan filmatzen du. Grabaketa modu diskretuan egin behar da, guraso eta seme-alaben arteko elkarrekintzako egoera naturalak lortzea bilatuz eta kamerak edo profesionalak haurra gehiegi erakartzea saihestuz. Rol ez-intrusibo honen betetzeak grabaketa egin bitartean profesionalak iruzkinik ez egitea edo gomendiorik ez egitea inplikitzen du.

Rol ez-intrusibo honen funtzionamendua gurasoei azaldu behar zaie grabaketa egin aurretik. Gainera, profesionalak azaltzen du grabaketarekin jarraituko duela haurra negarrez edo estresatuta sentitzen denean ere, kontsideratzen da portaera mota horiek haurraren jokabide-errepertorioaren parte direla eta esku-hartzearen helburuak lortzeko interes profesionalekoak direla, beraz, filmatuak izan behar dute.

Gurasoei seme-alabekin modu natural batean erreakzionatzera animatzen zaie. Horrekin batera, azaltzen zaie esku-hartzean zehar egiten diren grabaketek ez dutela zerikusirik familiako grabaketa pribatuekin, normalean familiako gertaera garrantzitsuen oroitzapenak gordetzeko egiten baitira. Grabaketa hauek egitearen helburua da guraso-

haur elkarrekintzetan haurren ahalik eta portaera gehien biltzea, ondoren behatzeko eta eztabaidatzeko.

VIPP-SDn (Juffer, 2008) ez bezala, AVI (Moss et al., 2018) programaren saio berean filmatutakoari buruz hitz egiten da. Horrek ahalbidetzen du gertatutakoarekiko feedbacka zuzenagoa izatea. Zehazki, bideo-feedbackaren teknikak momentu horretan gertatzen diren haur-zaintzaileen arteko elkarrekintzen berehalako itzultzea ematea ahalbidetzen du eta haren eraginkortasuna frogatua geratu da haurren babesgabetasun-egoeran dauden familiekin lanean (Fonagy et al., 2018). Kasu honetan, esperientziaren berehalakotasunak eta irudien erabilerak introspekzioa eta aldaketaren aldeko errepresentazio kognitibo eta afektiboen agertzea errazten dute. Grabatutako irudi batekiko konfrontazioek aukera ematen dute guraso edo hurrekiko pertzepzio okerrak, negatiboak edo idealizatuak berriro aztertzeko, eta etengabeko interakzio osasuntsuak izateko zailtasun larriak adierazten dituzten diadetan askotan agertzen dira.

Azken hiru hamarkadetan, zenbait emaitza esanguratsu aurkitu dira AVI (Moss et al., 2018) programaren gainean, programa sortu eta inplementatzen hasi zenetik (Tarabulsky et al., 2018); urte askotako ikerketek erakutsi duten emaitzetan oinarrituta; zeintzuk erakutsi duten haurren zaugarritasuna, gehienbat, guraso-haur interakzioarekin edo atxikimendu harremanaren arazoekin lotuta dagoela, eta, ondorioz, beren garapena jokoan jartzen duen arrisku egoeran daudela (Tarabulsky et al., 2008). Gainera, ama-nerabe eta bere seme-alaba diadekin egindako ikerlanetan (Dozier et al., 2013; Moran et al., 2005), Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman bideo-feedbackaren prozedura txertatu zuten edo babesgabestahun-arrisku altuko gurasoekin erantzun sentikorrek garatzen laguntzeko bideoetan oinarritutako materiala erabili izan zuten AVI (Moss et al., 2018) esku-hartzeetan (Juffer et al., 2008).

Azken urteetan, AVI programak erakutsi du eraginkorra dela zaugarriak diren familietan amen sentikortasuna handitzeko, gurasoak haurren jokabideak maizago interpretatuz, haurrei galdera gehiago eginez eta intrusibitatea murriztuz (Albarenga et al., 2020). Guzti hau haurren seinaleak aintzat hartzeko, afektuen erregulazioa hobetzeko, haurren autonomia sustatuz zailtasunak gaintzeko (Tarabulsky et al., 2018) eta haurren psikomotrizitatea garatzeko (Dubois-Comtois et al., 2017).

Gainera, babesgabetasun-egoera arrisku altuko familietan, badirudi guraso-haur harremanaren kalitatea hobetzeko eraginkorragoa dela AVI (Moss et al., 2018) esku-hartzea, beste esku-hartze psikosozialekin alderatuz. Nahiz eta ikusi den zenbat eta txikitako trauma larriagoak izan, gurasoek esku-hartzearen efektua murriztu egiten dutela (van der Asdonk et al., 2021).

Horretaz gain, haurreskolako adineko haurretan (0-3 urte), AVI (Moss et al., 2018) esku-hartzearen efektu positiboa aurkitu da “Trauman fokalizatutako esku-hartze kognitibokonduktualarekin” konbinatuta (TF-CBT), batez ere haurren jokabide barnerakoietan, non disoziazio sintomatologia murrizteaz gain, gurasoen estres psikologikoan eta sintoma post-traumatikoetan ere eragiten duen; sexu abusua jasandako haurren eta haien zaintzaile ez ofentsiboen ongizatea hobetuz (Caouette et al., 2021).

Azkenik, gizarte zerbitzuetako Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman, guraso-haur diada banatzearen inguruko erabakiak orientatzerakoan, gurasoen gaitasunen ebaluazio sistemari AVI (Moss et al., 2018) esku-hartzea txertatu izan zaio, guraso-haur harremanaren kalitatea hobetuz (Cyr et al., 2022).

2.3.1 AVI ADIN TXIKIKOEN BABESGABETASUNAREKIKO ARRISKU-EGOEREN PREBENTZIORAKO/

AVI for the prevention of the risk of Child Abuse and Neglect

Gero eta ebidentzia gehiago dago atxikimenduan oinarritutako esku-hartzeen eraginkortasunari buruz, zehazki, haurrei emandako tratu txarrak pairatu ohi dituen familia bateko belaunaldien arteko zikloak hausteko garaian eta atxikimendu ez-zurra duten haurren proportzioa murrizteko; bereziki, “desantolatua” izenez ezagutzen diren motakoak (Facompré et al., 2018; Graqvist et al., 2017). Lehen haurtzaroko atxikimenduan oinarritutako esku-hartzeek haurraren eta zaintzailearen arteko interakzio-ereduak dituzte ardatz, eta garrantzia haundia ematen diote zaintzailearen sentikortasunari (Bakermans-Kranenburg eta Oosterman, 2021; Cyr eta Alink, 2017; Facompré et al., 2018). Gaur egun, nahikoa ebidentzia lortu da haurren hazkuntza prozesuan gurasoen sentikortasuna, haren atxikimenduaren segurtasunaren iragarle garrantzitsuena dela ulertzeko, bereziki 24 eta 36 hilabete bitarteko adinetan (Zeegers et al., 2017). Ikusi da atxikimenduan oinarritutako esku-hartzeek haurraren

atxikimenduaren segurtasunean duen inpaktuan, zaintzaileen sentikortasunak bitartekari lana egiten duela. Are gehiago, egun, egiaztatu egin da gurasoen sentikortasuna areagotzeko eraginkorrak diren esku-hartzeek bakarrik lortzen dituztela ondorio positiboak haurraren eta zaintzailearen arteko atxikimendu-harremanean (Bakermans-Kranenburg eta Oosterman, 2021).

Halaber, haurraren zaintza-esperientziaren eta atxikimenduaren segurtasunaren arteko harremanean, amaren sentikortasunak moderatzaile lana egiten du (Owen eta Frosch, 2021). Horrela, zaintzaileek sentikortasun gutxi dutenean, kanpo-zaintzaren gehiegizko denborak, zaintzaren kalitate eskasak edo zaintza ez hain egonkorrak izateak haurren eta amaren arteko atxikimendua ez-ziurra izateko arriskua areagotzen du. Hala ere, zaintzailearen sentikortasuna nabaria denean, kanpo-zaintzan emandako orduak eta zaintzaren kalitatea ez dira atxikimenduaren segurtasunarekin lotzen (Owen eta Frosch, 2021).

Dena den, nahiz eta aipatu den bezala, atxikimenduan oinarritutako eta efikazia erakutsi duten programa goiztiarren implementazioaren garrantzia jakina den zaintza-harreman osasuntsuak sustatzeko eta babesgabetasunarekiko arrisku-egoerei aurrea hartzeko, espainiar estatuan, ez da atxikimenduan oinarritutako eta probatutako esku-hartze goiztiarren implementazioaren emaitzarik ezagutzen.

AVI programaren helburuak/ Objectives of the AVI program

AVI programa (Moss et al., 2018) gurasotasunean jarduteko zailtasunak dituzten 0-5 urteko seme-alabekin aplikatzen da, babesgabetasun-egoera maila arin, ertain eta altuak dituzten familiekin, eta atxikimenduan oinarritutako esku-hartze taldean kokatzen da. Esku-hartze horien helburu nagusia zaintzailearen sentikortasuna hobetzea da, jokabidearen ikuspegitik. Hau da, bideo-feedback teknikaren bidez gurasoen sentikortasuna hobetu nahi da, hazkuntza-jokabide sentikorrak eta gurasoen eta seme-alaben arteko elkarreragin sentikorrak indartuz etxeko eguneroko egoeretan. AVIk ikuspegi malgua eta indibidualizatua du eta esku-hartzearen helburuak sortzen ari diren behar diadikoetara egokitzen dira (Moss et al., 2018).

AVIaren xedea ez da sentikortasunean eragin negatiboa duten testuinguruko faktore jakin batzuk aldatzea, hala nola familiak jasaten duen egoera ekonomikoagatik eratorritako estresa. Era berean, esku-hartzearen fokua ez da zaintzaile-rolaren barneko eredu operatiboak eta atxikimendu-istorioak aztertzea.

Adierazi behar da, nahiz eta AVIa bideratzen duten profesionalak gaitasuna duten arrisku handiko familiek dituzten arazoak lantzeko, hala nola, trauma-esperientzia, ez dela funtsezko alderdia zaintzaileen erantzun sentikorra oztopa dezaketen esperientzia traumatiko potentzialak lantzea. Ildo horretan, AVI programak antzekotasun dezente izango lituzke *Video-feedback Intervention to promote Positive Parenting* (VIPP-SD; Juffer et al., 2017) edo *Attachment and Biobehavioral Catch-up* (ABC; Dozier eta Bernard, 2019) programekin.

Prozedura/ Procedure

AVIa familien etxean egiten da eta iraupen laburrekoa da: zortzi saio, 90 minutu ingurukoa bakoitza. Saio guztiek antzeko egitura dute: saioaren lehen zatia 20-30 minutuko eztabaida tematikoarekin hasten da; ondoren, bideo grabaketa egiten da (10-15 minutu); hirugarrenik, atzeraelikadura positiboa ematen da (20-30 minutu); eta azkenik, agurra eta itxiera fasea (10-15 minutu) egiten dira. Gaika lantzen diren eztabaidak haurren garapenarekin eta hazkuntza positibo eta sentikorraren ingurukoak dira; adibidez, erregulazio emozionala, diziiplina sentikorra, banantzeak eragindako antsietatea.. Nahiz eta edukiak sistematizatu egin diren, kasuan kasuko guraso-premien arabera bata edo bestea lehenago edo beranduago sakonduko den aukeratzten da.

Bideo-grabaketak etxeko interakzio-egoeretan egiten dira, oro har, jolas-egoeretan, denbora-tarte laburretan, 10-20 minutuko iraupenarekin. Grabaketan, profesionalak ez du modu aktiboan esku hartzen zaintzailearen eta haurraren arteko elkarrekintzan; hau da, zaintzaileari egoera jakin batean alaba edo semearekin elkarreraginean jolasteko gonbita egitera mugatzen du bere rola bideo grabaketa unean.

Bideo-atzeraelikadura edo *bideo-feedback* fasean, elkarreragin positiboko uneak hautatzen dira, eta horiek dira esku-hartzean nabarmentzen direnak. Interakzio positiboen bidez, gurasoak gai dira guraso-jokabide sentikorra erakusteko, gai direla sentitzeko eta

haurraren atxikimendu- eta esplorazio-beharrak asetzeko. Esku-hartze saio berean filmatutakoari buruz hitz egiten da eta gurasoak aktiboki inplikatzeko dira, gurasoen jokabideari eta seme/alabaren jokabideari buruzko oharrak eta pentsamenduak partekatuz. Horrelako irudiak errepikatuz, mezu positibo garrantzitsuak nabarmentzen dira eta interakzio negatiboko uneak indargabetzen dira, gurasoen jokabide sentikorra hobetuz. Hartara, esan daiteke AVIk gurasoen jokabide desegokiak murriztea ere baduela helburu.

Azkenik, itxiera-fasean, egindako aurrerapenak nabarmentzen dira eta zaintzaileak astean zehar antzeko jarduerekin jarraitzea animatzen dira eta nola egin nahiko luketen zehazten da haiekin batera.

Emaidzak/ Results

AVI programaren emaitzei dagokienez, oro har, atxikimenduan oinarritutako esku-hartzeak oso eraginkorrak izan dira gurasoen sentikortasuna handitzeko ($d = 0.45$) eta haurren eta zaintzaileen arteko atxikimenduaren segurtasun maila areagotzeko ($d = 0.39$) (Bakermans-Kranenburg eta Oosterman, 2021). Gainera, bideo-atzeraelikaduraren metodologia erabiltzen duten esku-hartzeek erakutsi dute erabiltzen ez duten esku-hartzeak baino eraginkorragoak direla gurasoen sentikortasuna hobetzeko (Bakermans-Kranenburg et al., 2003). Emaitza horrekin batera, haurraren atxikimendu-segurtasuna lortzea espero da eta horrekin batera, psikopatologia murriztea, berdinen arteko harremanak indartzea eta osasun fisikoa hobetzea (Dozier eta Bernard, 2021).

Bestalde, AVIk ebidentzia enpirikoa lortu du haurrei emandako tratu txarrak ebidentziatu diren guraso-seme/alaba harremanetan, haien interakzioaren kalitatea hobetuz (van der Asdonk et al., 2020). Gurasoei dagokienez, gurasoen sentsibilitateak gora egin duela ikusi da (Dubois-Comtois et al., 2017; Moss et al., 2011). Era berean, seme-alabei dagokienez, atxikimendu ziurra areagotu da, atxikimendu desantolatua murriztu da, garapen kognitibo eta motore hobea lortu da eta eskolaurreko adinean sintoma barneratzaileak eta kanporatzaileak murriztu egin dira (Dubois-Comtois et al., 2017; Moss et al., 2011).

***Summary of the 2nd Chapter:**

“EARLY EVIDENCE-BASED INTERVENTIONS AROUND THE ATTACHMENT THEORY: ATTACHMENT VIDEO-FEEDBACK INTERVENTION (AVI)”

In this second chapter, we move from the original form of Attachment Theory and research to a more comprehensive behavioral system that considers both individual differences and the impact of relationship partners and other aspects of social situations. Thus, this chapter is divided into four parts. In the first part, the conceptualization of attachment is presented as a system that remains open to new connections throughout life. Moreover, internal working models of the attachment figures are described, and individual differences in the attachment system are explained. Secondly, early evidence-based interventions around Attachment Theory are summarized, including “Sensitivity” as the key to effective parenting. Finally, the Attachment Video-Feedback Intervention (AVI) (Moss et al., 2018) is demonstrated to be applicable for the prevention of child abuse and neglect.

1) The Attachment System

Conceptualization of Attachment

Bowlby (1958) defined attachment as a “lasting psychological connectedness between human beings”. He proposed that attachment can be understood within an evolutionary context. The caregiver provides security for the infant. Attachment is adaptive; it enhances the infant's chances of survival. The major concepts of Attachment Theory are: 1) Proximity Maintenance – The desire to be near the people we are attached to. 2) Safe Haven – Returning to the attachment figure for comfort and safety in the face of a fear or threat. 3) Secure Base – The attachment figure acts as a base of security from which the child can explore the surrounding environment.

Attachment Behavioral System

Bowlby (1982) suggested that people’s behavior is guided by a set of innate behavioral systems. These systems, neural programs or mechanisms, guide the choice, activation,

and termination of behavioral sequences in a way that serves a specific function, such as the forming of an attachment bond, seeking out affiliations, or providing care to a person in need.

Internal Working Models (IWM)

According to Attachment Theory (e.g., Bowlby, 1969/1982, 1973, 1980), infants develop cognitive models (termed Internal Working Models, or IWMs) in relation to the attachment figure during the first year of life. In other words, IWM of attachment is a psychological approach that attempts to describe the development of mental representations, specifically, the worthiness of the self and expectations of others' reactions to the self.

Individual variations in attachment

Individual variations in attachment denote inter-individual differences in the organization or quality of attachment IWM, particularly observable when the attachment system is activated following external or internal cues of threat. These variations are typically described using two dimensions (secure/insecure, organized/disorganized) subsuming four distinct categories: 1) Secure, 2) Insecure-avoidant, 3) Insecure-ambivalent/resistant, and 4) Insecure-disorganized/disoriented).

Regarding the type of care received during childhood, the following factors can influence the quality of the child's attachment: 1) Generational transmission of the attachment IWM (Main et al., 1985), 2) Parenting characteristics such as personality traits or mental health (Belsky, 2005), 3) Family context and social context of the parent-child dyad, 4) The child's original personality traits such as irritability or stress proneness.

2) Early Attachment-based interventions

In some meta-analyses (Bakermans et al., 2003, 2008), researchers have identified the characteristics of interventions designed to promote secure attachment:

- The most effective interventions are those based on the sensitivity of attachment figures.
- Interventions to increase the sensitivity of primary caregivers are also effective in improving children's attachment security.

- The most effective interventions are those with less than 16 sessions.
- Interventions that start after the child is six months old are more effective than those done before birth or with children under six months old.
- Interventions are also effective with families of high-, medium-, or low-risk children, as well as with clinical and nonclinical families.
- Relatively narrow interventions that focus on a particular aspect, such as parental sensitivity or parent/child interaction, are more effective than broad interventions.
- Interventions that use video feedback as support are more effective than those that do not.

Although the effectiveness of early implementation of programs based on attachment in promoting healthy care relationships and preventing risk has been established, in Spain, the results of the implementation of such interventions are not yet known.

Sensitivity: The key to parenting

According to attachment theory, and confirmed by meta-analytical evidence (Bakermans-Kranenburg et al., 2003; De Wolff & van IJzendoorn, 1997), parental sensitivity is the key to secure child-parent attachment relationships. Ainsworth (1978) defined parental sensitivity as the ability to perceive and interpret the child's signals accurately and respond them in an adequate and prompt way. Thus, three meta-analyses confirmed the relevance of attachment security for children's later social competence (Groh et al., 2014), for their externalizing behavior problems (Fearon et al., 2010) and for their internalizing problems (Groh et al., 2012).

Specifically, VIPP-SD (Video-feedback Intervention for Promoting Positive Parenting) can be characterized as an interaction-focused intervention using video feedback to promote sensitive parenting, as well as adequate and sensitive discipline strategies (Juffer et al., 2008, 2017).

3) Attachment-based Video-Feedback Intervention (AVI)


A team of experts from the University of Quebec in Montreal (Canada) designed a structured procedure for the Attachment-based Video-Feedback Intervention (AVI) to improve attachment security in early-age children. The 8-week AVI program is of interest to researchers and clinicians because it is a practical, validated, short-term, attachment-

based intervention program that has demonstrated efficacy in enhancing parental sensitivity, improving child attachment security, and reducing disorganized attachment for children and parents who have been reported for child abuse and/or neglect. Throughout this chapter, theoretical components and empirical bases of the intervention program are described, as well as evidence for its efficacy in different populations.

3

DOKTORETZA-TESIAREN JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICATION OF THE
DOCTORAL THESIS



3. KAPITULUA. DOKTORETZA-TESIAREN JUSTIFIKAZIOA/

JUSTIFICATION OF THE DOCTORAL THESIS

Esan bezala, adingabeen babesgabetasunarekiko arrisku-egoera gizarte-mailan ardua haundia eragiten duen gaia da. Hartara, haur eta nerabeen babes bermatzeko eta tratua onatatzeko, prebentzioaren ikuspegitik zaintzaile-haur harremana lantzeko esku-hartze goiztiarrak beharrezkoak dira udal mailako Haur eta Nerabeen Babes-Sistemaren eskaintzan.

Hainbat meta-analisik agerian utzi dute atxikimendu ziurrak garapen egokia iragartzen duela lehen haurtzaroan (Fearon et al., 2010; Groh et al., 2012; Groh eta Lagtz, 2014). Atxikimendu-harreman goiztiarrak intimitate emozionalaren lehen esperientziak dira eta bizitzan zehar gertatzen diren harreman estuen prototipoak irudikatzen dituzte; bereziki, maitasun-harremanak eta haurren hazkuntzan zehar emango diren harremanak (Sroufe eta Lagtz, 2005).

Zehazki, aurkitu da atxikimendu ziurrak, atxikimendu ez-ziurrekin alderatuz, berdinekiko harremanetan gaitasun sozial hobea iragartzen duela (Groh eta Lagtz, 2014) eta kanpo-sintomatologia (Fearon eta Lagtz, 2010; Groh eta Lagtz, 2012) zein barne-sintomatologia gutxiago iragartzen duela (Groh eta Lagtz, 2012). Atxikimendu ziurreko haurrak besteez fidatzeko joera izango du, elkarrekintza sozialean autoestimu altua erakutsiz, lagunak egiteko erraztasuna aurkeztuz eta babes soziala jasoz. Zaintzaile nagusiarekiko atxikimendu-harreman hau oinarri ziurrekoa da, urtebeteko haurrari testuinguru libreaki esploratzera baimenduz eta emozionalki konpentsatua aurkeztuz, baita ezustekoetan ere. Atxikimendu ziurra duen haurra hazten denean, autonomia-behar berriak sortzen eta asetzen dira eta independentzia handiagoko behar horiek nolabaiteko familia-harmonian garatzen dira. Nahiz eta elkarrekintza guztiak ez diren perfektuak eta harmonikoak, atxikimendu ziurreko haurrak afektu positibo handiagoa adierazten du eta atxikimendu ez-ziurra duen haurra baino kooperatzaileago aurkezten da (Sroufe et al., 2005).

Kontrara, haurrek lehen haurtzaroko harreman esanguratsuetan ziurgabetasuna jasateak eta beren beharrak asetzeko orduan zaintza-gabeziak izateak, lehen haurtzaroko haurraren garapen sozio-emozionalean eta atxikimenduan kaltea eragiten du, eta horrek, babesgabetasunarekiko arrisku-egoerak ekar ditzake (Green et al., 2018). Izan ere, haurrei emandako tratu txarrak guraso-haur harremanaren muturreko emaitza dira (Harden, 2004) eta horren ondorio izan daiteke Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman atxikimendu ez-ziur eta desantolatuak gailentzea (Jiménez et al., 2005; Thompson, 2021).

Haurrei emandako tratu txarrak arazo sozial nagusia (World Health Organization, 2020) eta konplexua direla agerikoa da (World Health Organization, 2014). Familia zaugarriengan eragin negatiboak ditu, bereziki lehen haurtzaroan (Reina Delgado, 2022). Dena den, aspaldidanik atxikimenduaren teoriak haurren babes sistemari zer esana eta zer emana duela ikertu den arren (Cassidy et al., 2016; Rutter, 1989), oraindik asko dago egiteko gizarte-politika publikoek Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman atxikimenduaren teoriarik oinarritutako esku-hartzeak sustatzeari dagokionez (St-Laurent et al., 2022).

Hartara, zaintzaile-haur harremanaren kalitatea eta gurasotasun sentikorra sustatzeko esku-hartze programa goiztiarrak ezinbesteko ataza dira babesgabetasunarekiko arrisku-egoerei aurrea hartu, belaunaldi arteko haurrei emandako tratu txarraren transmisioa ekidin eta haurtzaroaren eta ondorengo gizartearen ongizateri dagokionez (Schelbe eta Geiger, 2017).

Are gehiago, Haur eta Nerabeen Babes-Sistemaren esku-hartze helburu goiztiarrak honakoak dira (Cassidy et al., 2016; Dozier eta Rutter, 2008): haurren garapen sozio-emozional egokirako beharrezkoak diren segurtasuna sustatzea, eta haien zaintzaileak ataza horietan trebatzea. Izan ere, guraso-haur harremana sendotzeko eta atxikimendu ziurak sustatzeko esku-hartzeen beharra dago (Lawler et al., 2011). Hartara, atxikimenduan oinarritutako eta ebidentzia erakutsi duten esku-hartze goiztiarrek proposatzen duten arreta-eredu integral horren ikusmira dira mundu mailan (Landers et al., 2018).

Esandako honengatik guztiagatik, atxikimenduaren teoria eta ikerketak eta ebidentzian oinarritutako esku-hartzeak Haur eta Nerabeen Babes-Sistemaren praktikaren ardatz garrantzitsuetako bat izan beharko lukete, bereziki, babesgabetasunarekiko arrisku-

egoerei aurrea hartu ahal izateko (van der Put et al., 2018) eta osasun arazo publiko bat diren babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran dauden kasuei aurrea hartzeko (De Paúl, 2009).

Dena dela, Espainia mailan, babesgabetasun-egoeran dauden hurrei eta beren familiei eskaintzen zaien arretan, oraindik ez dago atxikimenduaren teoriar oinarritutako esku-hartze goiztiar egituratu eta sistematizaturik, eta are gutxiago, efikazia probatu duenik.

3.1 DOKTORETZA-TESIAREN EKARPENAK/

Contributions of this Doctoral Thesis

Gauzak honela, doktoretza-tesi honen lehen ekarpen garrantzitsua honakoa da: **Espainia mailan, lehen aldiz, atxikimenduan oinarritutako eta eraginkortasuna erakutsi duen AVI programa doitzea eta bertsio espainiarraren bideragarritasuna eta egokitasuna aurkeztea**. Ildo honetan, Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman eskaintzen diren programa goiztiarren artean, babesgabetasunarekiko arrisku-egoerak murriztea du helburu, babes-faktoreak sustatuz.

Lehen aipatu bezala, alde batetik, garrantzitsua da babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran dauden hurrei eta beren familiei eskaintzen zaizkien programak ebidentzian oinarritutakoak izatea. Izan ere, ebidentzian oinarritutako programak modu sistematikoan antolatutako eta ondo bereizitako praktika-sorta bat dira. Programek zenbait ezaugarri jakin betetzen dituzte eta Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman aplikatzerako orduan, balio erantsi bat dute, ohizko esku-hartzeekin alderatuta, sistemaren eskuragarritasuna kontuan hartuta. Horien artean, esku-hartzearen espezifikotasuna, ebaluazioaren kalitatea, esku-hartzean inpaktu maila, ebidentzia maila jakin bat betetzen duten jakiteko eta onespena jasotzeko errebisio-lanak pasatu izana (Axford et al., 2012).

Beste alde batetik, programak atxikimenduan oinarritutakoak izateak balio erantsia ematen die Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman eskaintutako programa goiztiarrei, ez bakarrik atxikimendu ziurrak sustatzeak haurren garapen osasuntsuaren aurrekari garrantzitsu bat delako (Cassidy eta Shaver, 2016), baizik eta babesgabetasunarekiko arrisku-egoerak murrizteko edo hauei aurrea hartzeko erakutsi duten ahalmenagatik, eta horrek, haurren garapen sozio-emozionalen daukan inpaktu positiboagatik (Thompson, 2021; Thompson et al., 2022).

Azkenik, aipagarria da ikerketa hau SARS-CoV-2 birusak sortutako COVID-19 mundu-mailako osasun krisia edo “pandemia” gisa ezagutu den denboraldian zehar burutu dela eta egoera honek, bestelako ezusteko gertakizunek ez bezala, eragin zuzena izan duela babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran dauden hurrengan eta beren familiengan; gurasotasunean eta haurren garapen sozio-emozionalean (Feinberg et al., 2022). Hartara, krisi egoeretan ere, Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman, babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran dauden familiekin goiz esku-hartu ahal izateko, ebidentzian oinarritutako programak txertatzearen beharra aztertu da (Purnama eta Jansen, 2022; Weeland et al., 2021), baina, egun, estatu mailan ez da halako esku-hartzeen inplementaziorik burutu.

Ondorioz, ikerketa-lan honen bigarren ekarpen esanguratsua zera da: **mundu-mailako krisi egoeran (COVID-19) inplementatu den babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran dauden 0-5 urte bitarteko haurrak dituzten familiekin esku-hartzeko AVI programaren efektua aurkeztea.**

***Summary of the 3rd Chapter:**

“JUSTIFICATION OF THE DOCTORAL THESIS”

To conclude the first Theoretical Part, this 3rd Chapter aims to emphasize the effectiveness of evidence- and attachment-based interventions for promoting social and emotional development in children being abused or neglected. In addition, the need to develop a Spanish version of the AVI program (Moss et al., 2018) and to assess its effectiveness in the Basque Autonomous Community (northern Spain) is justified. The need is especially great during the COVID-19 pandemic, when the risk of child abuse and neglect has increased the most.

Early attachment-based interventions for the prevention of child abuse and neglect

Several studies have shown that evidence-based interventions aimed at improving parent-child attachment have positive effects on the promotion of socio-emotional development in early childhood (Moos et al., 2011; Steele et al., 2019) and on the reduction of internal and external symptoms (Groh & Lagtz, 2012, 2014). These studies found positive outcomes, both at the level of the parent-child relationship and at the level of child development. The effectiveness of attachment-based interventions, such as AVI, has been strongly supported empirically (Cyr et al., 2012). A recent Canadian study found that implementing a Parenting Capacity Assessment protocol based on an evidence- and attachment-based video-feedback intervention enabled social and health professionals to better predict child abuse or neglect (Cyr et al., 2015).

Although these results are promising, more studies are necessary to evaluate whether such evidence- and attachment-based interventions could also be effective in other countries with different child protection systems. In Spain, in particular, there is still no structured and systematized early intervention based on Attachment Theory as part of the care and protection offered to children at risk of abuse/neglect and their families.

Contributions of this Doctoral Thesis

I. The Spanish version of AVI: feasibility and acceptability

The first contribution of this Doctoral Thesis is to adapt the evidence- and attachment-based AVI intervention, for the first time, to the Spanish population. It aims to present the feasibility, acceptability, and initial outcome of the AVI for families at risk of child abuse and neglect in Spain.

As previously mentioned, it is important that the programs offered to children at risk of maltreatment and to their families are evidence-based. In fact, evidence-based interventions are a systematically organized and well-differentiated package of practices, which fulfill certain characteristics and have a benefit, compared to usual interventions applied to the child protection system. We underline those characteristics: the specificity of the intervention, the quality of the evaluation, the intervention's impact level, and the evidence-based nature of the intervention (Axford et al., 2012).

On the other hand, the fact that the programs are based on attachment gives added value to the programs offered by Child Protective Social Services, not only because the promotion of secure attachments is an important predictor for the healthy development of children (Cassidy and Shaver, 2016), but also because of their ability to reduce or prevent situations of child abuse and neglect or child maltreatment, thus promoting the socio-emotional development of children (Thompson, 2021; Thompson et al., 2022).

II. The effectiveness of the Spanish version of AVI in COVID-19 pandemics

It is noteworthy that this study was carried out during the period known as the global health crisis, or pandemic of the SARS-CoV-2 virus. Unlike other unforeseen events, this period had a direct impact on the children at risk of maltreatment and on their families (Feinberg et al., 2022).

Thus, even in crisis situations, the need to incorporate evidence-based programs into services for children and adolescents in order to be able to intervene early with families at risk of child abuse and neglect (Purnama & Jansen, 2022; Weeland et al., 2021) has been analyzed; in Spain, however, the implementation of programs that meet those criteria has not been yet carried out.

As a result, the second significant empirical contribution of this Doctoral Thesis is to present the effectiveness of the Spanish version of the AVI program with families (children aged 0-5 years) at risk of child abuse and neglect during the global crisis (COVID-19).


BIGARREN ZATIA (ZATI ENPIRIKOA)/

Second section (Applied section)

4

IKERKETA-HELBURUAK

RESEARCH OBJECTIVES



4. KAPITULUA. IKERKETA-HELBURUAK/

RESEARCH OBJECTIVES

Doktoretza-tesi honen helburuak honakoak dira:

(1) AVI programaren **bertsio espainiarra** egokitu, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Nerabeen Babes-Sistemaren erakusgarri den Udal Gizarte Zerbitzuetan inplementatu eta haren **bideragarritasun eta onargarritasunari buruzko ikerlan bat** burutu.

(2) AVI esku-hartze programa goiztiarra COVID-19 krisi garaian babes-faktoreak sustatzeko eraginkorra ote den aztertu. Hau da, gurasoen estres maila eta etxeko kaos maila murrizteaz gain, gurasoen eskuragarritasun emozionala zein funtzio erreflexiboa sustatzen ote dituen ebaluatu.

***Summary of the 4th Chapter:**

“RESEARCH OBJECTIVES”


The main objectives of this Doctoral Thesis are the following:

- 1) To adapt the Spanish version of the AVI program and to carry out a study assessing the feasibility and acceptability of the AVI in the Municipal Social Services as a reference of the Child and Adolescent Protection System of the Basque Autonomous Community.
- 2) To examine whether the AVI early intervention program is effective in promoting protective factors during the COVID-19 crisis. In other words, to evaluate if the AVI program reduces parental stress and household chaos, and fosters emotional availability and parental reflective functioning.

5

AVI PROGRAMAREN BERTSIO ESPAINIARRA: INPLEMENTAZIO-TESTUINGURUA

THE SPANISH VERSION OF
THE AVI PROGRAM:
IMPLEMENTATION CONTEXT



5. KAPITULUA. AVI PROGRAMAREN BERTSIO ESPAINIARRA: INPLEMENTAZIO-TESTUINGURUA/

THE SPANISH VERSION OF THE AVI PROGRAM: IMPLEMENTATION CONTEXT

5.1 AVI PROGRAMAREN INPLEMENTAZIO-TESTUINGURUA/

The implementation context of the AVI program

5.1.1 INPLIKATUTAKO ERAGILEAK ETA BAKOITZAREN FUNTZIOAK SARE-LANEAN/

The professionals involved and networking

Donostiako Udaletxearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) arteko hitzarmena 2019. urtean sortu zen, udal mailako Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman 0-5 urte bitarteko haurrak dituzten eta zaugarritasun edo arrisku egoeran dauden familiei AVI programa eskaintzeko asmoz, eta honek guraso-seme/alaben arteko harremanean duen eragina aztertzeko xedez.

Ordutik, COVID-19 krisi egoeran, HZ erakundearen eskutik jorratu dira esku-hartzeak familiekin, behin Gizarte-Zerbitzuetako kasu-arduradunek AVI programarako egokitasuna dutela uste duten familiei programa aurkeztu eta eskaini ondoren.

Hartara, kasu-arduraduna da familiekin batera AVI programaren esku-hartzea zuzendu eta koordinatzen duena; bai esku-hartzea hasi aurretiko prozesuan, esku-hartzea martxan dagoen bitartean, eta baita programa bukatu ondoren ere.

Dena den, AVI programa Udal mailako Gizarte-zerbitzuetan inplementatzeak baditu zenbait erronka. Horien artean, profesional askoren arteko koordinazio eraginkorra eta funtzioen definizioa eta bateragarritasuna bermatzea.

Erronka hori ahalik eta egokien atontze aldera, EAEn AVI programaren inplementazioan inplikatuta dagoen profesional-sarearen antolakuntza beharrezkoa da. Egun, AVI programa martxan jartze prozesuan, honako profesionalak hartzen dute parte:

1. Gizarte Ekintzako Saileko profesionalak (Donostiako Udalaren Prebentzio, Haurtzaro eta Familia Zerbitzua (PHFZ), esku-hartze goiztiarreko kasu arduradunak edo Udal Mailako Psikologo Komunitarioak (PK)); kasuen deribazio, akonpainamendu eta jarraipen prozeduretan dabiltzanak eta kasu-erreferenteak.
2. Donostiako Udaletxeko Programaren kudeatzailea.
3. HZ erakundeko Sustatuz programako koordinatzailea.
4. Esku-hartzearen trebakuntza prozesuan dabiltzan HZko hoge profesionalak/bideratzaileak.
5. Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) ebaluazio-prozeduraz eta gainbegiraketez arduratzen diren teknikariak.
6. UQAM (*Université du Québec à Montréal*) Unibertsitatean programaren jarraipena egiten duten profesionalak.

Zehazki, horietako bakoitzari jarraian aipatzen diren funtzioak egozten zaizkio sare-lana bideratze aldera:

1. Gizarte Ekintzako Saileko profesionalak:

- AVI programaren inklusio irizpideak betetzen dituzten familien identifikazioa egitea (Inklusio irizpideak aurrerago azaltzen dira).
- Ama/aitarekin elkarrizketa. Laguntza-zerbitzuen barne eskuragarri dagoen AVI programan parte-hartzeko onespina jasotzea.
- “*Screening* orrian” agertzen diren datuen jasotzea eta programaren kudeatzaileari informazioa helaraztea.
- Programaren kudeatzailearekin koordinatzea programaren gaineko zalantzak argitzeko.
- Behin programaren kudeatzailearen bitartez familia zehatz batekin esku-hartzea aurrera eramango duen bideratzailea esleitutakoan:
 - Familiarekin eta bideratzailearekin AVI programaren aurkezpena egitea eta parte-hartzeko baiezkotzea, baimen informatuko sinadura jasoz.
 - Esku-hartzea aplikatzen duen profesionalaren eskutik familiaren eboluzioaren gaineko informazioa jasotzea

2. Donostiako Udaletxeko programaren kudeatzailea

- Programaren kudeaketa orokorra:
 - Screening orriak jasotzea, antolatzea, sailkatzea, artxibatzea eta programarako kasuen zerrendak egitea.
 - Enpresarekin koordinatzea dedikazio-ehunekoak berrikusteko, ondoren programaren bideratzaileei kasuak esleitzeko.
 1. Kasuak kasu erreferenteari bideratzen laguntzea
 2. Screening orria jasotzea eta berrikustea.
 3. Screening-a aztertzea eta, beharrezkoa dela balioetsiz gero, informazioa kasu erreferentearekin kontrastatzea.
 4. Programa garatzen eta kasuak kudeatzen laguntzea, jarraibideak ematea eta erabakiak hartzea, kasu erreferenteari eta bideratzaileei sor dakizkieken gaietan.
 5. AVI programaren erakunde hornitzailearekin koordinatzea, behar izanez gero.
 6. Programaren jarraipen- eta/edo koordinazio-bileretan parte hartzea.
 7. Prozedura berrikustea eta eguneratzea.
 - Programako profesionalekin koordinatzea: hezitzaileak, kasu-arduradunak eta enpresako koordinatzailea:
 - ◇ Erakundeetako kudeatzaileen taldearekin:
 - Koordinazio-bileretara joatea, programari esleitutako kasuen bilakaerari eta kasuen sarrera-fluxuari buruzko informazioa emateko; baita programa ezartzean sortzen diren zailtasunei eta zalantzei aurre egiteko ere.
 - Egindako esleipenen eta programako baja-kasuen berri emango du.
 - Antzemandako zailtasunak konpontzeko ekintzak proposatuko ditu.
 - ◇ Kasuaren arduradunekin:
 - Screening orriari buruzko informazio gehigarria bilduko du.
 - Programako kasuen altak eta bajak gertatzen direnean.
 - Programari buruzko zalantzak argituko ditu.
 - ◇ Enpresetako koordinatzaileekin:
 - Programari buruzko zalantzak argitzeko
 - Profesionalen dedikazio-ehunekoak egunean izatea.
 - Programaren jarraipena eta koordinazioa egiteko bilerak egitea.

- ◇ Bideratzaileekin edo erratzaileekin:
 - Kasu bat esleitzeko unean.
 - Programari buruzko zalantzak argitzerakoan.
 - Familia batekin programa amaitzen den unean.
- Jarraipen-batzordean parte hartzen duten kudeatzaileen taldearen eta programan parte hartzen duten profesionalen arteko lotura izatea, eta batzorde horretan AVI programari buruz hartzen diren erabakiak helarazteko ardura izatea.
- Barne datu-base batean programaren kasuak erregistratzea eta kontrolatzea.
- Bideratzaileei programa behar bezala garatzeko behar duten dokumentazioa edo materiala ematea.
- Unibertsitatearekin koordinatzea eta bideratzeak jakinaraztea, kasu bakoitzari dagokion ebaluazioa egin ahal izateko AVI esku-hartzearen aurretik, bitartean eta ondoren, eta kasu bakoitzaren bilakaera orokorrari jarraipena egitea.

3. “Sustatuz” programako koordinatzailea

- Bideratzaileen dedikazio-ehunekoak kudeatzea.
- Kasuari esleitutako bideratzailea kudeatzaileari jakinaraztea.
- Programaren jarraipen/ koordinazio-bileretan parte hartzea.

4. Esku-hartzean dabilzan bideratzaileak

- Programaren kudeatzaileak egotzitako kasua jasotzea eta aztertzea.
- Kasuaren arduradunarekin koordinatzea, datozen lerrotan zerrendatzen diren elementuak egiteko:
 - Familiari buruzko informazio garrantzitsua trukitzea.
 - Programa aurkezteko eta parte hartzeko eta adostasun-akordioa edo baimen informatua sinatzeko familiarekin egiten den bileran parte-hartzea.
 - Programa amaitzeko familiarekin egiten den bileran parte-hartzea.
 - Kasuak hala eskatzen duenean, familiarekin bilera batean parte-hartzea, programaren garapenean sortzen ari diren gorabeherari aurre egiteko.
- Familiarekin AVI programako 8 saioak bideratzea.
- Programaren kudeatzailearekin koordinatzea:
 - Programaren bilakaeran konpondu beharreko edozein gorabeherari aurre egiteko.
 - Familia batek programan jarraitzearen komenigarritasunari edo egokitasunari buruz sortutako zalantzen inguruko iritzi teknikoa eskatzea.
- Kasuaren gaineko idatzoharrak egitea.
- Saio bakoitzaren ondoren txostenak egitea (0-8 txostenak) eta astero, gainbegiraketa hitzorduak baino lehen, Unibertsitateko gainbegiratzaileei bidaltzea, bideo/grabaketekin batera. Txostenak eta bideograbaketak *EHU Box* plataformara igoko dira datuen babesa bermatzeko.

- AVI programaren ebaluazio orokorra.
- Eskuragarritasun emozionalaren ebaluazioa; kasuz kasu.
- Saio bakoitzaren ondoren, banakako eta asteko gainbegiraketak egitea.
- AVIaren aplikazioa finkatzea eta homogeneousatzea (gaikako eztabaidak, materialak, jarduerak, kasuen ikuskapena).
- Talde-ikuskapenak.
- Edukiontzia eta datu-fluxua maneiatzea, kudeatzea eta erabiltzea EHU Box plataformaren bidez.
- UQAM Unibertsitatearekin harremanean, programaren kalitatea bermatzea.

6. UQAM Unibertsitatea

- Bideratzaileei formakuntza.
- Euskal Herriko Unibertsitatearekin programaren gainbegiraketa orokorra.
- Euskal Herriko Unibertsitatearekin ikerketa-proiektuetan aritzea.

5.1.2 LANKIDETZA-ORGANIGRAMA/

Coworking model

Jarraian txertatzen den grafikoan ikus daitekeen legez, eta aurreko atalean sakondu den informazioa kontuan hartuta, AVI programa sare-lanean osatutako lanaren erakusgarri da. Gauzak honela, programaren implementazioa hainbat eragile eta pertsonen sortutako eta zaindutako lanaren emaitza da, eta horiek guztiek zirkulu formako kudeaketa eta lanaren bidez aberastu dute AVI programa.



Irudia 1.


Sare-lana eta zirkulu formako kudeaketaren erakusgarri den irudia

5.1.3 LANKIDETZA-FLUJOGRAMA ETA INFORMAZIO HARTUEMANA/

Coworking flow diagram and transmission of the information

Instituzio, erakunde eta profesional bakoitzaren funtzio eta lan egiteko moduez edo ikuspegiak gain, programaren gaineko informazio fluxu arautuak ezinbestekoak izan dira, implementazio-prozedura eraginkorra bermatzeko. Hartara, honako fluxu-diagraman ikus daiteke informazio konplexu guztiaren erabilera nola kudeatu den:

AVI PROGRAMAREN FLUXU DIAGRAMA



Irudia 2.

AVI programaren fluxu diagrama

Jarraian, esku-hartze prozesuko ekintza horietako bakoitzean eragile desberdinen ateko informazio hartu-emanaren azaltzen da:

Taula 4.

Ekintzen eta informazio hartu-emanaren azalpena

EKINTZEN ETA INFORMAZIO HARTU-EMANAREN AZALPENA			
Prozedura		Kudeatzailea	Deskribapena
Zk.	Ekintzak		
1	Familiak artatzea eta programa azaltzea	Gizarte-Zerbitzuetako kasu arduraduna	<ul style="list-style-type: none">• Kasu-arduradunak <i>jakinarazpena</i> batu eta programa-kudeatzaileari bidaltzen dio posta elektronikoko bidez.• Kanpo-jakinarazpena jasoz gero, kasu arduraduna familiarekin jartzen da harremanetan. Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman kasua ezaguna izanez gero ere, kasu-arduraduna familiarekin batzen da.• Familiaren beharrak kontuan hartuta edo familiaren nahia kontuan hartuta, familiari AVI programaren gaineko informazioa helarazten dio (helburuak, iraupena, ebaluazio-prozesua eta esku-hartzearen oinarriak).• Familiak bere osotasunean (ebaluazioa eta esku-hartzea) parte-hartzeko baiezkoa emanez gero, honek, <i>baimen informatua</i> sinatzen du.• Ebaluazioari dagokionez, Unibertsitateko teknikariak aurkezten dira eta ebaluazio prozesua egiteko nork deituko dien argitzen zaio familiari.• Ekintza hauek Gizarte-Zerbitzuetako barne-erregistrarako datu baseetan erregistratuko da.

2	Kasuaren ebaluazio orokorra	Gizarte-Zerbitzuetako kasu-erreferentea eta programa-kudeatzailea	<ul style="list-style-type: none"> • Kasu erreferenteak “<i>Screening orria</i>” betetzen du, familiaren datu orokorrekin. • <i>Screening orria</i> eta <i>baimen informatua</i> Programaren kudeatzaileari bidaltzen dizkio, posta elektronikoko bidez. • Programaren kudeatzaileak dokumentu biak Unibertsitatera bidaltzen ditu, posta elektronikoko bidez.
3	Hasierako ebaluazioa	Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)	<ul style="list-style-type: none"> • Unibertsitatean, <i>Screening orria</i> eta <i>baimen informatua</i> jaso dituela ziurtatzeko, posta elektronikoko bat bidaltzen dio Programa-kudeatzaileari. Posta elektronikoko horretan, kasu berri horren egoera esperimentalak helarazten dio Programa-kudeatzaileari (esperimentala edo kontrola). Posta elektronikoko horren izenburua honakoa izango da: AVI-Zk. Kontrol taldea/ talde esperimentala-“Hasierako ebaluazioa”. • Unibertsitatea, aste beteko epean, behin programako kudeatzailearen onespina jasota, familiarekin harremanetan jarri, dagokion ebaluazio-prozedura azaldu eta posta elektronikoko bidez hasierako ebaluazioa osatzen duten galdetegiak helaraziko dizkio, “<i>Encuesta fácil</i>” plataformatik bidalitako esteka baten bitartez. Galdetegi horren iraupena 40 minutu ingurukoa dela estimatzen da. • Kasuaren egoera esperimentala kontuan hartuta, honako ebaluazio-prozedura ibilbideak aktibatuko lirateke: <ul style="list-style-type: none"> • Talde esperimentala: familiak programa hasi orduko (D.1), programa bukatu ondoren (D.2), eta bukatu eta hiru hilabetera (D.3) galdetegiak beteko dituzte. Behin guraso parte-hartzaileak ebaluazioa bete duenean, Unibertsitateak programa-kudeatzaileari posta elektronikoko bitartez

			<p>adieraziko dio familia esku-hartzean ahal bezain azkar hasteko prest dagoela, honako izenburuarekin: AVI-Zk. Esperimentala-“Hasierako ebaluazioa bukatuta”</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kontrol taldea: familiak lehenengo ebaluazioa (D.1) bete ondoren, zortzi aste itxarongo ditu. Ondoren, bederatzigarren astean, bigarren ebaluazioa beteko du (D.2). Talde honek ez du hirugarren ebaluazio txandarik beteko. Behin familiak lehenengo ebaluazioa beteta duenean, Unibertsitateak programa-kudeatzaileari mezu bat helaraziko dio posta elektronikoa bitartez, honako izenburuarekin: AVI-Zk.Kontrola-“Hasierako ebaluazioa bukatuta” eta kasuak 8 asteko itxaronaldia egingo duela adieraziz. Behin denbora hori iraganda, eta familiak bigarren ebaluazioa (D.2) bukatuta duenean, Unibertsitateak bigarren mezu bat bidaliko du esku-hartzean parte-hartzeko prest dagoela adieraziz. Honakoa litzateke posta elektronikoa mezua: AVI-Zk.Kontrola-“Itxaronaldia bukatuta”.
4	Esku-hartzearen aktibazioa	Programa-kudeatzailea eta “Sustatz”eko koordinatzailea	<ul style="list-style-type: none"> • “Sustatz”eko koordinatzaileak bideratzaile bat esleitzen dio kasuari, eta programa-kudeatzaileari helarazten dio posta elektronikoa bidez. • Programa-kudeatzaileak bideratzaileari esku-hartzea hasteko prest dagoela helarazten dio. • Bideratzailea Unibertsitatearekin jartzen da harremanetan esku-hartzea hasiko duela jakinarazteko, eta bakarkako gainbegiraketak antolatzeke. Unibertsitatean, gainbegiraketak egiten dituzten bi teknikariek kasuen banaketa ausazkoa egin ondoren, kasua nork gainbegiratu duen helarazten zaio bideratzaileari.

			<ul style="list-style-type: none"> • Bideratzailea, kasu-erreferentea eta familia Gizarte-Zerbitzuetan biltzen dira esku-hartzearen aurkezpena egiteko • Ekintza hauek Gizarte-Zerbitzuetako barne-erregistrarako datu baseetan erregistratuko da.
Lehenengo ikerketa enpirikoan azaldu bezala, AVIa (Moss et al., 2018) jaso duten familien gurasoek jokabide sentikorragoak izan dituzte postestean, eraginkorragoak izan dira haurren beharrianak interpretatzerako orduan, laguntza eta egitura egokiagoa eman diete haurrei, eta etsaitasun eta intrusibotasun gutxiago erakutsi dute seme-alabekin harremanean. Bestalde, haurrei dagokionez, gurasoarekiko inplikazio handiagoa erakutsi dute, emozioen erregulazio hobea izan dute eta gurasoarekin elkarreragin edo elkarrekintza gehiago izan dute; hau da, sarriago gonbidatzen izan dituzte gurasoak jolasera.

Dena den, zaintzailearen eta haurraren arteko harremanaren kalitatea ebaluatzerako orduan Eskuragarritasun Emozionalari dagozkion zenbait faktore hobetzen dela aurkitu den arren, Eskuragarritasun Emozional baxua zuten 18 diadetatik, 5 diadek bakarrik lortu dute Eskuragarritasun Emozional altua AVIa (Moss et al., 2018) jaso ondoren. Seigarren kapituluan azaldu den gisan, baliteke familia hauek Eskuragarritasun Emozionalaren ebaluazio orokorrean eskuragarritasun emozional alturik lortu ez izana, gurasotasunean duten zaugarritasuna dela eta. Emaitza honek, babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran dauden familien gurasotasuna nola eta nondik ebaluatzen dugun hausnartzera garamatza. Izan ere, izan daiteke familia horiek ebaluatzerako orduan zenbait aldagai kontrolatu eta ebaluatu ez izana, hala nola, familiaren maila sozioekonomikoa, gurasoen (helduen) atxikimendu estiloa, haien trauma historia, haurren eta gurasoen haurra izandako historia perinatale, haurrei emandako tratu txarren “belaunaldiarteko oinordetza” edota haurraren zaintzan duten laguntza soziala edo babes-maila.

Literaturan, “maternar en precariedad” terminoa erabili da; amatasun prekario edo ezegonkor gisa itzul daitekeena, babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran dauden gurasoen zaugarritasunak, hauen gurasotasuna baldintzatzen dituen elementu

bereizgarriak dituela azaltzeko; ez bakarrik baldintza ekonomiko, fisiko, instrumental eta materialei (ondasun ekonomikoei eta fisikoei) dagokionez, baizik eta zaintza-gaitasuna baldintzatzen duten baldintza psikologikoekin (ondasun emozionalekin) lotura dutenak eta belaunaldiz belaunaldi helarazi daitezkeenak (Bifulco et al., 2002). Beste hitz batzuekin esanda, babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran ez dagoen familia batekin alderatuz, zailagoa izango da bere haurrarekin zaintza sentikorra izatea eta haren garapen sozio-emozional egokia bermatzen duen gurasotasuna izatea kasu hauetan: zaintza sentikorraren eredurik izan ez badu, historia traumatikoa izan duenak, haurra zenean babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran egon bada, atxikimendu estilo ez-ziurra badu, lan jardunagatik ama/aita jarduna asegabe egin behar duenak, haurra norekin utzi ez duelako, etab.. Ildo berean, zailagoa izango zaio ondasun ekonomiko eta fisiko ezegonkorrak edo prekarioak dituen gurasoari zaintza sentikorrean eta ondasun emozionalean arreta jartzea, oinarrizko beharrianak asebetetzea bere lehentasuna baldin bada (Maslow, 1991; Maslow, 2016).

Esandako guzti hau kontuan hartuta, Gizarte-Zerbitzuetan, eta konkretuki, Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman, ebidentzian oinarritutako praktika-mugimenduak hobekuntza nabarmenak ekarri ditu osasunaren eta haurren babesaren arloko tratamendu psikologikoen aplikazioan nahiz eta Espainiako erakundeek zailtasun ugari dituzte horrelako programak sustatzeko ahaleginetan, aplikazioak aldaketa estruktural nabarmenak eskatzen dituelako Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sisteman (De Paúl et al., 2015).

Hala eta guztiz ere, kasu honetan, AVI programaren bertsio espainiarraren bideragarritasuna eta onargarritasuna lortu dira, Haur eta Nerabeak Babesteko Sistema den esparru berri batean, ingurune horren espezifikotasunera egokitzen dena, familiak eta esku-hartzen duten profesionalak edo bideratzaileak, barne. Kasu honetan, AVI esku-hartzea (Moss et al., 2018) behar bezala egokitu aurretik, haren bideragarritasuna eta onargarritasuna ebaluatu dira, eta egokitzapenak bat etorri dira esparru psikosozialaren edo esparru aplikatuaren beharrekin, esku-hartzearen oinarriak bere horretan mantenduz.

Horregatik guztiagatik, esan daiteke, doktoretza-tesi honetan aurkeztu den AVI programa goiztiarraren bertsio espainiarra bideragarria eta onargarria dela Haur eta Nerabeak Babesteko Sistema publikoan erabili ahal izateko; belaunaldiz-belaunaldi gertatzen diren

babesgabetasunarekiko arrisku-egoeren transmisio kateak hausteko; atxikimendu ziurrean oinarritutako kalitatezko zaintzaile-haur (0-5 urte) harremanak garatzeko; eta hurrei emandako tratu txarrei edo babesgabetasun egoera larriagoei aurrea hartzeko. Azkenik, ekarpen gehigarri gisa, aipagarria da, programaren bertsio honen aplikazio edo implementazio-gida eta gaitegia euskaratuak izan direla Euskal Autonomia Erkidegoko edozein lurraldetan euskaraz aplikatu ahal izateko.

- **AVI PROGRAMAREN ERAGINKORTASUNA COVID-19 KRISI GARAIAN/**

The effectiveness of the Spanish version of AVI in COVID-19 pandemics

Zortzigarren kapituluan aurkeztutako ikerketa honen helburua AVI programak (Moss et al., 2018) gurasoen estresean, etxeko kaos mailan, diaden Eskuragarritasun Emozional eta gurasoen gaitasun erreflexiboan duen eragina aztertzea izan da, COVID-19 pandemia edo krisi garaian, babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran zegoen familia talde batean. Kontrol taldearekin alderatuta, AVIa jasotako gurasoek emozioen eskuragarritasun emozional eta atxikimendu-ziurtasun handiagoa erakutsi zuten haurraren egoera mentalei dagokionez, baita etxeko kaos maila txikiagoa ere. Hala ere, gurasoen estres mailari dagokionez, ez zen talde bien arteko alderik hauteman. Bestalde, AVI taldeko haurrek Eskuragarritasun Emozional handiagoa zuten postest egoeran kontrol taldekoek baino.

Hau da, Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman emaitza positiboak erakutsi dituen AVI programaren doikuntza egin eta haren bideragarritasun eta onargarritasuna lortuta, COVID-19 krisialdian ere, programak, espero ziren emaitzak izan ditu eta baliagarria izan da babes-faktoreak sustatzeko.

Jarraian, aurkitutako emaitzak aldagaiz aldagai aztertuko dira: gurasoen estres maila, etxeko kaos maila, gurasoek haurren egoera mentalen gaineko gaitasun erreflexiboa eta diadaren eskuragarritasun emozionala. Lehenik eta behin, gurasoen estres maila AVI programa aplikatu ondoren, jaitsi ez izana, ez da harritzekoa izan. Bada, beste ikerketa batzuetan AVIan gisan video feedbacka aplikatutako esku-hartze goiztiarrek ere ez dute estres maila gutxiagotzean eragin (Ohara et al., 2019). Hare gehiago, AVI programa aplikatuta ere, ikerketan ez zuten gurasoen estres mailan murrizketarik aurkitu (Dubois-Comtois et al., 2017).

Kapitulu horri dagokion eztabaidan aipatu bezala, baliteke, gurasoek zailtasunak izatea seme-alaben ongizateari etengabeko arreta eskaintzerakoan edo guraso-rola estresagarria dela ulertzean. Pentsatzekoa da, halaber, familiek ez dietela bideratzaileei estres hori mahai gaineratu modu zuzenagoan landu ahal izateko, gurasotasunaren beraren presio soziala dela eta, edota gurasotasunak dakarren estresa, modu naturalean onartu eta kudeatu beharko luketenaren ustean, egunerokotasunean gurasotasunak eragin diezaieken estresa aitortzeak, “guraso txar” bezala agertzera daramatzatelako.

Bestalde, begirada zabalago batetik, esango genuke, programak gurasotasun sentikorrari asoziatutako aldagai fokaletan jartzen duela indarra, eta ez beste familia-egoera, gurasotasunarekin zerikusi gutxi duten helduen egoera pertsonal edo kontestuko aldagaietan. Ondorioz, neurri batean, gurasoen estres maila aldagai arrotz bat izan daiteke, zeina oso aldakorra eta batzuetan ezustekoa den eta, hartara, AVI esku hartzeak ezin duen modu zuzenean edo osotasunean murriztu.

Bigarren aztergai dugun aldagaiari dagokionez, ordea, etxeko kaos mailari hain zuzen, kontrakoa gertatzen da. Hau da, esku hartzea aplikatu ondoren, kaos maila murriztu egiten da. Eraitza horrek, zera adierazten du: COVID-19 pandemiaren testuingurua gorabehera, AVIk lagundu ziela gurasoei familia-ingurunea edo etxeko kaosa antolatzen: familian errutina egituratuagoak lortu ahal izan zituzten, nahasmen gutxiago zuten eta, eguneroko jardueretan aurre ikusgarritasun handiagoa.

Hori, neurri batean, etxeko kaosaren murrizketa eta guraso-praktika positiboagoak garatu izanaren arteko erlazioak (Andeweg et al., 2021); eta, alderantziz, etxeko kaos-maila altua gurasotasun-arazo handiagoekin lotuta egoteak azaldu dezake (Andeweg et al., 2021; Coldwell et al., 2006). Izan ere, AVI programak (Moss et al., 2018) gurasoei haurren atxikimendu-sistemaren antolaketaren laguntzan eraginkortasuna erakutsi du, gurasoen jokabide sentikorraren bitartez (hau da, goxotasuna, aurreikusgarria izatea eta jarrera harkorra) (Moss et al., 2011). Aipatutakoaz gain, baliteke, gurasoek zenbat eta gehiago ulertu haurren beharrak (mentalizazio gaitasuna) eta haiei modu aiproposean erantzuten (modu sentikor, goxo, aurreikusgarri eta harkorrean), zenbat eta gurasoak ahaldunduago sentitu beren gurasotasunean eta ongizatea sentitu guraso-haur atxikimendu harremaren kalitatea hobetu dela, familia-armonia hori nolabait etxean proiektatzea. Dena den, hipotesi hau konfirmatu edo ezeztatzeko, ikerketan gehiago sakondu beharko litzateke, eta aldagaien arteko harremanak tentuz aztertu.

Azkenik, aipatzekoa da, etxeko kaos mailak haurren portaera-arazoetan eta hizkuntzaren garapenean izandako atzerapenetan duen papera kontuan hartuta (Martin et al., 2012; Mills-Koonce et al., 2016), aldagai honetan lortutako emaitza bereziki pozgarria dela.

Hirugarren aldagaiari helduta, gurasoen gaitasun erreflexiboari dagokionez, emaitzak bereziki interesgarriak izan dira. Izan ere, AVI taldeko gurasoek, haurren egoera mentalak ulertu eta interpretatzerako orduan, “ziurtasun” faktoreari dagokionez, hobekuntza lortu zuten esku-hartzean parte hartu ondoren. Beste era batera esanda, beren aburuz, haurren beharrak hobeto ulertu eta interpretatzen zekiten esku-hartzearen ondoren, hipermentalizazioa edo gehiegizko ustezko gaitasun erreflexiboa izan gabe. Hori, gure ustez, AVI programak (Moss et al., 2018) esku-hartzean zehar, bideo-feedbackean gurasoen portaeretan arreta jartzeaz gain, haien propioen eta seme-alaben portaera eta pentsamenduak beste era batera ikustera, pentsatzera eta hausnartzera bideratzen dituelako izan daiteke. Bestalde, zenbaitetan, familiek proposatuta, bideratzaileek AVI programaren esku-hartze oinarriak jarraituz, guraso-haurraren arteko krisi egoeretan mentalizazio gaitasuna galtzearen zergati, ondorio eta interpretazio eta jokabideen inguruan “elkarrekin pentsatze” ariketak egiteak, baliteke, gurasoei “gaitasuna” eta “guraso behar bezain ona” izatearen eta sentitzearen pertzepzioa handiagotzea.

Gainera, interesgarria da aipatzea, ikerlan honetan, babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran dauden familiak artatu direnez eta ez haurrei emandako tratu txar larriagoak dituzten familiak, hauen hasieratik beren haurren egoera mentalen gaineko “interesa eta jakin-mina” altuak izan direla pretest neurrian eta, ondorioz, faktore horretan talde bien (kontrola eta AVI taldea edo esperimental) tarteko aldaketarik aurkitu ez izana, esku-hartze goiztiarra izateari eta familien profilari egozten zaizkiola.

Azkenik, Eskuragarritasun Emozionalaren (Biringen et al., 2014) bitartez neurtu den aldagaiari dagokionez, kontrol taldeko guraso eta seme-alabekin alderatuta, AVIa jaso zuten gurasoek posttest neurketan pretestan baino jokabide sentikorragoak garatu zituzten, eraginkorragoak ziren gida eta sostengu izaten, seme-alaben ikaskuntza prozesuan akonpainamendu egituratuagoa eskainiz, eta ez zuten horrenbesteko etsaitasun eta intsumisiorik aurkeztu seme-alabekin harremanak izaterako orduan. Era berean, AVI taldeko hurrek ere Eskuragarritasun Emozional handiagoa izan zuten postestean, gurasoekiko inplikazioari eta harrerari edo erantzuteko gaitasunari dagokienez puntuazio altuagoak zituzten, emozioak erregulatzeko estrategia orokor hobekak adierazten zituzten,

gurasoekin elkarreraginean aritzen ziren bitartean, eta gurasoekiko harremanarekiko konpromiso handiagoa zuten. Hau da, bai guraso zein haurrengan; diadaren elkarrekikotasunean, aldaketa positiboa eragin zen esku-hartzearen inplementazioaren ondoren.

Azaldutako emaitza horiek ondorio garrantzitsuak dituzte babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran dauden familientzat. Esan daiteke, AVIan parte hartetik eratorritako emaitzek inpaktu positiboa izan dutela zaintzaile-haur arteko harreman emozional osasungarrian, haurren atxikimendu ziurra areagotzean eta garapen sozio-emozionala indartzerakoan (Biringen et al., 2014). Baita haurren tratu txarren eta arduragabekeria edo zabarkeriaren aurkako babes-faktore gisa ere (Fuchs et al., 2015; Kluczniok et al., 2016).

IKERKETA-MUGAK/

Research limitations

Doktoretza-tesi honetan aurkeztutako lanak baditu zenbait muga, zati praktikoan aurkeztutako emaitzen ebaluazioari dagokionez. Lehenik eta behin, erabilitako laginaren tamaina txikia da egindako bi lan enpirikoetan, eta horrek potentzia estatistikoa eta lortutako emaitzak orokortzeko, inferentziak egiteko eta erreplikatzeko adierazgarritasuna murriztu egiten ditu. Beraz, ondorioak tentuz orokortu behar direla uste dugu.

Bigarrenik, gurasoen funtzio erreflexiboaren aldagaiaren inguruan, esan beharra dago datuak aztertzerako orduan prementalizazio-aldagaia erabili ezin izanak aldagai horren inguruko informazioa ezin izan dela osoa izan, eta kontuan izanik prementalizazioak funtsezko zeregina izan dezakeela haurren tratu txarren belaunaldien arteko transmisioan (Condon et al., 2021). Etorkizuneko azterlanetan komenigarria litzateke AVI esku-hartze programa goiztiarrak gurasoen mentalizazio gaitasunean duen eragina bere osotasunean aztertzea; baita horrek parte-hartzen duten haurrengan duen eragina ere.

Gainera, aipatzekoa da, azterlan honen hirugarren muga bat gurasoen funtzio erreflexiboa neurtzeko neurri auto-informatu bat erabili izana dela, eta horrek, aldagaia neurtzerako orduan, joera okerra islatu dezakeela. Ondorioz, hurrengo ikerketetan behaketa-neurriak erabiltzea komeniko litzateke, hala nola, *Parent Development Interview* (PDI; Slade et al., 2004).

Antzera gertatzen da Eskuragarritasun Emozionala (Biringen et al., 2014) behaketa neurri bakar batez soilik neurtzearekin. Izan ere, nahiz eta tresna honen bitartez lortutako informazioa oso baliagarria eta zehatza den, beste tresna auto-informatu batzuekin korrelazio erlazioen esangura maila jokoan jar daiteke, eta ondorioz, interesgarria litzateke, aldagai hori bera behaketa profesional kontrastatuaz gain, tresna auto-informatu baten bitartez neurtzea.

Horretaz gain, bostgarren muga bat litzateke sexuen parte-hartzearen desoreka. Hau da, guraso parte-hartzaileen gehiengoa amak dira, eta seme-alaben kasuan ordea, gehiengoa mutilak. Desoreka hori argi islatu nahi izan da zati praktikoko bigarren ikerketa enpirikoan, ezin izan baita ezagutu AVIak sexuaren araberrako zer eragin duen. Honek, doktoretza-tesi honetatik haratago datozen ikerketei begira, genero ikuspegian oinarritutako hausnarketa baten beharra dakar. Izan ere, Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman ere, nabarmena da zaintza lanak ez daudela modu orekatu batean banatuta genero-rolak direla eta. Horrela, babesgabetasun arriskuan aurkitzen diren familietan ere, seme-alaben zaintzaz arduratzen den gehiengoa emakumezkoa da (ama). Honenbestez, aurrera begira interesgarria litzate Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman, zaintzaren inguruko atazei dagokionean, gehienbat, emakumezkoak artatzeko joera posibleaz eta horren zergatiaz hausnartzea. Ildo berean, haurren ongizateari dagokionean, mutilen portaera, jarrera eta ongizate emozional falta identifikatzeko joera handiagoa izatea neskekin alderatuta eta, ondorioz, hauekin detekzio goiztiar eta prebentzio-lana egiteko zailtasun posibleaz pentsatzea; baita hau guzti hau orekatzeko erronka aztertzea ere.

Bestalde, doktoretza-tesi honetan ez dira Eskuragarritasun Emozionalaren aldagaiak gain, haurren ongizate sozio-emozionalarekin lotutako beste aldagai batzuk neurtu eta aurkeztu. Beraz, interesgarria litzateke haurren atxikimendua edo arazo sozio-emozionalen adierazleak neurtu eta aldagaien arteko harremanak aztertzea. Ildo berean, komenigarria litzateke gurasoen gurasotasunean eragina izan dezaketen beste aldagai bitartekari eta moderatzaile batzuk aztertzea, hala nola, gurasoen atxikimendu estiloa, gurasoen tratu txarren historia, edo gurasoen trauma-historia aldagaiak.

Azkenik, epe luzeko diseinu longitudinala erabilitako ikerketak egiteak aukera emango luke doktoretza-tesi honetan lortutako emaitzen kongruentzia-sendotasuna probatzeko eta emaitzetan sakontzeko.

ETORKIZUNeko IKERKETA-LERROAK/

Prospects for future research

Azken hamar urteetan Haur eta Nerabeen babes-sistemak aldaketa nabariak bizi izan ditu: gabezietan oinarritutako gizarte-politikak sustatzetik, garapenaren eredu baterantz; estrategia selektibo eta bakanetatik, ikusmira unibertsalago baterantz; eta, haurrak babestu behararen ideiatik, haurren ongizate eredu baterantz (Kammerman et al., 2009). Hartara, gurasotasun sentikorra sustatzen duen eta haurren (0-5 urte) ongizate sozio-emozionala garatzen laguntzen duen AVI esku-hartze programa goiztiarrari lotutako zenbait proposamen luzatuko hurrengo lerroetan.

Aurretik esan beharra dago, nahiz eta ez den doktoretza-tesi honetan aurkeztu, aurrerago proposatuko diren ikerketa-lerro batzuk burutu ahal izateko jada jasotzen hasi direla beste zenbait aldagai, etorkizun batean datu garrantzitsuak eman ditzaketenak, eta lagina handituta, analisi estatistiko desberdinak egitea baimenduko luketenak. Esate baterako, aldi perinatalera zuzendutako zenbait aldagai gako, zaintzaile-haur (0-5 urte) harremana baldintzatu dezaketenak (biolentzia obstetrikoa, atxikimendu goiztiarra, erditu ondorengo depresioa edo babes soziala), helduen atxikimendua, helduen trauma historia, etab. eta prozesuko ebaluazioari dagozkion beste batzuk. Adibidez, familien esku-hartzearen bidezko aldaketarekiko motibazioa.

Etorkizuneko ikerketa-lerroei dagokionez, doktoretza-tesi honetan egin diren ekarpenez haratago, honako proposamenak interesgarriak lirateke. Ikerketa lerro berritzaile horiek, aplikazio-eremuaren, esku-hartze metodologiaren, esku-hartzearen beraren eta nori zuzenduta dagoen edo profilaren arabera multzokatu dira. Bukatzeko, zeharkako eragina duten proposamenak aurkezten dira.

Proposamen horietako batzuk, Espainiatik kanpo probatu izan dira eta interesgarria litzateke gure Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman aplikatu ahal izatea.

Aplikazio eremuaren arabera proposamena

- **Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman, harrera familien ebaluazio prozesuetan**

Hurrek harrera-ingurunera ekartzen dituzten atxikimendu-arazoak eta harrerako gurasoen atxikimenduaren irudikapenek harrerako haurren garapenean duten zeregina kontuan hartuta (Dozier, et al., 2001) atxikimenduan oinarritutako esku-hartzeen erabilera, atxikimenduaren ebaluazioa argitzeko erabiltzea, profesionalei, familien atxikimenduaren irudikapenak hobeto ulertzen laguntzeko (Dubois-Comtois et al., 2022).

- **Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman, adin txikikoak babesteko neurriak hartzerako orduan**

Babesgabetasun-egoera larri eta oso larrien kasuan, adin-txikikoan babesteko neurriak hartzerako orduan, atxikimenduan oinarritutako esku-hartzeak txertatzeak, gurasotasuna hobetzeko potentziala ebaluatzeko aukera erraztuko luke (Cyr et al., 2022). Hau da, Euskal Herria mailan, BALORA tresnan (Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila, 2017) egiten den babesgabetasun-egoeraren iragarpenaz edo pronostikoaz gain, atxikimenduan oinarritutako zortzi saioko esku-hartze labur honek, guraso-haur harremanaren gaineko eta gurasoen gurasotasuna jorrazteko gaitasunaren gaineko pronostikoa zehazten lagunduko luke.

- **Haur eta Nerabeen Babes-Sistemaz haratago, beste zaintza-sistema batzuetan, programaren eskaintza**

Hala nola, osasun arloan, Osakidetza Sarean; pediatria sarean, emaginen bitartez, erizaintza pediatrikoan, ama izan diren osasun mental larrien unitateetan, neonatologian, edo Zaintza Intentsiboko Unitatean dauden haur goiztiarretan, besteak beste. Edota, Hezkuntza Sisteman; haur hezkuntzan edo hezkuntza berezian; Arreta Goiztiarreko Programan; behar bereziekin edo profil jakinekin lan egiten duten Erakundeetan edo Familia-erakundeetan.

Bestalde, badira zenbait proposamen, egun oraindik AVI esku-hartzean probatu ez direnak. Hala nola, jarraian zehazten direnak:

Esku-hartze metodologiaren arabeko proposamena

- *Telehealth*

AVI esku-hartze programa online bideratu ahal izatearen proposamenak, familian erdigunean jartzea eta krisi egoera edo aurrez-aurre jardutea jokoan jartzen duten egoerak (familien bizitokiaren distantzia, profesionalen mugikortasun arazoak, gaixotasunak, etab.), ekarriko luke. Hartara, interesgarria litzateke esku-hartze programa metodologia berritzaileak erabiliz aplikatzea programaren fideltasuna mantenduz, eta horren eragina aztertzea, atxikimenduan eta probetan oinarritutako beste esku-hartze programek probatu duten gisan (Roben et al., 2022).

AVI esku-hartzearen beraren gaineko proposamena

- Esku-hartzeko saioetan mentalizazioaren osagai konkrituak txertatzea modu formal eta sistematizatuan. Hau da, gurasoen gaitasun erreflexiboa, modu esplizituagoan eta modu homogeneoan familia guztiekin lantzea interesgarria litzakete.
- Aldagaien arteko harreman konplexuagoa aztertzea. Esaterako, gurasoen atxikimendu estiloaren edo haurtzaroko traumak izatearen efektu moderatzailea AVIak duen inpaktuan.
- Esku-hartzea familien etxeetan edo kontestu naturaletan egiteaz gain, jolas-proposamenak familia-errutinekin lotura izatea, horrek, epe ertain-laburrean, errutinekin zerikusirik ez duten jarduerak proposatzearekin alderatuta, suposatu dezakeen aldaketa aztertu ahal izateko (Dunst eta Trivette, 1995). Izan ere, arreta goiztiarreko esku-hartzeetan ikusi da gurasotasuna hobetzeko, familiak egunerokotasuneko errutinetan daukala aukera behin eta berriro ikasitakoa praktikan jarri eta haurrarekin duen hartu-emana hobetzeko (Division for Early Childhood, 2014; McWilliam, 2010).

Honekin lotuta, AVI programaren saio bakoitzaren ostean familiarekin astean zehar egitekoren bat aplikatzeko konpromezua hartzen du; horrek, saioan errefortzatutako portaera eta jarrerak errepikatu eta beste kontestu edo egoera batzuetan probatzeko aukera eskaintzen baitu, eta ondorioz, ikaskuntza errotzeko aukera ematen baitu. Dena den, egun AVI programaren bertsio espainiarrean ez da horren jarraipen sistematiko esturik egin, eta interesgarria litzateke esku-hartzearen elementu hori

indartzea familiarekin elkarlan estuan, “familian zentratutako praktiken” bitartez (Dunst eta Espe-Scherwindt, 2016; Escorcía eta Rodríguez, 2019; Espe-Scherwindt, 2008; García-Sánchez et al., 2018).

Zuzenduta dagoen profilararen araberrako proposamena

- **Etapa perinatalean AVI eskaintzea**

Interesgarria litzateke AVIn parte hartzea 0-5 urte bitarteko haurrak dituzten familiei eskaintzeaz gain, haurdun dauden emakumei ere proposatzea eta hurrek 0-2 urte eduki arte mantentzea. Izan ere, prebentzioaren ikuspegitik, babesgabetasunarekiko arrisku-egoeran dauden familiak zenbat eta lehenago artatu, orduan eta familiak babes-faktoreekin laguntzeko aukera gehiago eskaini ditzake Haur eta Nerabeen Babes-Sistemak. Gainera, haur eta nerabeen babesgabetasun egoerei aurrea hartzeko estrategia eraginkorrak garatu ahalko lituzke prebentzio unibertsalean ere esku-hartzean indarra jarritz, babesgabetasunarekiko arrisku-egoeretan edo larritasun maila altuagoetan eragiteaz gain.

- **Diadatik haratago, familia-harremanak lantzea atxikimenduan oinarrituta**

Fiese eta kideek (2019) APA eskuliburuan azaltzen duten proposamen gaurkotuan oinarrituta, familiekin egiten diren esku-hartzeetan, familiekin egiten diren esku-hartzeek familiaren sistemaren oinarria diren kide esanguratsu guztiak kontuan hartzea gomendatzen da. “Diada” analisei garrantzia kendu gabe, baina informazio horren osagarri gisa. Izan ere, baliteke atxikimenduari dagokionez, familiako kideren batek hurrekin sortutako harremanak esku-hartze diana baldintzatzea, hirugarren batek diadaren harreman estiloa moldatzean eragitea beren egunerokotasuneko errutinan, edota, beharbada, lehen haurtzaroan, familia-interakzioek hurren atxikimendu-irudikapenak iragarri ahal izatea, bost eta sei urteko hurrekin Dubois-Comtois eta Moss (2008) autoreek egindako ikerketan oinarrituta.

- **“Aitek” 0-5 urte bitartean sortutako atxikimendu harremanetan duten lekua eta papera**

Egun, atxikimenduan oinarritutako esku-hartzeen gaineko azterketa gehienak amen eta hurren atxikimenduaren gaineko azterlanak dira (Ahnert eta Schoppe-Sullivan, 2020).

Dena den, zenbati ikerketa lanen emaitzen arabera, eta, ordea, ikusi da aitek ere badutela haurren bizitzako lehen urteetan atxikimendu-harremanetan leku eta paper garrantzitsu bat (Walter et al., 2019), amarenagandik bereizia, baina garrantzitsua dena haurren garapen sozio-emozionalean (Cabrera et al., 2018). Eta oraindik, asko dago aztertzeko aiten atxikimendu harremanek haurren garapen orokorrean zer eragin izan dezaketen, Deneault eta kideek (2021) burututako meta analisi baten arabera.

Zeharkako eragina duten proposamenak

Azkenik, egindako etorkizunera begirako aipu eta proposamen guztiei zeharka eragiten zieten beste bi aspektu ere balioan jarri nahi ditugu, programaren inplementazioa bideragarria eta kalitatezko esku-hartzea izateko bermean.

Batetik, garrantzitsua litzateke Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman, profesional bideratzaileez gain, gainontzeko arreta zuzen eta zeharkako erdi-karguetako teknikariei zuzendutako formakuntza orokortuan inbertsio bat egitea, babesgabetasunarekiko arrisku-egoeren prebentzioaren gainean, atxikimenduaren teorian, ebidentzian oinarritutako esku-hartze goiztiarretan, eta AVI esku-hartze programa goiztiarrean. Horrela, haurtzaroko lehen urteetako babes, beharrak eta harreman-fenomenoan sakontzeaz haratago, detekzio lana, koordinazio lana eta babesgabetasunarekiko arrisku-egoerak prebentzioaren ikuspegitik ahal bezain pronto modurik eraginkorrean bideratu eta lantzea erraztuko luke.

Bestetik, lorpen haundia litzateke etorkizun laburrean, Haur eta Nerabeen Babes-Sisteman, 0-5 urte bitarteko familiei eskaintzen zaizkien esku-hartze programak estatuko probintzia eta lurralde historikoetan homogeneizatu ahal izateko irizpideak zehaztea babesgabetasun-egoeraren markoan eta haurren garapen sozio-emozionalean eta gurasoen gurasotasunean eragina dutela erakutsi duten esku-hartze programetan oinarrituta.

***Summary of the discussion:**

**“DISCUSSION, RESEARCH LIMITATIONS AND PROSPECTS FOR
FUTURE RESEARCH”**

On the basis of the research objectives set out in Chapter 4 of the second applied section, in this chapter, we discuss the main results obtained through the Doctoral Thesis.

Additionally, we present the research limitations and the areas of research and lines of research of interest that can be deepened in the future. Finally, we reflect the main *conclusions of this Doctoral Thesis.

To begin with, we recall the research objectives of this Doctoral Thesis: (1) adapt the Spanish version of the AVI program, implemented it in the Municipal Social Services as an example of the System of Protection of Children and Adolescents in the Autonomous Community of the Basque Country and carry out a study on its feasibility and acceptability; (2) analyse the effectiveness of the early AVI intervention program in promoting protective factors in times of COVID-19 crisis. That is, to assess whether it not only reduces the level of stress of parents and the level of domestic chaos, but also promotes emotional availability and the reflective role of parents.

1)The Spanish version of AVI: feasibility and acceptability

The first objective of this research has been to analyse the feasibility and feasibility of the Spanish version of the intervention program to be used in the Child Protection System.

Given that child maltreatment is a health and social problem (World Health Organization, 2020), the implementation of evidence-based programmes that promote protective factors is now a public priority. Not only to promote healthy societies from the point of view of universal prevention, but also from the point of view of primary and secondary prevention, in order to provide families at risk child abuse and neglect with effective intervention program.

Accordingly, from the Child Protection Services, it is essential to implement early, structured and effective intervention programmes based on evidence for families at risk of child abuse and neglect, so that, in addition to promoting protection, the prevention of the situation of lack of protection is achieved. An example of this is the early AVI

intervention program (Moss et al., 2018), which could be an effective resource for promoting protective factors. In fact, its effectiveness has been shown when it comes to promoting parental sensitivity, strengthening the parent-child positive relationships and the child's healthy attachment and development.

Thus, the feasibility and acceptability study carried out in this Doctoral Thesis leads us to conclude that the Spanish version of the AVI program (Moss et al., 2018) for which several adjustments have been made ((1) the systematic introduction of zero session, (2) the use of a more didactic and standardized approach in the preparation of the AVI thematic debates, and (3) the preparation of a systematic summary report at the end of each intervention session) is feasible and acceptable for its application in the Child Protection Services, and has been found to be effective in promoting healthy caregiver/child relationships (0-5).

In explaining these results, we believe there are a number of factors which may explain the feasibility and acceptability of the Spanish version of AVI:

1. Guarantee of maintaining the foundations of the original AVI intervention (Moss et al., 2018) in the Spanish version.

2. Combination of the quantitative and qualitative research methodology used.

3. The acceptance and commitment of the Spanish version of the AVI program of the practitioners who have carried out the implementation of the program for the systematic and homogeneous implementation of the program. For example, including video-feedback in the intervention, attention to attachment, limited time, etc.

4. The performance of session reports, session reviews, and group reviews; the fact that sessions with families are previously considered, verified, and written, facilitates, on the one hand, to keep the representation of the family in mind in a continuous and conscious manner, and, on the other hand, to better respond to the needs of families (Barratt et al., 2018).

5. *We believe that the systematic inclusion of a Zero Session has given us the opportunity of better knowledge and understanding of the characteristics of the family, and consequently of being more sensitive in the individualization of intervention.*

6. *Giving importance to the family-practitioner relationship or therapeutic alliance. This, systematically incorporated into the zero session, explicitly elaborated in the fourth session on the responses obtained in the alliance questionnaire, could partially explain the fact that it is based on the premises set out in the theoretical section (acting honestly, praising positive behaviors) and attributable to the small percentage (7.7%) that has abandoned the intervention, which shows the high level of satisfaction and acceptability of families.*

All this has led to a creative process of joint “thinking together with the families” and co-construction, which has had a positive impact on the effectiveness of intervention and on the degree of satisfaction with family intervention.

7. *Work especially on the construction of sensitivity within parenting (Bakermans-Kranenburg and Oosterman, 2021) and consider the involvement of children and responsiveness (Biringen et al., 2014) when assessing Emotional Availability.*

8. *The fact that the implementation is made in natural context.*

2)The effectiveness of the Spanish Version of AVI in COVID-19 pandemics

The results

- ✓ The COVID-19 pandemic resulted in an increase in the risk for child abuse and Neglect.
- ✓ Attachment Video-feedback Intervention program (AVI) can increase protective Factors.
- ✓ AVI can improve emotional availability and certainty in mental states in parents
- ✓ AVI reduced household chaos during the COVID-19 pandemic.
- ✓ The administration of the AVI should be considered by Child Protection Systems.

In the text, the mentioned highlights are analysed in depth followed by a reflection on the results obtained in these variables: the level of stress of parents, the level of domestic

chaos, the reflective capacity of parents on their children's mental states, and the Emotional Availability of the dyad.

RESEARCH LIMITATIONS

As for the work presented in this Doctoral Thesis is concerned, it has some limitations on the evaluation of the results explained in the applied section:

- ✓ The sample size used is small in the two empirical works.
- ✓ The prementalization variable could not be used in the analysis of the data, and considering that prementalization can play a key role in the intergenerational transmission of child abuse (Condon et al., 2021) it could be a limitation.
- ✓ The use of a self-informed measure to measure the reflective function of parents, which may reflect a misguided tendency to measure the variable.
- ✓ Similar is the case with the measurement of Emotional Accessibility (Biringen et al., 2014) only by a single observational measure.
- ✓ Imbalance in gender participation.
- ✓ Not measuring and presenting other variables related to the child's socio-emotional well-being beyond the Emotional Availability variable.
- ✓ The use of a long-term design would make it possible to test the consistency of the results obtained in this Doctoral Thesis and to deepen the results.

PROSPECTS FOR FUTURE RESEARCH

Over the past ten years, the Child Protection System has undergone significant changes: from promoting social policies based on deprivation to a model of development; from selective and isolated strategies to a more universal vision; and from the idea of protecting children to a model of child welfare (Kamerman et al., 2009).

Thus, in the following lines, some detailed proposals relating to the early AVI intervention program, which promotes sensitive parenting and contributes to the development of the socio-emotional well-being of children (0-5 years).

With regard to the prospects for future research, beyond the contributions made to this Doctoral Thesis, the following proposals would be interesting. These innovative lines of research have been grouped by field of application, intervention methodology,

intervention itself and to whom it is addressed or profile. Finally, proposals with trasversal impact are listed:

-Field of application

- In the Child Protection System, foster care in family evaluation processes.
- The Child Protection System for the adoption of measures or decision taking for the protection of minors.
- Program offer in other care systems beyond the Child Protection System.

-Intervention methodology

- Telehealth

-Intervention itself

- Formally and systematically incorporate specific elements of mentalization into the intervention sessions.
- Explore a more complex relationship between variables.
- In addition to intervention in families' homes or in natural contexts, the play proposal to be linked to family routines (Dunst and Trivette, 1995).
- After each session of the AVI programme, it undertakes to apply to the family some kind of activity during the week, which allows the repetition of behaviors and attitudes reinforced during the session and the testing of other contexts or situations, and consequently the establishment of learning. In the Spanish version of the AVI there has been no close systematic monitoring of this, and it would be interesting to strengthen this element of intervention in close collaboration with the family through family focused practices (Dunst and Espe-Scherwindt, 2016; Escorcía and Rodríguez, 2019; Espe-Scherwindt, 2008; García-Sánchez et al., 2018).

-To whom it is addressed or profile

- Offer of AVI in the perinatal stage.
- Beyond the dyads, work with family relationships based on attachment.
- Place and role of fathers in attachment relationships between the ages of 0 and 5.

-Proposals with indirect impact

- Training for technicians in direct and indirect care, in addition to facilitator professionals. Thus, beyond deepening the protection, needs and relational phenomenon of the early years of childhood, it would facilitate the management and treatment of detection, coordination and risk situations of lack of protection as quickly as possible from the point of view of prevention.
- To establish the criteria for homogenizing early attachment-based intervention programs in the Child Protection System, for families aged 0-5 years through the provinces and historical territories of Spain.

***CONCLUSIONS**

The principal aims of this Doctoral Thesis have been the following:

- (1) To implement the Spanish version of the AVI program in the Municipal Social Services of the city of Donostia-San Sebastián, which is representative of the System for the Child Protection System in the Autonomous Community of the Basque Country, and to carry out a feasibility and acceptability study of it.
- (2) To analyze the effectiveness of the early AVI intervention program in promoting protective factors in times of COVID-19 crisis. That is, to assess whether it reduces levels of parental stress and household chaos and promotes Emotional Availability and the parental reflective functioning capacity of parents.

With regard to the first objective, it should be noted that several findings made us promote the implementation, feasibility and acceptability study and initial outcomes to better understand the impact of the Spanish version of the early AVI intervention program in the Child Protection Services in Spain.

- Child maltreatment is a social and public health priority in Spain.
- Evidence-Based Interventions that have shown to be effective in the Child Protection System setting should be implemented to reduce child maltreatment's negative and long-term consequences. In Spain, there is a need to introduce systematic and evidence-based programs in the Child Protection Services, with a specific focus on the prevention of the risk of child abuse and neglect.
- In Spain, there is no evidence that early attachment-based interventions are able to achieve the previously stated goal. Hence, there is a need for the implementation of an early (0-5 years) effective program like the AVI to decrease the risk of intergenerational cycles of abuse and neglect and reduce the proportion of children with insecure attachments.

The AVI program has demonstrated its value as a resource for improving parental sensitivity, parent-child interactive behaviors, and child attachment and development. To ensure the proper implementation of the program in Spain, we assessed the feasibility and

acceptability of this program in close collaboration with the authors of the AVI, which led to an adapted Spanish version of the AVI.

The results showed that the implementation of this adapted version by the child protective services is highly feasible and acceptable. Also, the initial results indicated the AVI's effectiveness in increasing positive caregiver-child emotional relationships, providing evidence of the feasibility and acceptability of the Spanish adaptation of the AVI.

As far as the second objective is concerned, we analyzed the effect of the Attachment Video-feedback Intervention on some protective factors during the COVID-19 pandemic.

As previously mentioned, the COVID-19 pandemic has had an impact on the following variables: parental stress, household chaos, emotional availability and parental reflective functioning. In fact, the following highlights explain the impact of the pandemic on the named variables:

- The increase in parental stress has been one of the most notable effects of the unprecedented global crisis associated with COVID-19. Families at risk of child abuse and neglect could experience greater stress related to the responsibilities of parenting.
- Greater parental stress is likely to promote household chaos. Moreover, associations have been found between household chaos and parental sensitivity or quality of parent-child interaction.
- During the pandemic period, parents subjected to high parental stress showed greater emotional distance from their children and lower satisfaction with their parental role, as assessed using self-report measures. In turn, these features have been associated with higher levels of clinical symptoms in children during the pandemic.
- It has been suggested that the stress associated with the social challenges resulting from the COVID-19 pandemic may have affected parental reflective functioning, making it more difficult for parents to consider their children, being overly focused on their own concerns or overwhelmed by increasing demands of parenting.

The results of the current study have shown that the Attachment Video-feedback Intervention program (AVI) can increase protective factors, such as parent and child Emotional Availability, household functioning and parental reflective functioning to some degree in families identified as at-risk for child abuse and neglect during a period of crisis such as the COVID-19 pandemic. Thus, it could be an effective early (0-5 years) attachment-based program to use for the prevention of child abuse and neglect in the setting of Child Protection Services.

This approach is in line with the Strategy for the Rights of the Child 2022-2027 put forth by the Council of Europe (2022) and with the Basque Strategy to Combat Violence against Children and Adolescents (2022-2025), from the perspective of prevention and early intervention proposals.

With regard to the process and outcome of the implementation of the AVI program shown in this Doctoral Thesis, we would like to outline the importance and success of putting together so many agents, institutions and knowledge areas working together as a team. That is to say, the networking shown in the fifth (“The Spanish version of the AVI: implementation context”) and seventh chapter (“The intervention procedure of the Spanish version of AVI”) has led to a working dynamic scarcely seen in any working context of Child Welfare in Spain, and it has resulted in an enriching outcome. We affirm that the Spanish version of the AVI has been made possible through collaboration and following a multidirectional linked work between the Child Protection Services, the University of the Basque Country, the practitioners from the HZ organization and the continuous supervision from the original authors of the AVI program in Canada.

This has resulted in an outcome that could be sustainable long-term, due to the fact that the obtained “knowledge” has been created through the implementation process and it is thought to add value beyond research. In fact, research and practice, universities and society, have received nourishment from each other through the process. Actually, we believe that this research might contribute to bringing social innovation to the field, enhancing early interventions (0-5 years) offered by the Child Protection Services.

To sum up, by this Doctoral Thesis, we have been able to obtain a Spanish version of the AVI program to be implemented in the Child Protection Services, an effective intervention that will prevent the risk of child abuse and neglect.

ERREFERENTZIAK/ References

- Aber, J., & Zigler, E. (1981). Developmental considerations in the definition of child maltreatment. *New Directions for Child and Adolescent Development*, *11*, 1-29. <https://doi.org/10.1002/cd.23219811103>
- Abidin, R. R. (1995). *Parenting Stress Index (PSI) manual*. Pediatric Psychology Press.
- Aguiar, J., Matias, M., Braz, A. C., César, F., Coimbra, S., Gaspar, M. F., & Fontaine, A. M. (2021). Parental burnout and the COVID-19 pandemic: How Portuguese parents experienced lockdown measures. *Family Relations*, *70*, 927-938. <https://doi.org/10.1111/fare.12558>
- Ahnert, L., & Schoppe-Sullivan, S. J. (2020). Fathers from an attachment perspective. *Attachment & Human Development*, *22*(1), 1-3. <https://doi.org/10.1080/14616734.2019.1589054>
- Ainsworth, M. D. (1989). Attachments beyond infancy. *The American Psychologist*, *44*, 709-716. <https://doi.org/10.4135/9781452243276.n1>
- Ainsworth, M. D., Blehar, M. C., Waters, E., & Wall, S. (1978). *Patterns of attachment: A psychological study of the strange situation*. Hillsdale, NJ: Erlbaum.
- Albert, V., Piroton, G., & Ska, V. (2006). Une approche conjointe de la supervision collective dans le non-marchand. *Laboratoire des Innovations Sociales*, 57-58.
- Altenhofen, S., Clyman, R., Little, C., Baker, M., & Biringen, Z. (2013). Attachment security in three-year-olds who entered substitute care in infancy. *Infant Mental Health Journal*, *34*(5), 435-445. <https://doi.org/10.1002/imhj.21401>
- American Psychological Association (2018). *Developing the therapeutic relationship: integrating case studies, research, and practice*. American Psychological Association.
- Andeweg, S. M., Bodrij, F. F., Prevoo, M. J. L., Rippe, R. C. A., & Alink, L. R. A. (2021). Does sensory-processing sensitivity moderate the effect of household chaos on caregiver sensitivity? An experimental design. *Journal of Family Psychology*, *35*, 356-365. <https://doi.org/10.1037/fam0000766>

- Andrade-González, N., & Fernández-Liria, A. (2016). Spanish adaptation of the working alliance inventory-short (WAI-S). *Current Psychology*, 35(1), 169-177.
<https://doi.org/10.1007/s12144-015-9365-3>
- Andrade, S. J., Shedlin, M. G., & Bonilla, E. (1987). *Métodos cualitativos para la evaluación de programas*. The Pathfinder Foundation.
